


# ttipi-ttapa

Ugutz ZELAIETA | Lan istripuan zauritutakoa

## «HUTS TXIKI BATEK BIZITZA GOITIK BEHEITI ALDA DEZAKE»

Benta bat eraikitzen ari zirela, istripu larria gertatu zen 2015eko azaroaren 25ean Dantxarinean. Langile bat hil eta hiru zauritu ziren eta tartean zen Ugutz Zelaieta oiztarra.

Istripuak «niregan eta familiarengan arrastoa» utzi duela aitortu du. / 12



### JUAN JOSE LASARTE IMMUNOLOGIAN KATEDRATIKOA

Leizarra azken urtean Covid-19aren aurkako txertoa garatzen aritu da, baina minbiziari aurre egiteko immunoterapia berri bat hobetzen ere badabil bere lantaldearekin. / 8

**Zazpigarren aldiz gau krosa antolatu dute Beran larunbat honetarako** / 17

**Talo Eguna irailaren 19an izanen da Leitzako plazan** / 34

#### SINADURAK

 MAITE BIDARTE SOTA / 3

 AITOR AROTZENA ALBIZU / 3

 MIREN KARMELE GOMEZ GARMENDIA / 3

 MIKEL TABERNA IRAZOKI / 4

**Arretxeko Bordako Kronoigoera irailaren 11n eginen dute Sunbillan** / 24

**Baztan Rugby Taldeak jokalariak behar ditu aitzinera egiteko** / 41



**ZOZKETA** / 11

# BERA LESACA

## Agenda 2021

IRAILA

www.berakoagenda.eus  
www.lesaka.eus

LESAKAKO  
UDALA

<b>3</b> ORTZIRALEA <b>BERA</b>	<b>KONTZERTUA JAC</b> 19:00 Herriko etxeko plaza Argibide gehiago www.bluesjac.com	<b>5</b> IGANDEA <b>BERA</b>	<b>HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA AMETSEN URTEBETETZEA (KANTU KOLORE)</b> 18:00 Altzateko plazan Argibide gehiago www.kantukolore.eus	<b>17-19</b> <b>LESACA</b>	<b>EKITALDIA ZIKLOAREN ITXIERA</b>
<b>3</b> ORTZIRALEA <b>LESACA</b>	<b>BAKARRIZKETA ANTON TELLERIA 'NEKATUTAK'</b> 20:00 Bittiriko plazan	<b>10</b> ORTZIRALEA <b>LESACA</b>	<b>MUSIKA MICE</b> 19:00 Plazan	<b>25</b> LARUNBATA <b>LESACA</b>	<b>MERKATUA MERKATU TTIKIA</b> 10:00-14:30 Beheko Plazan
<b>4</b> LARUNBATA <b>LESACA</b>	<b>AZOKA ARTISAU AZOKA</b> 10:00 / 14:00 Antolatzaileak Argitsu Bidasoa Eskualdeko Artisauen Elkarte	<b>11</b> LARUNBATA <b>LESACA</b>	<b>EKITALDIA ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KONPARTSA</b> 10:30 Harriondotik abiatuta	<b>25</b> LARUNBATA <b>BERA</b>	<b>ORGANO KONTZERTUA IGNACIO ARAKISTAIN (ORGANO) ETA XABIER BARRIOLA (TENOREA), VALENTIN LARREAREN OMENEZ</b> 18:30 Sanesteban elizan Antolatzailea Nafarroako Gobernua Laguntzailea Berako Udala
<b>4</b> LARUNBATA <b>BERA</b>	<b>KIROLA VII. BERAKO GAU KROSA</b> 22:00 Argibideak eta izen-ematea www.mantale.com Antolatzailea Mantale Mendi Lasterketa Taldea	<b>11</b> LARUNBATA <b>LESACA</b>	<b>EKITALDIA DANTZA TALDEEN TOPAKETA</b> 18:30 Harriondotik abiatuta Antolatzailea Beti-Gazte	<b>26</b> IGANDEA <b>LESACA</b>	<b>EKITALDIA BERTSOLARITZA</b> Aitor Sarriegi, Sustrai Colina, Ane Labaka, Josu Sanjurjo eta Ekhiñe Zapiain. Gai-jartzailea Iratxe Muxika 18:00 Lesakako plaza zaharrean
<b>12</b> IGANDEA <b>LESACA</b>	<b>MUSIKA DUPLA</b> 19:00 Harriondoako atarian				

## aurten ere

# euskara ikaSI!

**BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIA**  
Lesaka - Matxinbeltzenea  
Tel. 948 637 796  
bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus

**MALERREKAKO EUSKALTEGIA**  
Doneztebe - Rosa Seminario, 6  
Tel. 948 451 555  
malerreka@ikaeuskaltegiak.eus

**LEITZA, IMOTZ-BASABURUA eta ARAITZ-BETELUKO EUSKALTEGIA**  
Leitza - Euskal Herria Plaza, 1  
Tel. 948 610 776  
leitza@ikaeuskaltegiak.eus

**DIRUZ LAGUNDUTA**

**MATRIKULA ZAITEZ irailaren 30a baino lehen**

euskara errazago egiten **ika**

[www.ikaeuskaltegiak.eus](http://www.ikaeuskaltegiak.eus)



## NIRE TXANDA

MAITE BIDARTE SOTA

### Bizikleta gaineko pentsamendu batzuk

Irakurtzen ari zareten hau Perpignan inguruan ari naiz idazten. Bizikletan ari gara bidaiatzen, Toulouse-Girona egitea da intentzioa. Midiko Kanalaren bidea jarraitu dugu hasierako lehen bi egunetan. Aspergarri xamarra, portzierto. Baina bideak badu gauza on bat eta da jende aunitz ezagutzen dela.

Albert ezagutu dugu, Pirinioetan elur jauziak aurreikusten lan egiten duen katalana. Hark kontatu zigun National Geographic-en arabera, gizakia pikutara joanen dela 2040. urtean. Carcassonne inguruan ezagutu genituen Fran eta Viqui. Teknologia negozio bat ireki zuten Meridan, baina ezin izan zuten merkatuan lehiatu eta dena galdu zuten, Baita etxea ere. Bidea oinez egiten ari dira, bi maleta eta orga batekin. Kostara ailegatu nahi dute ostren denboraldian lan egiteko. Bizikletan isilik egiten dira kilometro aunitz, eta maiz etortzen zaizkit burura, Albert, Viqui eta Fran.

**«BIDEAK BADU GAUZA ON BAT: JENDE AUNITZ EZAGUTZEN DELA»**



## EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

### Ez dira zalantzetarako garaiak

Gauza gehienei buruz zalantzak ditugunok miresmenez eta inbidiaz (beldurrez?) begiratzen diegu kontu guztiei eta denari buruz iritzi sendo eta pitzadurarik gabea izan eta plazaratzen dutenei. Zalantziak bide zuzenerako atea ere irekitzen digute eskuzabal, egiaren jabe direla jakitun. Garai batean pulpitorik aritzen ziren eta guk *Amen* erantzun. Orain *Like* ematen diegu.

## NABARMENTZEKOAK



**JOXE MARI TELLETXEA**  
OMENDUA



**MILAGROS ALDABE**  
100 URTE

Herrian kirolaren alde egindako lana eskertuz oroigarria eman diote Joxe Mari Telletxea beratarrari. Abuztuaren 22an Beran jokotutako pilota jaialdian hartu zuen oroigarria.

Abuztuaren 21ean 100 urte bete zituen Milagros Aldabe beratarrak. Mendeurrena ospatzeko egun berezia antolatu zuten Berako San Jose zaharren egoitzan bere omenez.

## ATZERA BEGIRA



2011-09-01 · TTIPI-TTAPA · 549 zk.

### Etxalarko Altxata elkarteak 25 urte

1991ko otsailaren 24an sortu zen Etxalarko Altxata Kultur Elkarte eta 20. urteurrena gogoan, erreportajea egin zuen TTIPI-TTAPAK duela hamar urte. Axun Maia eta Garbiñe Maia Altxateko kideekin, ibilbidearen erreposoa egiteaz gain, antolatu zituzten ekitaldiez eta etorkizunera begirako erronkez mintzatu ziren. 20 urtez, «bazkide kopuruak goiti» egin zuela kontatu zuten, baina «hasierako helburu berak mantentzen» zizutela argitu zuten: «euskal kulturaren inguruan lanean aritzea». Urteurren besta ere ospatu zuten eta egun horretan Pello Apezetxea omendu zuten: «Altxaren sortzaileetako bat eta bazkide arrunt bat baino aunitzez gehiago da. Herri honek gaur egun duen kultur errealitatearen hezurdura berari zor diegu».



erran. eus



**Argitaratzailea**  
Ttipi-Ttapa Fundazioa  
Koskontako bidea, 7 - 1.  
31770 LESAKA  
T. (+34) 948 63 54 58  
F. (+34) 948 63 54 57  
WhatsApp 744 48 43 61  
info@ttipi.eus

**Zuzendaria**  
Aitor Arotzena  
**Erredakzioa**  
Gurutze Pikabea, Nerea Bazterrika,  
Ruben Oskariz, Eneritz Iraola  
**Publizitatea**  
Amaia Odriozola  
Arantza Agirre  
Usoa Vicente  
**Berriemalleak**  
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,  
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,  
Arantxa eta Iraia, Irune Elizagoien,

Maider Petirena, Oihana Kalparsoro, Fermin Ebekolonea, Aintzane Leiza, Pablo Irastortza, Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari Barriola, Marga Erdozain, Maitane Maritorea, Arantxa Iturralde, Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Pierre Bastres, Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

**Fundazioaren Presidentea**  
Pello Apezetxea  
**Kudeatzailea**  
Joxemanuel Irigoien  
**Administrazioa**  
Amaia Goia  
**Lege Gordailua**  
NA-1324/85  
**ISSN**  
1578-4673  
**Tirada**  
6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak**  
Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senperoko udalak, Malerrekako Zerbitzuen Mankom., Zugarramurdioko Akelarre elkarte  
**2021eko harpidetza sariak**  
Baztan, Urdazubi 40€  
eta Malerrekako 30€  
Leitza 30€  
Hego Euskal Herria 48€  
Ipar Euskal Herria, Europa 94€  
Amerika eta Australia 140€



## KOLABORAZIOAK

MIREN KARMELE GOMEZ GARMENDIA

## Urteko argi-ilunak

2021eko irailaren 22an, 17:21ean, udazkeneko ekinozioa gertatuko da, Eguzkiak Virgo konstelazioan dagoen puntu jakin bat zeharkatzen duen unean. Urtaro berria estreinatuko dugu uda gibelean utzirik, eta egun horretatik aitzinera urteari 100 egun geldituko zaizkio akaberarako. Egun berezi horretan gaua eguna bezain luzea izanen da ipar zein hego hemisferioan. 12 ordu argitasunean igaroko ditugu, 12 ordu iluntasunean. Bi ekinozio daude, udazkenekoa eta udaberrikoa.

Virgo konstelazioak dituen bi izar nabarmenenak Spica (galburu) eta Vendimiatrix (mendematu) dira, eta ikusten duzue, nekazaritzarekin lotura duten izenak dira. Izan ere, irailean zenbait uzta biltzeko garaia da eta eginkizun honi egiten diote erreferentzia izen horiek. Baina, kontuz! Ez zaitezte saiatu sasoi honetan Virgo zeruan bistaritzen, izan ere, aipatu dugu Eguzkia konstelazioa edo zeruko eremu honen aitzinetik igarotzen dela, beraz, horrek erran nahi du izar-multzoa eguna denean dagoela zeruan. Orduan, noiz ikusiko da Virgo gauez? Hain justu, sei hilabeteren buruan, udaberriko ekinoziorantz hurbiltzen garenean, martxoan.

Kondairak dio, udaberrian ateratzen dela Virgo denen begietara. Hobeki erran, bere ama zen eta urtaroak menperatzen zituen Ceres jainkosaren begietara. Egun batean, infernuko jainkoa zenak, Plutonek, Virgo bahitu eta lur azpira eraman zuen, berarekin maitemindu baitzen. Ipuinaren arabera, Ceresek, tristurak hartuta, urtaroen

«**BADIRA HILABE-TEAK PANDEMIAK EGUNEROKO ALAIA BAHITU ZUENETIK**»

oreka hautsi zuen eta betiereko negua jarri zuen indarrean: iluntasuna eta hotza nagusi izan zen denbora luzez. Honek, gizateria tristezia eta miserian murgildu zituen, baina, azkenik, negoziazioa tarteko, Virgo urte erdiz Plutonekin egotea adostu zen, eta urte erdiz bere amarekin. Virgo udaberrian ateratzen zen bere amarengana, eta honek, loraldia eta uzta oparoak ekartzen zituen bere ama kontent jartzen zelako. Udazkenean, aldiz, neskak Plutonengana itzultzen zen, eta Ceresek lurra antzu bihurtzen zuen.

Badira zenbait hilabete dagoeneko pandemiak gure egunerokotasun alaia bahitu zuenetik, eta geroztik, Ceres bezala, nahiko etsituta gabilza egoerarekin. Bitartean, hurrengo ekinozioaren esperoan geldituko gara, alaitasuna den (zen) normaltasunaren konstelazioa dagoen tokitik atera eta ikusgai bihurtuko ote den pentsamenduan.



MIKEL TABERNA IRAZOKI, KAPI

## Autobus bat nahi nuke

Tarteka sartzan zait burutan bueltatu nahiko nukeela sorterrira bizitzera, urte osora luzatu udako egonaldia. Aurtengoan, mintzatu gara senar hil berria bilatzen ari zen alargun deskontsolatuarekin, haren baratze abandonatuan gailentzen hasia zen lapaitzari begira. Guraso hegoamerikarrak dituen neskak gazteak euskara ederrean atenditu gaitu dendan, irria ezpainetan. Eta martin arrantzale bat hegaka jo dugu begiz Bidaso bazterrean, tximista urdin bat; bertan ito den gazte ginearraren arima Afrikara eramaki zuen mokoan. Lantegi handiaren parean pankarta zabalik protesta egiten ari ziren langileekin elkartu da Parisko Citroën fabrikaren 1968ko maiatzean bi hilabeteko greba egin zuen gizon zimela. Itzuliko nintzateke herrira bizitzera, bai, jakin goserik izanez gero bertan ere ez baita falta zer jan. Pintura erakusketara joan gara kultur etxera, eta han artista negarrez, ezin jakin pozagatik edo tristuraz, koadroetako pertsonaiak ihesi joan zaizkiolako, sobera bizirik pintatuak izaki. Erakusketa aretoa ere bisitatu dugu, hango lagunenez mezu ausarta ebastez fanzine baten orrietan gordeta. «Lesbiana naiz» garrasi egin du bertsolariak plazan, eta isilarazi du kantatzera utzi nahi ez zioten arren marmarra. Ilunabarrean, kioskora igan dira tronpetistak, akordeoilaria, gitarra jotzaileak,

«**TTANTTAKA MUNDU BAT, EKONOMIA BAT, BIZIMODU BAT ARI ZAIGU DESAGERTZEN**»

kantariak, batzuk soraiozko bertzeek alegantzia kutsakorra parrastaka, eta ahate batek bururen buru gurutzatu du ikus-entzuleen zeru puska. Egun seinalatuan ez da etxafuegoen zapartik aditu auzoan, arkulo heraldu bat ikusi dugu herrestaka lurtean, eta hamaika lasterkari eta txirindulari gurutzatu ditugu trenbide zaharrean, eskumuturreko ordulariari begira, errekorrak hausteko prest. Ez zekiten gure lagun batek irabaziko zuela karrera olinpikoa, ospitaleko ZIUaren tunelean burua makurtu gabe hilabete bat eman ondotik. Biba hi! Ordea, urteak eta urteak dirauen bertze pandemia klase batek ostatu bat hil du berriz ere uztail gorrian, ehun eta bederatzi urte bete berri zituen jatetxe xarmanta, hainbertze aldiz idorpea eman diguna; ttanttaka ari zaigu desagertzen mundu bat, ekonomia bat eta bizimodu bat, eta nago ez ote genukeen saiaku beharko barrikada paratzen, zerbait asmatzen, gure herriak ez daitezen bihurtu lotoki huts edo jendeak kanpora eskapu egin baino lehen. Bizi banaiz, noizbait ere bueltatuko naiz segur aski jaiolera bizitzera urteko egun guzietan. Horretarako, baita ere, autobus polit bat nahi nuke, publikoa, ibilbide eta ordu aldetik oraingoak baino puska eskuzabala goa izan beharko lukeena. Galdu ziguten trenaren faltan, autobus bat beharko genuke, zoko batean herdoiltzen utzita automobil partikular jainkotua (arriskutsu eta kutsagarria), bertzeengana eta bertzeetara noiznahi joateko aukera izanez gero aisago iraunen baikenuke gustura bakoitzak geurean.

## 11 GALDERA LABUR

NEREA ALBIASU AZKARRAGA NARBARTEKO GAZTEA

## «Batxilergoaren orde zikloetako bidea hartu dut eta aunitz ikasi dut»

**Nola aurkeztuko zenuke zeure burua?**

20 urteko narbartarra naiz. Zein dira zure zaletasunak? Lagunekin egotea eta besta egitea, nahiz eta momentuz ez dudan egiten.

**Zeintzuk dira egin dituzun ikasketak?**

Erdi mailako Administrazioa eta Kudeaketa ikasi nuen Elizondoko Lanbide Eskolan. Aurten, berriz, Iruñean akitu dut finantza kudeaketako goi maila.

**Ikasketak akitzean praktikak egin zenituen. Nolako da enpresaren esleipen prozesua?**

Lehenik ikasleei gure gustuko edozein enpresa hautatzeko aukera ematen digute, baina bertzela, eskolak hautatzen ditu.

**Praktikak lan mundurako prestatzen zaituztela erranen zenuke?**

Nire ustez, bai. Azken finean horretara joaten gara ikastera. Nahiz eta denek batxilergoa ikasteko erran, nik zikloetako bidea hartu dut eta aunitz ikasi dut.

**Praktikak akitzean lana aurkitzea erraza izan da?**

Ekain bukaeran akitu nituen praktikak eta zortea izan dut enpresa berean ari naizelako lanean. Arras gustura nago hemen, nahiz eta Iruñeraino joan-etorria egin beharra duan egunero.

**Eta nola ikusten duzu gaur egungo gazteen egoera lana bilatzerakoan?**

Pixka bat zaila ikusten dut, eta koronabirusak ez du egoera erraztu. Hala ere, gogoia izanez



gero, lana aurkitzea posible dela uste dut.

**Praktiketako ikasle izatetik lan-gile izatera alde handia dago?**

Ez zait inoiz ikasten aritzea gustatu, beti pentsatu izan dut lan mundua hobea dela. Enpresan bankuak koardatu, kontabilitateaz arduratu, erosketetako albaranak eta fakturak sartu... egiten dut.

**Narbartetik ateratzea beharrezkoa da lan egiteko?**

Herri ttiki batean bizitzeak bere alde onak eta txarrak ditu.

Gaur egun, gazteria kanpora joaten da lan bila herrian ez dagoelako aukera aunitzik, eta hau oraindik gehiagora joanen dela uste dut.

**Zure asmoak epe motzera?**

Heldu den kurtsoan ez dudanez ikasi behar, lanean segitzea edozein lekutan.

**Eta zure nahiak epe luzera?**

Normaltasun batera itzultzea, musukorik gabe, nahi dugun orduan etxera bueltatzen, gel hidroalkoholikorik erabili behar izan gabe...

**Merkealdia azken egunak**

**70. urteurrena**

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

**Albornozak**

**Mantelak**

**Kuxinak**

**Edredoi nordikoak**

**Ohe estalkiak**

**Maindireak**

**Toailak**

**Edredoi-azal nordikoak**

## IRAKURLEAK MINTZO

**Elizondoko Osasun Etxeko langileen egoera**

**AMAIA ZABALO AMEZKETA, GORKA ARANAZ URRIZA, PAKITA BERTIZ LASTIRI, BEATRIZ OTXOTORENA VILLANUEVA, AGURTZANE GOIENETXE GOÑI, MIRIAM ZIGANDA ZENOZ, IRUNE TUBIA BARBERIA, ARANTXA GORTARI ARRAZTOA, LOINAZ AZURMENDI, BENEDICTO AGIRRE ETXEBERRIA, SANTOS IRIGOIEN ARA, AMAIA IÑARRE ETXENIKE, IRATI LIZARRIBAR BAKAIKOA, QUINTIN CAMPISTEGUI RAMIREZ, LOINAZ ELIZEGI OTXANDORENA, PAULA GONZALEZ DE LA RIVA TRONCOSO, MIREN UXUE IBAÑEZ BASTERRIKA, AINHOA VIELA IRUNGARAI, MIKEL BAREA MURGA, JOAKI LARRAMENDI, JUANA M. URRUTIA ALBERRO, ARANTXA UGALDE IRIGOIEN, AGURTZANE ELIZEGI NARBARTE ETA OLGA KIRCHNER AMOR | ELIZONDOKO OSASUN ETXEKO LANGILEAK**

Elizondoko Osasun Etxeko langileok gure lan egoeraren berri eman nahi dugu.

Langile falta dela eta, egoera etsigarriarri gaude. Momentu honetan ordezkatu gabe ditugu hiru mediku postu eta urtebete baino gehiago bada pediatra postu erdia ere bete gabe dugula. Azkenaldian erizain eta administrariak ordezkapenik gabe geratu izan dira. Honek guztiak herritarrei eskainitako arreta egunetik egunera okertzea eragin du, abiadura larri eta kezagarrian.

COVID gaitzak protagonismoa hartu du gure egunerokoan: diagnostiko azkarrerako testak egitea, PCRak, telefono bidezko jarraipena, aurrez aurrekoa beharrezkoa denean, kasu eta kontaktuen zalantzak argitu eta hitzorduak kudeatzea, txertaketa kanpaina... Mediku eta erizainen agendak aurrez bete-beteak zeuden eta orain gainezka egin dute. Saturazio honek nahitaez eragiten die bestelako arazoengatik arreta behar duten pazienteei, larrialdiak kenduta. COVIDaz gain bestelako arazoak dituzten pertsonak artatu behar eta nahi ditugu: gaitz kronikoak dituztenak, minbizia dutenak, osasun arazoak dituztenak, probaren bat egin behar dutenak... osasun arreta behar duten guztiak, gaitzaren larritasuna edozein izanik ere.

Urteak dira medikuak ordezkatzeko arazoekin gabiltzala. Erantzun ofizialarekin ohituta eta aspertuta gaude dagoeneko: «Ez dago medikurik». Erantzun horrekin iduri du mediku falta aurreikusi ezinezko eta soluziorik gabeko arazoa dela! Egoera horretara zoriz iritsi izan bagina bezala, inork hori gertatuko zela jakin gabe! Bistan da erantzun hau ez dugula sinisten, ez baita posible administrazioko ardura-dunak azken hamarkadetako egoera honen jakitun ez izatea (medikuen jubilazioak eta etengabeko migrazioak beste komunitate edo herrialdeetara).

Epe luzerako aurreikuspenik ez dago. Orain arte medikuekin genuen arazoa badirudi hemendik aurrera erizain eta administrarien ordezkapenekin izanen dugula.

Uda honetarako ez dugu oinarritzko eta ezinbesteko langile kopurua ere! Gutxienekoaren azpitik gaude. Plantilla gainezka eginda eta zigortua dago, eta hala ere egunerokoan malabareak egiten jarraitzen dugu pazienteen arreta bermatzeko.

Akituta gaude, leher eginda. Ahal duguna eta behar genukeena baino askoz gehiago gure gain hartuta. Ez dugu uste soluzio egokia denik herritarrei eskatzea soilik kasu akutuetan, urgentzietan edo deskonpentsazioak dituztenean etortzea osasun etxera. Hau ez da soluzioa eta guri inpotentzia, ezinegona, frustrazioa eta haserrea eragiten dizkigu.

Noraezean gabiltza. Osasunbidea kudeatzen eta zuzentzen duten aunitzek abandonatu gaituztela sentitzen dugu, isiltasuna baita orain arte jaso dugun erantzuna.

Noiz arte egin beharko dugu lan erritmo eta baldintza hauetan?

Noiz proposatuko dizkigute soluzioak Osasunbideko arduradunek?

Noiz indartuko dute herrietako arreta?

Begirada urrutira zuzenduko duten politikari, planifikatzaile eta administratzaileak behar ditugu sistema publikoan. Etorkizuneko pandemiak

aurreikusi eta neurriak garaiz hartzeko gai izanen direnak; COVID baino hilkortasun handiagoa izaten ahal dutenei aurre egiteko gai izateko antolakuntza egokia proposatuko dutenak.

Azkenik barkamena eskatu nahi diegu egoera hau dela-eta behar bezala artatuak sentitu ez diren herritar guztiei.

**Don Tiburtzioren agurra**

**LINO ELIZALDE LOIARTE | ZUBIETA**

Don Tiburtzioren bat-bateko eritasunak eta heriotzak pena handia eman digu Zubieta eta Malerrekako herri guztietan, eta bere falta handia sumatzen dugu denok.

Hasieran denak galdezka eta galdezka aritu ziren bere osasun egoeragatik eta gero bere heriotza etorri da, Jainkoak bereganara eramate hau.

Berarekin beti oso pozik egon gara eta nahi genuen bezala ibiltzen ginen. Hartua genion izugarritzko maitasuna eta ezagutzen genuen bere izateko manera umoretsua. Arrunt gustuko genituen bere mezak, bere lana egiteko manera, bere sermoi gozo eta dotoreak, bere bizitasuna...

Don Tiburtzio: Eskerrak ematen dizkizugu urte pila luze hauetan gurekin egin duzun lanagatik, eman diguzun janari espiritual guztiarengatik. Igandero-igandero zure gidaritzapean Jesusen Hitza entzun eta hausnartu dugulako ezin hobeki zuri esker. Mila esker, Don Tiburtzio! Zu gabe ez ginen hain zoriontsu izanen urte hauetan!

Aurtengo Jaunartzeko umeek eta Sendotzako gazteek beraz galdetzen zuten: zer pasatu zaio? Etorriko da gure Jaunartzera? Etorriko da guri Sendotza ematera? Askoi maite zuten, bazekielaiko haiengana ezin hobeki hurbiltzen bere umore klasikoa eta ontasuna erabiliz.

Baina Don Tiburtziok ezin zuen etorri. Ia utzi gaitu gorputzez, nahiz eta ez espiritualki; zeren bere oroitzapeak gugan baitaude betirako eta bere espiritua bizirik baitago.

**IRAKURLEAK MINTZO**

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

## GOITI ETA BEHEITI



## Ibilgailu bat Amargungañan aparkatua...

Zoritzarrez, klase aunitzetako zaborra ikusten dugu behar ez den tokian botata... Mendian, bide bazterrean, errekan, herrietako plazetan... Halakorik, ordea, orain arte ez genuen ikusia. Irakurle batek TTIPI-TTAPARA bidalitako argazkia da, Amargungañan (Lesaka) ateratakoa.



Hala ere, pena handiz segitzen dugu aurrera, jakinik berarekin garai oso onak pasatu ditugula, garai seguruak, Elizak herri guztiez arduratzeko apaiz asko zituen garaiak.

Baina pozten gara Jaungoikoak eman diolako merezi zuen atsedena eta seguru gaude zeruko atea ireki dizkiola parez pare eta harrera bikaina egin izanen diola bere mahastiko langilerik finenari bezala, besarkada handi bat eman ez! Halaxe desiratzen dizugu, Don Tiburtzio! Goian izan zaitez! Besarkada handi bat denon partetik! Maite zaitugu!

## HEMEROTEKA



«Neure buruarekin egindako tratu batengatik [buelatu naiz oholtzara]. 2013an aldendu nintzen, gainezka nengoelako. Konturatu nintzen plazan nengoenean sufritu egiten nuela, baina ez nengoenean ere bai. Neure buruari erran nion 40 urte betetzean berriz emanen nuela izena txapelketan (...) Lehenik Nafarroa irabazi behar dugu. Antolatzaile aunitzek ez dakite zer bertsolari nafar dauden (...) Oraindik aunitz gabiltza bertze herrialdeetara begira, batez ere Gipuzkoara. Bada bertsolari sorta bat Nafarroan edozein plazatan kalitatez egin dezakeena, baina hagitz plaza gutti dituen».

### ERIKA LAGOMA

LESAKAKO BERTSOLARIA I  
BERRIA. 2021.08.19



«Pixka bat haserre nago eskola formalarekin. Irakasle egon nintzen zenbait institututan, eta berdin segitzen dute. DBHko plastikan, marrazketa teknikoa bakarrik egiten da; sormena erabat mozten dute. (...) Hagitz uzkur daude [ikasleak], borragomari adi. Erraten diet: moztu lasai, urratu papera, egin proba, zikindu... 'Hori egin' erraten badizute, gehieze ere hori egiten ikasiko duzu, eta nazkatzeko aukerak ere gehiago izanen dira (...) Aunitzez ere libreago naiz [arautu gabeko heziketan], eta harremana ezberdina da haurrekin, sanoagoa. Parekoago zaude, haiengandik ikasten duzu».

### UNAI RUIZ

BERAKO MARGOLARIA I  
BERRIA. 2021.08.21

## BOTA BERTSOA

**KATTIN MADARIAGA APAOLAZA**  
ARANTZAKO BERTSOLARIA  
BAZTAN-BIDASOKO BERTSOPAPER  
LEHIAKETAN B MAILAN 1. SARIA

### Madariagatarrak bertsotan

Doinua: Martxa baten lehen notak



*Madariagatarren lehena  
bertsolari izan bada  
gu birbilobak, ondorengoak  
horrelakoxeak gara.  
Gero Xalbador eta Batista  
hasi ziren hona, hara  
sentituz doinu, neurri, errima  
eta bertsoan taupada.  
Orain ohituraren iraupena  
Ekai eta biona da.  
Hirugarren aldia da baina  
gogorrigo dator, hara!  
Gustukoa dena familian  
dugu irri (e)ta algara.  
Bertsolaritzak izen bat badu  
hori da Madariaga.*

*Gure birrautaubxi ausartu zen  
gainditzera zeukan lotsa:  
eszenatoki gainean hor zen,  
gidari zuen bihotza.  
gustukoa zuena egiten  
nahiz eta izan arrotza.  
eta ausardi horregatik guk  
dugu doinuaren hotsa.  
Bere bilobei zabaldu zien  
bertsolaritzaren boltsa.  
Eta gu ari gara ohitura  
ez dadin izan hain motza.  
Beregatik dugu guk bertsoa  
hori da nire aitortza.  
Beraz bertsotan ari gaitezen  
urratu arte ahotsa.*

TTIPI-TTAPA  
SARE SOZIALETAN  
Jarrai gaitzazu!

facebook  
www.facebook.com/ttppi.ttapa

## «Minbiziaren aurka immunoterapia asko hobetzen ari da»

JUAN JOSE LASARTE SAGASTIBELTZA IMMUNOLOGIAN KATEDRATIKOA

Biologia zientzietan lizentziaduna, zientzietan doktorea eta immunologian katedratikoa da Lasarte. 30 urte daramatza ikerkuntzan eta azken urtebetean Covid-19aren aurkako txertoa garatzen aritu bada ere, minbiziari aurre egiteko immunoterapia berri bat hobetzen ari da bere lantaldearekin

### G. PIKABEA

Minbiziari aurre egiteko immunoterapia teknika berri-tzailea identifikatu du berriki ikerlari talde batek, «orain arteko terapiak ez bezala, gorputzaren defentsak indartzea oinarri duen teknika». Eta ikerketa lerro horretan buru-belarri aritu den ikerlarietako bat da Juan Jose Lasarte Sagastibeltza (Leitza, 1965). Horixe da 30 urtez ikerketan egin duen ibilbidean lortutako bere azken emaitzetako bat, dioenez, «minbiziaren gainditu ondotik pazienteak berriz ez eritzea» helburu duena, eta «dena ongi ateraz gero, behin ematearekin aski» dena. Biologia zientzietan lizentziatua da leitzaarra eta zientzietan doktorea eta immunologian katedratikoa. Gaur egun, Nafarroako Unibertsitatean Immunologia irakaslea da eta CIMA ikerketa zentroko Immunologia eta Immunoterapia programako zuzendaria. Hainbat patenteren sorkuntzan parte hartu du, baita liburu eta artikulua askotan kolaboratu ere.

### Zein dira Immunologia eta Immunoterapia programan esku artean dituzuen proiektuak?

Gure helburu nagusia minbiziaren aurkako terapiak garatzea da. Orain dela 30 urte, laborategian hasi ginenean, bereziki gaixotasun infekziosoen begira aritzen ginen. Gaur hartan, HIESaren birusa

zen ahoz aho zebilena eta horren aurkako txertoak garatzen saiatu ginen. Horrez gain, C hepatitisaren aurka ere lan asko egin genuen. Gero, C hepatitisaren eta minbiziaren arteko lotura ikusita, minbiziaren aurkako terapiak eta txertoak lantzeari ekin genion, eta tartean, zerbix edo ume-toki-lepoko minbiziari aurre

egiteko txertoa garatu genuen. Orain, berriz, immunoterapia erabiliz minbiziaren kontra buru-belarri ari gara.

### Minbiziari aurre egiteko immunoterapia estrategia berri batekin ari omen zarete...

Bai, hori da. Orain arte, minbiziari aurre egiteko terapien jomuga tumore zelula zen. Kimioterapiaren helburua,



«Batez ere laborategian» aritzen da Lasarte. Argazkian Noelia Casares lankidearekin.

adibidez, tumore zelula hiltzea da. Immunoterapia estrategia honek, ordea, zuzenean tumorearen kontra egin beharrean, gorputzaren defentsak indartzen ditu. Gorputzean gaixotasunen eta infekzioen kontrako defentsak batzuk ditugu eta teknika honek linfozitoak deitzen diren defentsak aprobetxatzen ditu. Linfozitoek oro har ezagutzen dute gaixo dauden zelulak zein diren, baina beti ez. Teknika berri-tzaile honekin linfozitoak eraldatzen ditugu gaixorik dauden zelulak ezagutzen ikas dezaten. Horretarako, gaixorekin linfozitoak atera eta laborategian genetikoki eraldatzen dira, ondotik pazienteari berriz sartzeko, tumore zelula bilatu eta deusezta dezaten. Adopziozko zelula-terapia deitzen zaio.

### Beste terapiekin konparatuz zein abantaila izan ditzake?

Terapia honekin gaixoak ez luke terapia jarraitu baten beharrik izanen. Kimioterapiako saioak, esaterako, astero edo hilabetero egiten dira eta terapia asko ia tratamendu kronikoak dira. Kasu honetan, ordea, bizirik dagoen tumorearen aurkako zelula sartzen denean, zelula bizi hori gorputzean mantentzen da eta momentu oro babesten du. Dena ongi ateraz gero, behin emanaz gero, pazienteak berriz ez gaixotzeko babestua geldituko litzateke. Hori da terapia honek izan dezakeen abantaila handienetarikoa bat. Horrez gain, terapia hauek oso espezifikoak eta selektiboak dira eta askoz ere toxikotasun txikiagoa dute. Kimioterapiak gaixorik dauden zelulak hiltzeaz gain, osasuntsuak ere hil ditzake, eta beraz, toxikotasun altuagoa du.

### Immunoterapia estrategia honekin minbiziaren baten ondoren berriz ez eritzea posible dela diozu?

Hori da helburua. Gaur egungo immunoterapiak ez dira perfektuak, baina helburua pazienteak berriz ez eritzea da, terapia honek defentsak in-



dartzen dituelako eta defentsa horiek beti gorputza zaintzen egonen liratekeelako. Txikitan txertoa jartzea bezala da, behin jarri eta urte askotarako babesten zaitu. Eta immunoterapiarekin horilortu nahi dugu.

#### **Terapia martxan da?**

Nafarroako Unibertsitatea klinikan entsegu kliniko batzuk martxan jarri dituzte eta beste zentroetan ere gisa hone-tako terapiak egiten ari dira. Emaitzak oso itxaropentsuak dira. Leuzemia linfatiko akutuen aurka, esaterako, oso eraginkorra da. Beste batzuetan ez hainbeste, baina hobetu nahi dugu. Badira bestelako immunoterapiak ere, eta asko onartuak direnak, eta guztien helburua gorputzaren defentsarako gaitasuna indartzea da. Pazienteak tratatzeko modua aldatu da. Lehen kimioterapia zen estrategia nagusia eta orain immunoterapia nabarmen hobetzen ari da.

#### **Beste terapiak desagertuko lirateke edo denen beharra ikusten duzu?**

Denen beharra dago, konbinatu behar dira. Kimioterapia ez da nahikoa, eta immunoterapia asko hobetu da baina denak behar dira: erradioterapia, kimioterapia, immunoterapia... Kirurgia ere ez da ahaztu behar.

#### **Ekonomikoki errentagarria da?**

Oso garestia da. Adopziozko zelula-terapia hauek laborategiko lan handia eskatzen dute eta horrek prezioa asko igotzen du, 200.000-250.000 euro paziente bakoitzeko. Hala ere, produkzio prozesuak hobetu ahala, immunoterapiaren prezioa asko jaisten ari da. Merkeagoa izatea izanen litzateke beste erronka, ahalik eta herritar gehienengana ailegatzeko.

#### **Koronabirusaren kontrako txertoa garatzen ere aritu zara...**

Orain dela 30 urte, infekzio biralen kontrako txertoak garatzen aritu ginen, baina minbiziaren aurkako borrokan lanean hasi ginenean alde



Txikitatik izan du naturarekin harremana Lasartek, eta «orduan hasi zen biologiarekiko eta zientziarekiko nire interesa».

baterra utzi genuen. Pandemia indarrean sartu zenean berriz lanean hasi ginen, eta birusaren sekuentzia identifikatua zenez, 20-30 urte lehenagotik genuen informazio hori aprobetxatuz Covid-19 gaitzari aurre egiteko txertoaren prototipoa sortu dugu. Bagenekien proteina zatiekin txertoak egiten, eta Covid birusaren zatitxoetan oinarritutako txertoa sortu dugu. Pfizer edo Moderna RNAn oinarrituak

dira, eta gure txertoa proteina zatitxoak dira. Helburu bera dute baina sistema diferentea. Saguetan funtzionatzen duela ikusi dugu, zatitxo horiek konbinatuz birusa neutralizatzen duten antigorputzak eragiten dituela, eta orain lan horiek argitaratzeko prozesuan gaude. Hurrengo pausoa gizakietan, boluntario osasuntsuekin, entseguak egitea izanen litzateke, baina horretarako dirua behar da eta ez

da erraza lortzea. Hasieran jendeak interes handia zuen entsegu klinikoak mugiarazteko, baina orain ez, badirelako beste txertoak. 2020ko martxoan, konfinatu gintuztenean, lanean gogor hasi ginen, hori egiteko beharra sentitu genuen. Denbora laburrean esperimantu asko egin genituen eta oso kontent gaude egindakoarekin, baina interesa asko apaldu da eta asko atzeratzen ari da. →

**Zer esanen zenuke gaur egun jartzen ari diren txertoek?**

Onak direla eta ongi funtzionatzen dutela. Baina birusa aldatzen, mutatzan, ari da. Birusa bat-batean geldiarazteko munduko biztanleria osoa txertatzea izanen litzateke idealena, baina hori ezinezkoa da, herrialde askok ez dutelako txertatzeko aukerarik, eta herrialde horietan birusa garatzen ari da. Infekzioa bat-batean geldiaraztea ez denez lortuko, aldaera berrien aurka babesteko txertoak hobetu eta aldatzeko etengabeko esfortzua egin beharko da. Ez dakit gripearen birusa bezala izanen den, hau da, urtero txertoa izatea, baina etengabeko zaintza eta kontrola beharko dira. Gazteengan ez du hainbeste eragiten, eta hori abantaila handia da. Bereziki jende zurgarria zaindu beharko da.


**Txertoek aldaera berrientzat baliotu dutela iruditzen zaizu?**

Bai, baina eraginkortasuna ez da hain handia. Adibidez, hasierako aldaeraren aurka eraginkortasuna % 90ekoa izan daiteke, eta indiar edo delta aldaeren kontra % 50-60koa edo txikiagoa. Oso zaila da aurretik esatea, baina aldaera berri bat ager daiteke eta eraginkortasuna murriztu. Enpresek bertsio berriak sortuko dituzte aldaera berrien kontra. Horregatik diot etengabeko zaintza beharko dela.

**Birus honen inguruan zer nabarmentzuko zenuke?**

Birus honek gauza kurioso bat egiten du. Infektatzen denean, hantura sortzen du, baina ez du birusaren aurka babesten, hantura hori bera da hiltzen zaituena. Hanturak normalean babestu egiten du, baina birus honek hantura hori esterilizatzailea ez izatea eragin du, eta ondorioz, birusa ez da desegiten. Hala, biriketan hantura sortzen du eta horrek eragiten du likidoz betetzea eta arnas-teko zailtasunak izatea.

**Birus hau bukatzetik urrutu gaude?** Hasieran infekzioa azkar kontrolatuko genuela pentsatzen



Leitzarra behean eskuinean, CIMA ikerketa zentzoko Immunologia eta Immunoterapia programako ikerlariekin. Goitik behera eta ezkerretik eskuinera: Aritz Lasarte, Pablo Sarobe, Sandra Hervas, Flor Navarro, Celia Martin, Marta Gorraiz eta Teresa Lozano.

nuen, baina gure bizimoduarekin zaila da. Ez gaude konfinatzeko prestatuak, jarduera sozialak behar ditugu eta birusak transmititzen segitzen du. Kutsakorragoak diren aldaera berriak agertzen ari dira eta neurriak, hau da, maskara erabiltzea, segurtasun tartea mantentzea... beharrezkoak dira, zabalkundea geldiarazten laguntzen dute. SARS-CoV-1a Txinan bertan kontrolatzea eta desagertzea lortu zuten, baina Covid-19a eragiten duen SARS-CoV-2a mundu osoan zabaldu da eta kontrolatzea zaila da. Txertoekin partzialki kontrolatuko da baina birusak zirkulatzen segituko du. Talde immunitatea lortuko bagenu, herritarren gehiengoak antigorputzak izanda... Gerta daiteke birusa naturalki desagertzea, munduko portzentaje handi bat infektatu eta babes-tuak gelditzea; txertoak egiten ez duena infekzio naturalak egin dezake, baina zaila da zer gertatuko den aurreikustea.

**«BETI BADIRA PANDEMIA BIHUR DAITEZKEEN ARRISKUAK»**

**Neurri egokiak hartu dira?**

Pasatutakoaz hitz egitea errazagoa da, baina konfinamendua beharrezkoa izan zela uste dut. Maskarekin nahiko mantso ibili ginen, eta neurriak lehenagotik hartu izatera agian bizi-tzak salbatu izanen genituen, eta hori da inportanteena. Baina infekzioa beste lekuetatik ailegatu izanen zen, jendearen mugikortasuna izugarri handia delako. Alde horretatik, agerraldi berriak etorriko dira, baina hobeki kontrolatuko dira, baina hobeki kontrolatuko dira, klinikoek asko ikasi dutelako. Kontua da, herritarrak ezin direnez mugarik gabe konfinatu, segurtasun neurriak mantentzea beharrezkoa dela erakutsi behar dugula. Oso zaila da neurriak hartzearen garrantziaz jendea kontzientziaztea, alde guztietatik hau serioa dela esan arren, zaila da konbentzitzea, baina arriskuan gaude, hau ez da tontakeria bat, eta erne egon behar dugu. **Gisa honetako pandemia gehiago izanen ote dira?**

**«ZIENTZIAN INBERTITZEA BIZI KALITATEAN INBERTITZEA DA»**

Urte asko zeramatzaten hau gerta zitekeela esanez. Denbora jakin batean behin errepikatzen dira eta hortaz, gerta daiteke pandemia eta birus gehiago agertzea, igual hamarnaka urteren buruan, edo beharbada hiru urteren buruan. Ezin da aurreikusi. Azken urteotan arriskua ikusi dugu: hegazi gripea, txerri izurria... Beti badira pandemia bihur daitezkeen arriskuak eta horregatik oso garrantzitsua da politikariak eta gizartea etengabeko zaintzaren beharraz kontzientziaztea.

**Zientzian gehiago inbertitu behar dela uste duzu?**

Bai, dudarik gabe, oso gutxi inbertitzen da. Horrekin batera, estatu espainiarrean donazioak egiteko ia ez dago ohiturarik. AEBn, aukera duen jendeak zientziara asko bideratzen du, eta ekarpen pribatua publikoa bezain garrantzitsua da. Estatu espainiarrean, ordea, laguntza publikoaren eta zenbait enpresa pribaturen finantzazioaren menpe gaude eta portzentaje hori oso baxua da. Zientzian inbertitzeak merezi du, zientzian inbertitzea osasunean inbertitzea delako, bizi kalitatean inbertitzea. Eta mota guztietako zientziaz ari naiz: osasuna, teknologia...

**Ttipi Txartela** rekin  
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUSU-TRUK

-%80ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

[www.ttipitxartela.info](http://www.ttipitxartela.info)

**788** zenbakiko  
irabazleak >

**ttipi txartela**

Josune Sorondo Odriozola

72673152-A

epemuga 2023/04

ZK: 372

ttipi-ttapa

**ZOZKETAK**

**Donostiako aquariuma - Bi sarrera**

M<sup>a</sup> Jesus Irazoki Elgorriaga | BERA

**Buatxabal - Kamiseta bat**

Idoia Argain Plaza | IRURITA

**La Rhune - Sarrera bat**

Pili Ezkurra Ezkurra | LEITZA

**Zugarramurdiko lezeak - Sarrera bat**

Asun Iribarren Madariaga | IGANTZI

**BKZ abentura - Sarrera bat**

Xabier Mariezkurrena Agesta | URROZ

**Okille - Eguzkilore bat**

Nerea Zazpe Braña | DONEZTEBE

**Wow park- Bi sarrera bikoitz**

Amaia Leiza Arozamena | LESAKA

Rakel Irurueta Mitxelena | ALMANDOZ

**Tarttalo - Bi liburu**

Jaione Subizar Salaberri | ZUGARRAMURDI

**Tarttalo - Bi liburu**

M<sup>a</sup> Jose Etxeberria Elizegi | LEKAROZ

**DONOSTIAKO AQUARIUMA**

[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)



Bi sarrera

**ONDDO TA PUNTO**

[www.onddotapunto.com](http://www.onddotapunto.com)



Kamiseta bat

**LA RHUNE**

[www.rhune.com/eu](http://www.rhune.com/eu)



Sarrera bat

**KUKUKA HAUR ARROPA DENDA**

Zazpigerutze, 1 | Doneztebe | Tel.: 948 45 02 52



Haurrendako lote bat

**IRRISARRI LAND**

[www.irrisarriand.com](http://www.irrisarriand.com)



Sarrera bat

**ARRATE ESTETIKA ZENTROA**

Eliza karrika, 18 - Doneztebe



Azala zaintzeko produktuak



**Wow park**  
Votre Parc Aventure

**WOW PARK**

[www.wowpark.fr](http://www.wowpark.fr)



Bi sarrera bikoitz

**LI  
BU  
RU  
AK**

- Katta. Mendian  
- Katta. Musikazaleak



- Katta. Adarbakarra  
- Katta. Ametsetan

**elkar**

[www.elkar.eus](http://www.elkar.eus)

**LA  
GUN  
TZAI  
LEAK**



[www.ibaizabal.com](http://www.ibaizabal.com)



[www.onddotapunto.com](http://www.onddotapunto.com)



Langile bat hil eta hiru zauritu ziren 2015eko azaroaren 25ean Dantxarinean gertatu zen istripuan. FRANCISCO VARELA

## Eraikitakoa eraisten denean

2010az geroztik 238 istripu izan dira teilatuetako eraikuntza lanetan. Hamaika urtez hamabi lagun hil dira eta bertze aunitzi bizitza aldatu zaie. Istripu horietako bat barrenetik bizi izan zuen orain sei urte Ugutz Zelaieta Fernandezek

### N. BAZTERRIKA | LESAKA

*Ibil zaitez arriskurik gabe* goiburuean, teilatuetan gertatzen diren lan istripuak saihesteko kanpaina egin du udan Nafarroako Gobernuak. Kanpaina horren bidez, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko arduradunek teilatuetatik eta nabe zein etxebizitzetako estalkietatik eroritakoen lan istripuak saihestea dute helburu. Datuak ageriko eginez eta horiek ardatz hartuz bideratu dute kanpaina. Jakitera eman dutenez, hondarreko hamaika urteetan Nafarroan altuera handietan lanean aritu diren langileen artean 238 istripu izan dira. Gehiago ere bada. 2010az geroztik 12 lagun hil dira.

Azken hamarkadan gertatu diren 238 istripu horietako

bat barrenetik bizi izan zuen Ugutz Zelaieta Fernandezek (Oiz, 1990). Eraikuntza alorreko lanetan urte batzuk bazeramatzen arren, 2012an hasi zen etxebizitzak eta bentak hutsetik eraikitzen eta teilatuetako lanak egiten. Hiru urteren buruan ailegatu zitzaion uzteko momentua, baina ez zen bere aukera izan, istripu batek eragindakoa baizik.

**Bizitza aldatu zion krakada**  
2015eko azaroaren 25ean, Dantxarinean benta handi

**«KRAKADA ADITU  
ETA ARDURADUNAK  
ERORTZEN IKUSI  
NITUEN»**

bat eraikitzen ari zirela, gertatu zen ezbeharra: «egun euritsu bat zen. Teilatu guztia kofratua genuen eta goizean hormigoia botatzen aritu ginen...».

Eguerdian, bazkaltzera joateko momentuan, makurtu zen dena: «arduraduna eta biok kofratua ikustera joan ginen eta bi eskora, hau da, kofratua eusten duten burdin zati edo *puntalak*, oker zeudela ikusi genuen».

Hori horrela ezin zenez utzi, eta zeregin ez zekitenez, obra-ko arduradunari jakinaraztea

**«LEHEN  
NINTZENAREN  
ERDIA ERE EZ NAIZ  
ORAIN»**

erabaki zuten: «Bertze eskora edo *puntal* batzuk sartu beharko genituela erran zigun eta pare baten bila joan nintzen». Ez zuten deus egiterik izan, ordurako berandu zen: «Krackada handi bat aditu orduko bi arduradunak hankaz goiti joan zirela ikusi nuen».

Gertaeraren ordua oroitzapenean iltzatua du: «bazkaltzera joatekoak ginenez mugikorra sakelan nuen eta orduntxe emaztea deika nuela ikusi nuen, 13:04 ziren. Hauxe akitu, bazkaldu eta deituko diot pentsatu nuen». Hurrengo oroitzapena «lurrean etzanda» du oiztar gazteak: «Oihu egiten nuela uste dut, baina ez dakit zerbait adituko zen ere. Lankideak oihuka sumatu nituen, arduraduna ez zutela harrapatzen erraten zuten, nire anaia negarrez sumatzen nuen, Zugarramurdi eta Urdazubiko medikua etorri zela oroitzen dut, baita anbulantziakoa Lesakako Txaro zela ere... Egia erran, denaz oroitzen naiz, konortea ez nuen denbora luzez galdu eta Iruñean lokartu ninduten arte gehiena oroitzen dut».

Zainketa Intentsiboen Unitatera pasatu zuten gero, eta, pixkanaka hoberantz egin zuen: «ospitalean hilabete eta erdiz eta etxean bertze bi hilabetez ohatze artikulatu batean egon nintzen, hortik mugitu gabe...».

### Ondorioak

Istripuaren ondorioz, «pelbisa txikituta, eskumuturrean eta belaunean hezur batzuk hautsita...» gelditu zitzaizkion baina «ondorio handiena» aldakak utzi diola nabarmendu du: «pelbisa bete-bete harrapatu eta txikitu zidanez aldaka kendu eta burdin batzuk paratu zizkidaten. Ordutik, ez dut lehen nuen mugimendu hori, inondik inora ere».

Orain «lehen nintzenaren erdia ere ez» dela sentitzen du Zelaietak: «honekin bizitzen



Ugutx Zelaieta oiztarra izan zen Dantxarinereko istripuan zauritu zen langileetako bat. TTIPI-TTAPA

ikasi behar izan dut. Egunerokoan egiten nuena ez zait gehiegi aldatu, bai, ordea, hori egiteko modua».

Fisikoki, adibidez, «lehen egunero aritzen nintzen pilotan ez bazen palan, futbole, mendian, bizikletan... Orain, neure burua behar baino gehiago bortxatzen badut, hozten naizenean txikituta gelditzen naiz, maingu, bizkarreko mina sumatzen dut eta ezin lorik egin egoten naiz... Ordu erdiz edo pilotan aritzen banaiz, zapatilak lotzeko ere gai ez naizela gelditzen naiz eta orekan ere aunitz sumatzen dut». Eta horrek, modu berean, «lehen nuen konfiantza hori ezizatea» eragin dio: «lehen itsu-itsuan eginen nukeena egiteko orain bi aldiz pentsatzen dut, semeengatik bereziki».

Hala ere, «izan zitekeena ikusita, arrunt ongi» dagoela dio: «metro bat harago barenago akaso ez nintzateke bizirik egonen, eskoren edo

*puntalen* bila joan nintzelako libratu nintzela erran zidaten. Teilatua osorik erori zen, eta ni eskorak edo *puntalak* zeuden toki hartan nengoenez, zulo batean gelditu nintzen».

Arrasto haundia utzi du gertaerak Zelaietarengan, baita bere etxekoengan ere: «seme zaharrenak, Hegoik, bertatik bizi izan zuen eta oraindik ere hor du orduko oroitzapen hori. Berriz ere lanean hasiko nintzela erran genionean ez zuen berriz joatea nahi, lana horrekin lotzen zuelako edo...».

**Hildako bat eta hiru zauritu**  
Zelaieta ez zen istripu horretan zauritu zen bakarria izan: «arduraduna bertan hil zen

**«IZAN ZITEKEENA  
KONTUAN HARTUZ,  
ARRUNT ONGI  
NAGO»**

eta bertze bi zauritu ziren. Hiru langile izan ginen zaurituak». Gertaerak, gainera, guztiei aldatu zien bizitza: «Hirurok lana utzi behar izan genuen. Zaurituetakoa batek 60 urte zituen orduan eta aurretiko erretiroa hartu zuen. Bertzea eta ni, berriz, gaur egun lanerako ezintasunen bat dutenendako egokituta dauden enpresetan ari gara lanean».

Bere kasuan, mina fisikoa da, baina «lankideari psikologikoki ere ondorio handia» utzi diola gaineratu du: «orain obra bat ikuste hutsak gain hartzen dio. Azken batean dena ikusi zuen eta latza izan zen... Nik ez nuen deus ikusi, eskerrak».

**«ISTRIPUAK  
ARRASTOA UTZI DU  
NIREGAN ETA  
FAMILIARENGAN»**

### Neurrien beharra

Gisako istripuen berri izatean eta datuak aditzean «lotsa eta mina» sentitzen ditu oiztarrak: «istripuak gertatzen diren momentuan ohartzten gara segurtasunak duen garrantziaz. Zauritu horiek hildakoak izan zitezkeen».

Istripuen gibelean «faktore aunitz» daudela nabarmendu du: «batzuetan presaka, presiopean, lanean aritzearen edo enpresak dirua aurreztearen ondorio izan daiteke, bertze batzuetan, berriz, langileak berak bere buruarengan konfiantza izan eta neurriak ez hartzeak eragindakoa...».

Euren kasuan, erraterako, «jo eta ke, egurra» aritzen zirela nabarmendu du. Eguraldiak edo egoerak ez zuen euren egunerokoa baldintzatzen: «euria, elurra... zela ere teilatuan aritzen ginen... Istripuaren egunean ere euria leher ari zuen. Batzuek 'euriarekin hormigoia botatzea bururatzea ere...' pen- →

## «Zoritxarrez lan arriskuen prebentziorako neurriak ez dira beti betetzen»

VIRGINIA GARCIA ETA CRISTINA PASCAL

LAN ARRISKUEN PREBENTZIO SAILEKO BURUA ETA TEKNIKARIA

«Estalkietako lanak oso arriskutsuak dira eta ez dira planifikaziorik gabe egin behar». Argi diote hori Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuan Lan Arriskuen Prebentzio Saileko buru den Virginia Garciak eta alor bereko teknikari den Cristina Pascalek. Mezu hori bera helarazi nahi izan dute *Ibil zaitez arriskurik gabe* kanpainaren bidez. Teilatuko mantentze edo eraikitze lanetan ari direnei lan horiek berarekin dakarten arriskuaz ohartaraztearekin batera, enpresak eta langileak kontzientziatu nahi dituzte, horiek saihesteko eta «horrelako ezbeharretan izan diren hildako eta zaurituen kopurua murrizteko».

### Zenbat istripu gertatu dira teilatuetako lanetan 2010az geroztik?

2010etik 2020ra bitarte 238 istripu gertatu dira langileen erorikoen ondorioz eta hama-bi lagun hil dira, horietatik bortz teilatutik erorita. 2017 eta 2020 artean eraikuntzaren alorrean hildakoen erdiak baino gehiago langileen erorikoen ondorio izan ziren. Gainera, istripu larrien eta arrotz larrien %30

ere erorikoen ondorio izan ziren, baita arin zauritutakoen %12 ere.

### Azken hamarkadan urtero hil da langileren bat... Zifra altua da...

Zifra altua da eta ez guke horretara ohitu behar. Datuen gibelean goizean etxetik lanera joateko atera diren langileak daude, lan-istripuaren ondorioz hil eta etxera bueltatu ez direnak. Heriotza horiek saihestu zitezkeen...

### Hildakoak ez ezik, zaurituak ere aunitz dira...

Bai eta kasu aunitzetan zaurituek bizitza osorako ezintasunak dituzte. Ondorioen larritasuna faktore aunitzek eragiten dute, langilearen adinak edo erorketa gertatzen den altuerak adibidez. Garrantzitsua da saihestea.

### Zer motatako istripuak izan dira gertatutakoak?

Istripu larri gehienak azalera hauskorrek hautsita gertatu dira. Batzuetan langileek ez dakite hauskorrek direnik eta bertze batzuetan estalkiaren erresistentziari buruzko zalantzak izan arren hortik pasatu beharrak eragiten du. Babes-tereko ekipamendurik erabili

gabe, habeak dauden tokietan hankak paratuz, estalkia haustea zailagoa dela pentsatuta gertatzen dira.

### Zergatik gertatzen dira istripu hauek?

Orokorrean epe motzeko eta maiztasun gutxiko lanetan gertatu ohi dira. Planifikazioa ez da behar bezala egiten, eta batzuetan ez dira arriskuak identifikatzen, enpresaren arriskuen ebaluazioan ere ez dira jasotzen... Ondorioz, ez dira lanerako bitarteko eta babes neurri egokiak ematen eta horrek arriskuak izatea eragiten du.

### Zer egin daiteke edo zer egin behar da gisa hone-tako istripuak saihesteko?

Ongi planifikatzeko egin beharreko lan bakoitza aztertu behar da. Horrekin batera, arriskuak identifikatu eta ebaluatu, lanerako ekipamenduak hautatu, horiek eskura dituztela ziurtatu eta egoera onean dau dela eta erabiltzen direla baieztatu behar da. Azken batean, enpresek langileak lanean hasi aitzinetik egin beharreko arriskuen ebaluazioak horretarako balio du.

### Noren ardura izaten dira istripu hauek?

Lan arriskuen prebentziorako legeak zehaztutakoaren arabera, langileen eskubidea da lan esparruan segurtasuna eta osasuna bermatzea eta, beraz, enpresak eskubide hori bete behar du.

### Zein neurri hartu behar izaten dituzte?

Lan arriskuen prebentzioaren legean bildutakoak. Hasteko, arriskua saihestu behar da eta hori ez bada posible, identifikatu, ebaluatu eta neurriak hartu behar dira. Labur errateko, teilatuetako lanetan langileei beharrezko lan-tresna egokiak (aldamioak, plataformak, arnesak...) eman behar zaizkie, talde-babeserako neurriak (pasabideak, barandak, babes-sareak) hartu behar dira...

### Neurri horiek hartzen dira?

Zoritxarrez, ez beti. 2017-2020 artean egindako kanpainan obretara 300 bisita egin ziren eta hutsune handiak ikusi ziren. Horrez gain, istripuen ikerketetan eta kontrol-bisita horietan ikusi dugu hutsegiteak aunitzetan babes neurrien gabeziagatik baino gehiago egokitasun edo kalitate faltagatik gertatzen direla.

### Zein mezu zabalduko zenukete?

Betetik, langileek babes neurri eraginkorrek izateko esku-bidea dutela nabarmendu behar da eta, beraz, ezin dugu onartu horrelako istripuak gertatzea. Bertetik, estalkietako lanak arriskutsuak direla aipatuko guke eta, beraz, babes eta prebentzio neurriak hartu behar direla. Eta, azkenik, planifikazioaren garrantzia azpimarratu nahi dugu, hori baita istripuak ez gertatzeko gakoa.

tsatuko dute baina horixe zen eman ziguten lana eta hori egin genuen...».

Gisako gertaerak «kasu batzuetan behintzat» saihesten ahal direlakoan dago: «gure istripua gertatu eta hilabete batzuen buruan obrara joan nintzen eta nagusiak berak gauzak bertze modu batera egin izan balira istripua ez litzatekeela gertatuko erran zidan... Guri gertatu zitzaiguna lotsagarria da».

Hortaz, segurtasuna lehenetsi eta «neurriak hartzea» ezinbertzekoa dela uste du: «enpresak langileei beharrezkoak diren baliabideak –jantziak, arnesak...– eman behar-

**«HUTS TXIKI BATEK BIZITZA GOITIK BEHEITI ALDA DEZAKE»**

ko lizkieke eta hori zaindu beharko lukete; eta, horrekin batera, langileek ikastaroak jaso beharko lituzkete».

Bere kasuan, gertakaria bera izan zen begiak ireki zizkiona

**«GERTATU ARTE HALAKOAK EZ DIRELA PASATZEN USTE DUGU»**

eta «huts txikiena ere» aski dela ohartzeko bide eman ziona: «gertatu arte halakoak ez direla pasatzen pentsatu ohi dugu, baina ez da horrela. Eraikuntzan, mendian eta gisa horietako lanetan ari direnei mila begi erabiltzeko eta konfiantzarik ez izateko erranen nieke. Esperientzia izanagatik edota sasoi onean egonagatik, pasa daitekeela buruan izateko eta kontuz ibiltzeko».

# Zaindu maite duzun hori...

# Zein da zuzena?

## Kalko ustelak

\* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

*\*Etortzea bera!, \*Egitea Nereak!, \*Joatea Lorea!...*

Aunitz zabaldu den akatsa da. Esaldiaren subjektua hirugarren pertsonakoa denean, ezin da aditz jokatu gaberik erabili. Hortaz, honela adieraz daiteke agindua:

- \*Etortzea bera! > Etor dadila bera!, Datorrela bera!, Etor bedi bera!...
- \*Egitea Nereak! > Egin dezala Nereak!, Egin beza Nereak!...
- \*Joatea Lorea! > Joan dadila Lorea!, Doala Lorea!...
- \*Erratea/esatea egia denek! > Erran dezatela egia denek!

Antza denez, erabilera oker hau analogiaz sortu da:



**Bera** etortzea **nahi dut** erraten denez, zenbait hiztunek **bera** etortzea aginduarekin ere parekatzen dute gaztelaniaren eraginez. Honelako zerbait: *Quiero que venga = Bera etortzea nahi dut* da, eta aginterazko perpausean ere baliokidetza bera egiten dute, baina ez da zuzena: *Que venga (él/ella)! = \*(Bera) joatea!*

## \*Benetazko edo benetako?



Euskaltzaindiaren arabera, *Benetako* da tradizioan ageri den forma jatorra. Eramoldearen aldetik ere hala dagokio, *benetan* adberbioaren izenlaguna delako. *\*Benetaz* forma existitzen ez denez, ezin da sortu haren gainean eraturiko izenlaguna (*\*benetazko*).

## Bitxikeriak Osatu erran zaharra!

Buruila



eta



hastapena

## Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61

## 182.584 euroko inbertsio berriak egin ditu udalak

Bizi-lerroak paratu dituzte udal eraikin publikoetan eta kirol instalazioetako argiteria LEDera aldatu dute

### TTIPI-TTAPA

Udal langileen arriskuen azterketa egin du udalak eta prebentzio plan bat zehaztu du lan istripuak murrizteko helburuarekin. Horregatik, 123.467,19 euroko inbertsioa egin dute ikastetxe, musika eskola, kultur etxe, liburutegi Beralandeta, frontoi, Herriko Etxe eta bertze hainbat eraikinetan bizi-lerroak paratzeko. Teilatuan eta leihoen kanpoaldean lanean ari diren langileak puntu hauetara lotuko dira, segurtasun osoz jarduteko.

Herriko hiru ur deposituetan ere jarri dituzte bizitza-lerroak; Kaxernan, Zalainen eta Okalarren.

Honez gain, argindar kontsumoa murrizteko eta energiaren erabilpen jasangarriagoa egiteko helburuarekin, argiteria berri eta LEDera aldatu dute herriko kirol instalazioetan; Eztegara frontoian, Rikardo Baroja eskolako pilotalekuan, Toki Ona kiroldegian eta Matzada futbol zelaietan. 59.116,92 euroko inbertsioa egin dute hau lortzeko.

## JAC taldearen kontzertua eta haurrentzako ikuskizuna asteburuan

### TTIPI-TTAPA

Iraileko lehen asteburuko kultur egitaraua hilaren 3an, ortziralean 19:00etan hasiko da Herriko Etxeko Plazan, JAC taldeak emanen duen blues kontzertuarekin. Hilaren 5ean, igandean, 18:00etan Kantu Kolore taldeak Ametsen urtebetetzea haurrentzako ikus-

kizuna egingen du Altzateko plazan.

Aitzinera begira, irailaren 19an Keu Agirretxea & Pablo Novoaren kontzertua izanen da eta hilaren 25ean organo kontzertua Ignacio Arakistain organo-jolearekin eta Xabier Barriola tenorearekin, Valentin Larrearen omenez.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Akitania Berriko Salles herriarekin senide

Akitania Berriko Gironda probintzian dagoen Salles herriarekin senidetu da Bera. Abuztuaren 15ean egin zuten senidetza ekitaldia Herriko Etxeko plazan. Salles eta Beraren arteko «zubiak eraikitzea» nahi lukete eta «bi herrien arteko senidetze batzordea eratzea» izanen da helburua.



UTZITAKOIA

## Olatz Salvador kantari Altzateko Plazan

Aho uhal bere azken lana aurkeztu zuen Olatz Salvador abeslari donostiarrak abuztuaren 21ean. Ander Zulaika bateriarekin, Jagoba Salvador baxu jolearekin eta Mattin Saldias gitarristarekin batera aritu zen. Altzateko plaza bete zuten eta giro ederra izan zuten bertan.

**Jauzena**  
Denda. 948 631 217  
T. 630 136 863  
Julio Caro Baroja, 6 - BERA  
jaurenabera@gmail.com

**Elektrizitate lanak orokorrean**  
Erreformak, etxe berriak  
Lantegietako mantenu lanak

Etxetresnen salmenta, instalazioa  
eta etxez etxeko konponketa  
Antenak, satellite bidezko instalazioak

Astehenetik  
ortziralera:  
07:15etik  
aitzinerara

**LABE ZAR**

Larunbata  
eta igandea:  
08:00etatik  
aitzinerara

948 631 076 • BERA

**ERRANDONEA, S.L.**  
BILTEGIA: 948 630 102  
SAKELAKOA: 633 480 563

Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

**Alberto RETEGI**  
abokatua

© 948 630 763 · Alzate, 17 · BERA

**ZUBIONDO**  
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA  
SAGARDOTEGI MENUA  
KARTA  
OGITARTEKOAK  
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472  
Alasta karrika • BERA  
zubiondojatetxea.com



# VII. Gau Krosa larunbatean egingen dute

Normalean besta bezperan egiten duen lasterketa irailaren 4rako antolatu du Manttalek

## TTIPI-TTAPA

Manttale mendi lasterketa taldeak antolatutako Berako VII. Gau Krosa irailaren 4an, larunbatean, 22:00etan hasiko da. 7,4 kilometroko ibilbidea eta 300 metroko desnibel positiboa izanen du lasterketak. Gehienez ere 200 lagunek hartu ahal izanen dute parte eta izen-ematea zabalik dago. Ibilbidea seinaleekin eta boluntarioekin ongi markatuta egonen den arren, frontala derrigorrezkoa izanen da parte hartu ahal izateko, antolakuntzak ez baititu bere gain hartuko frontalik ez daukan partaideari gertatzen ahal zaizkion ezbeharrak.

Altzateko merkatu plazan hasi eta bukatuko da gau krosa, tartean Altzate karrika, Mukixu, Julio Caro Baroja karrika, Ugazubia, Matzada, Illekueta, Altzateko plaza, Altzate karrika, Legia, Matzenborda, Ezpondakoborda, Lazarenborda, Plaza Zaharra, Gernikako arbola karrika, Xubixabal, Bidasoa karrika, Espidobaita, (pareko eskailetatik goituta), Kaxerna, Gar-



Frontala derrigorrezkoa izanen da.

mendiko Borda, Haritzalde, Mitxinborda, Egurregi, Garaioetako Borda, Sarron, Lamixene eta Illekueta pasatuta. Ikusleek ezinen dute Merkatu plazako irteera eta helmuga gunera sartu eta parte-hartzaileek musukoa paratu beharko dute lasterketaren aitzinetik eta ondotik.

Gizonezkoen eta emakumezkoen lehen hiru sailkatu absolutuentzako sariez gain, bi kuadrilla onenentzako ere sariak egonen direla erran dute Manttaletik. Kuadrillak lau korrikalarik osatuko dituzte, gutxienez emakume bat egon beharko da, eta talde bakoitzeko lehenengo hirurek puntuatuko dute, baina laurak helmugara iritsi beharko dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Milagros Aldabek ehun urte bete ditu

Abuztuaren 21ean bete zituen 100 urte Milagros Aldabek. Mendeurrena ospatzeko egun berezia antolatu zuten San Jose zaharren egoitzan. Meza, udal ordezkarien opariak, aureskua eta abesbatzaren kantuen ondotik, Aldaberen bizitzari buruzko poema irakurri eta merienda izan zuten.



UTZITAKOIA

## Jose Mari Telletxea 'Largo' omendua

Abuztuaren 22an egin zen Eztegarra pilotalekuan profesionalen arteko pilota jaialdia. Partida nagusia hasi baino lehen, hainbat urtez herriko eta eskualdeko kirol kronikak idatzi dituen Joxe Mari Telletxea *Largo* omendu zuten. Inaxio Errandonearen eskutik jaso zuen oroigarria.

### Ainhoa Alzuguren Mitxelena

Abokatutza orokorrean · Herentziak  
Alokairuak · Lan aferak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deitu eta solastatuko gara.

BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaalzuguren@gmail.com

### MARITX

· INGENIARITZA ELEKTRIKOA  
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK



· BOLETIN INDUSTRIA  
· INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) 636 617 450

Legia, 23 - BERA

### ERAKUSKETA

TALLER MUSEOA

SUSPELA auzoa, 1A  
BERA

ArMi

ORDUTEGIA  
10:30-13:30  
16:00-19:30

JOKIN ARMAN  
Margolaria / Eskultorea  
TRINI MIQUELARENA  
Margolaria / Marrazkilaria

Tel.: 670 260 424 - 677 471 966

## Udako II. kultur zikloa azken txanpan sartua da

Antton Telleriaren bakarrizketa eta artisau azoka izanen dira asteburu honetan eta bertze hainbat ekitaldi hurrengoan

### TTIPI-TTAPA

Nahi baino beranduago hasi behar izan bazuen ere, pixkanaka betetzen ari da Udako II. kultur zikloaren egitaraua.

Pasatu berri den abuztuko azken aste hondarrean Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus zubi konkordunetik bertso kantari aditzeko aukera izan zen eta Alkaia gan kantari aritu ziren Hurih eta Bi Zaldi.

Iraileko lehen asteburu honetarako ere bi hitzordu eder prestatuak dituzte. Hasteko, irratian eta telebistan hain ezagun den Antton Telleriak *Nekatutak* bakarrizketa eskainiko du ortziralean 20:00etan Bittiriko Plazan. Larunbatean artisau azoka antolatu du Argitsu elkarteak.

**Irailaren 10ean**, ortziralean 19:00etan MICE musikaria izanen da plazan.

**Hilaren 11n**, erraldoi eta buruhandien konpartsa ibiliko da, 10:30ean Harriondoatik abiatuta eta 18:30ean hasita dantza taldeen topaketa egingen dute, Beti Gaztek antolatuta.

**Hilaren 12an**, Dupla taldearen musika emanaldia izanen da 19:00etan Harriondoa atarian. Irailaren 17-19ko asteburuan itxiko da zikloa.

### 'Larrosak nere sahatsen azpian' erakusketa

Patrizia Etxegaraiaren *Larrosak nere sahatsen azpian* erakusketa ikusgai izanen da komentuan irailako larunbat eta igandeeetan, 16:00etatik 20:00etara.

Erakusketa zabaltzeko emanaldia eta inaugurazioa egingen dute irailaren 4an, larunbatean 18:00etan K kolektiboaren eskutik.



AITOR AROTZENA

### Beti bizi erromeria Pepito Yanci gogoan

Iñaki Dieguez akordeoilariak eta Xabier Berasaluze 'Leturia' panderojoleak erromeri bikaina eskaini zuten abuztuaren 22an, Udako II. kultur zikloaren barrenean. *Beti bizi* goiburupean, Pepito Yanci zenaren piezak jo zituzten Abaseneko atarian, hain zuzen, soinuari ezagunaren sortetxean.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Plazako komunak berri dituzte

Plaza Zaharreko kiosko azpiko komunak zaharberriitu dituzte udalak, mugikortasun urriko pertsonak ere erabili ahal dituzten. Haurtxoentzako aldagailua eta hilekoaren kopa garbitu ahal izateko konketa bat ere jarri dituzte. 21.124,2 euroko inbertsioa egin du udalak.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Gardelko bunkerra garbitu dute udan

Estatuko zortzi autonomia erkidegotako 25 gazte aritu dira *Muga gotortuak* izeneko proiektuko lanetan. Tartean Gardelko bagoeta inguruko bunkerra (argazkian) garbitu dute udan. Aritxulegiko tunela eraikitzeko 1.756 presok ostatu hartzeko erabili zuten barrakoi-multzoa ere garbitu dute.

### Klima eta Energia Jasangarrirako Ekintza Plana abiatu du udalak

#### AITOR AROTZENA

Nafarroako 154 udalerrik Klima eta Energi Jasangarriaren aldeko Alkateen Ituna sinatu dute. 18 plan paratuko dituzte martxan Nafarroako eskualdeetan, haien tartean Bidasoan. Horien artean, Lesakako udalak ere sinatu berri du ituna

eta hori burutzeko lanak martxan jarri ditu.

Europar Batasunak 2030erako ezarritako helburuak betetzen laguntzeko, neurriak prestatzen eta aztertzen hasi dira. Nafarroako Lurraldearen eta Jasangarritasunaren Agentziak abiatu du plana.

## Afizionatuen pilota partida irailaren 11n

Hainbat ekitaldi antolatzen segitzen du Altxatak elkartearen hogeita hamargarren urteurrena ospatzeko

### IRUNE ELIZAGOIEN

Afizionatuen mailako pilota partidaz gozatzeko aukera izanen da herriko frontoian, irailaren 11n, larunbatean, 18:00etan. Upel Pelota elkartearen eskutik, Retegi eta Azanza, Arretxe eta Pascualen aurka ariko dira.

Herrian dagoen pilotarekiko afizioa ikusita, ziu ekitaldi arrakastatsua izanen dela. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, koronabirusaren aitzinean beharrezko segurtasun neurriak eta berme guztiak betez jokatu da pilota partida.



Pilota txapelketako parte-hartzaileak. LOREA ARANGOA

## Bestetako haurren XXXIV. txapelketako pilota partidak jokatu dituzte

### IRUNE ELIZAGOIEN

Abuztuaren 13an, ortzirean, lau pilota partida jokatu ziren Etxalarko bestetako haurren XXXIV. txapelketako finalean. Guztira 21 pilotarik parte hartu zuten txapelketan, lau mailatan banatuak.

Ttikien mailan, Romeo de Caceres eta Beñat Ansalas izan ziren txapeldunak, Kaiet Sanzberri eta Aiara Martinezi 18-13 irabazita. Alebin mailako lehenengo taldean, Luken Ansalas eta Asier Telletxea izan ziren txapeldunak, Oihan Irisarri eta Ibai Azkarraga 22-13 garaituta. Alebinetako bi-

garren taldean, Amets Sanzberro eta Julene Danboriena izan ziren txapeldunak, Erik Igoa eta Maddi Martinezi 22-16 irabazita. Azkenik, infantil-kadete mailan, Kemen Ansalas izan zen txapeldun, Aitor Azkarragari 22-10 irabaziz.

Partiden ondotik, sari banaketa izan zen Altxataren eskutik eta kopak banatu zitzaizkien parte hartu zuten guztiei. Pandemia egoerak baimentzen badu, irail akaberan hasiko dira berriz ere esku pilota entrenamenduekin.

## Iarmendiko uso postuen enkantea irailaren 4an kultur etxean egingen dute

### I. ELIZAGOIEN

Iarmendi alderdian kokatutako 21 uso postuen enkantea egingen dute Etxalarko kultur etxean, irailaren 4an, eguerdian, 12:00etan. Esleitutako aprobetxamenduaren iraupea abenduaren 12an bukatuko da.

Enkantean parte hartzeko bertan egon beharko da, ematen den tanto bakoitza 10 eurokoa izanen da eta esleipena egin ondotik hartzaileak hasierako prezioaren %30 ordainduko du, fidantza gisa; errentarako ateratzen den zenbatekoa, berriz, irailaren 24rako ordaindu beharko du. Baldintza guztiak [www.etxalar.eus](http://www.etxalar.eus) orrialdean ikusi daitezke.

Covid-19ren osasun krisia dela eta, bertaratzen diren pertsonen gel desinfektatzailea erabili beharko dute eta

musukoa eramatea derrigorrezkoa izanen da.

### HASIERAKO PREZIOAK

POSTUA	PREZIOA
1	950
2	950
3	2.285
4	1.750
5	2.285
6	1.780
7	2.285
8	3.380
9	2.305
10	2.305
11	3.380
12	1.710
13	1.505
14	950
15	950
16	740
17	740
18	740
19	950
20	1.710
21	1.710



ELENE ALTZUGUREN

## Igeriketa ikastaroa abuztuan

Elene Alzuguren herritarraren eskutik, igeriketa ikastaroa izan dute 19 hurrek. Lau taldetan banatuta, astelehen, asteazken eta ortziraletan elkartu dira igerilekuan abuztuaren 2tik 20ra bitarte. Eguraldiak gehiegi lagundu ez badu ere, haurrak hagitz kontent geratu dira ikastaroan ikasitakoarekin.

## F. LANCHAS

Akutxiladorea eta bernizatzailea  
Parket eta parket flotatzailea jartzea  
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

## Euskal Herriko Mendi Duatloi zirkuitua abian

Txapelketa honetako hamar probetatik lehenbizikoa Igantzin eginen dute igandean

### MAITE, ANA ETA ITZIAR

Orain dela bi urte hasitako Euskal Herriko Mendi Duatloi txapelketari segida emanen diote aurtengoan. Bigarren edizio honetako hamar saioei Igantzin emanen diete hasiera eta buruilaren 5ean ospatuko da, igandean 10:30etik aitzinera.

Lehenbiziko sektorean 4,3 kilometro egin beharko dituzte lasterka, bigarrenean 18 kilometro mendi bizikletan eta hirugarren eta azken sektorean, berriz ere 4,3 kilometro lasterka. Izena emateko epea larunbatean bukatuko da eta 16 urtetik goitikoek parte har dezakete.

Banakako probarako 20 euro ordaindu beharko da eta errelebo-probarako 30 euro. Parte-hartzaileen kupora iristen ez bada, probaren egunean



Josu Urrestarazu, 2020an txapeldun.

eman ahal izanen da izena. Prezio berriak honako hauek izanen dira: banakako probarako 25 euro eta errelebo-probarako 4 euro.

Nafarroan bakarra izanen den Igantzikoaren ondotik, Igartza (irailak 11), Urduña (irailak 18), Arriaran (irailak 25), Arespalditza (urriak 2), Ibarra (urriak 9), Zegama (urriak 16) Amasa (urriak 23), Aia (urriak 30) eta Adunan (azaroak 13) jokatu dituzte probak.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Jubilatu elkartean 25. urteurrena

2020. urtean 25 urte bete zituen Igantziko Jubilatuen Elkarteak. Iazko egoera zela eta, ez zuten ospatzeko aukerarik izan. Aurten aldiz bai. Mende laurdenaren ospakizun hau abuztuaren 21ean izan zuten eta bazkari ederra egin zuten Baratxondoko egoitzan.

## Igerilekuko denboraldiaren ondotik buruileko ekitaldiak prestatzen hasiak

### MAITE, ANA ETA ITZIAR

Joan den udan ez bezala, aurtun gure herriko igerilekua irekia egon da. Arantza eta Igantziko herritar talde batek udalari eskainitako boluntario lanei esker bi hilabetez igerilekuez gozatu ahal izan dugu, eguraldiak aunitzik lagundu

ez baldin badu ere. Aitzinera begira, urtengoan ere herriko bestak ospatzetik izanen ez badugu ere, herriko zenbait talde eta udala hainbat ekitaldi antolatzen ari dira buruilean zehar egiteko. Hurrengo alean xehetasun gehiago emanen ditugu.

## Oihan Telletxea Sein Realarekin hasi da

Oihan Telletxea Sein futbolari gaztettoak maiatzean Promises Ligan egindako debutaren ondotik Donostiako Realeko jokalaria izanen da 2021-2022 denboraldian, infantil mailan. Entrenamenduak Donostian eginen ditu astean hainbat egunetan eta asteburuetan, berriz, partidak.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Bortzirietako txapelketan bikain

Bortzirietako binakako pilota txapelketan, umeen mailan, Arkupe klubeko Aratz Laka Mitxelena eta Urko Telletxea Sein igantziarrek txapeldunen txapela eskuratu zuten. Kimu mailan, Arkupe taldeko Kemen Telletxea Sein igantziarra eta Enaitz Bereau lesakarra txapeldunorde suertatu ziren.

# Lehengo garaiko baserriko lanak gogoan

Seroneko Esperantzaren eta herriko bertze emakume baten testigantza bildu ditugu orainoan

## MAITE, ANA ETA ITZIAR

Aitzineko aldizkarian Aline-kobordako Batistak bere gazte garaiko udak nolakoak ziren kontatu zigun. Oraingo honean Seroneko Esperantzarekin izan gara. Berak aipatu digunez, «udan gogorrena belarrak egitea izaten zen, dudarik gabe, lan guztia eskuz egin behar zelako: belarra pikatu, belarrari buelta eman, xerreldak egin eta meta egiteko prestatu. Orduan ez genituen orain ditugun erremintak».

### Lan horiek egiten noizbait zerbait berezia gertatu zitzaizun?

Erremintekin deskuidoren bat igual, behin sardea sartu nuen zangotik, purrustaka ateratzen zen odola eta, lanak utzi eta lasterka joan behar izan nuen medikuarengana. Sugeekin ere beti airean!

### Orduko baratzeak eta gaur egunekoak antzekoak dira? Barazkiren bat desagertu da edo jandak ez da lantzen?

Desagertu ez, lehen erremolatxa egiten zen eta hori orain hemen galdu da. Lehen aziendarentzat egiten zen kalabaza azkarki eta orain, berriz, bertze klase ba-

tzetakoak egiten dira, jendeak jateko, ez aziendetzako.

### Orduan, orain baino azienda gehiago bazen? Udan lan haundia ematen zuten? Aziendan martxa ere aldatu dela uste duzu?

Bai, lehen etxe gehienetan izaten zituzten esne behiak eta lan gehiago ematen zuten, egunean bi aldiz jetzi egin behar zirelako. Orain baserri gehienetan kanpoan izaten dituzte behiak, haragitakoak, eta horrek lan gutiago ematen du. Baserrian ez da inoiz lan faltarik izan, udan belarrak eta neguan, berriz, bazkak egin behar, eta eguraldi txarrarekin bazkak egitea ez zen batere gozoa izaten. Martxa aldatu da bai, orain etxe aunitzetan ez da aziendarik, eta gelditzen diren bakar horiei eskez belaiak garbi edukitzen dira.

### Etxe barrenean eta inguruan ere lana aunitz egin beharra izan zen. Zer lan egiteko probesten zen uda?

Lehen koltxoiak artilezkoak ziren, orduan udako beroa probesten genuen lan hau egiteko: koltxoia urratu, artile guztia atera eta makil ba-



tekin jotzen genuen ongi aireztatze eta eguzkitan utzi. Funda garbitu eta berriz ere lana guztia sartu behar zen koltxoian eta funda josi. Hori urtero egiten zen. Etxea barrenetik pintatzeko ere aprobetxaten genuen uda.

### Hala ere ez zen dena lana izan. Nola dibertitzen zineten?

Nire aita Berakoa zen eta besta guztiak pasatzera joaten nintzen ahizparekin, osaba eta izebaren etxera, bidaia trenean egiten genuen. Igantzin igande arratsaldetan akordeoia izaten zen plazan eta ilundu orduko behar izaten genuen etxean sartu. Lesakara eta Arantzara ere joaten ginen, oinez eta musika bukatzen zenean bueltatzen ginen etxera.

Herriko bertze emakume batek aipatu digunez, «gauzak aldatzen ari direla, denak oharitzen gara. Lehen uztailean belar lanak bizkorki luzatzen ziren, dena eskuz egiten baitzen: segaz belarra moztu eta gainerrakoa belar arrastuluarekin;

segadorak atera zirenean ederki nabaritu genuen diferentzia!». Abuztuan, berriz, «patata ateratzen pasatzen genituen egun batzuk dena ailtzurrez egiten baitzen. Niretzako gogorrena belarra bildu eta metak egitea izaten zen».

Orduko baratzeak eta gaur egunekoak berdintsuak direla ere aipatu digu: «Orduan sifitua aunitz izaten zen zerriei emateko. Orain barazki gehiago paratzen dira lehen ezagutzen ez genituenak: brokolia, romaneskua...».

Orduan orain baino azienda aunitz gehiago zela ere buruan du: «Etxe gehienetan baziren behiak, zerriak... Behiak eskuz jeitzen ziren eta esne hori salduz bizi ginen. Orain azienda kopuru haundia ez baduzu, ezin da deus ere egin».

Baserriko lanez gain, gehienbat etxe ingurua txukuntzen izaten omen zuten lana eta dibertitzeko San Juan Xarrea edo inguruko herrietako bestetara joaten ziren.

Denak Bat  
Hemen erabili  
kattagorria  
LESAKA  
948 627 514  
www.kattagorria.com

BEKO  
LOREAK ETA LANDAREAK  
Frain Auzoa · LESAKA  
T. 948 637 826

Eramateko janaria  
astehenetik ortziralera  
Zalain  
JATETXEA RESTAURANTE  
Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

PINTURA eta DEKORAZIOA  
BIDASOA  
Tel.: 948 45 02 48 - 619 88 97 23  
Lakadura eta bernizadurak  
Armairuak, azulejuak, etab.  
Etxe eta enpresen mantentze-lanak  
Etxeko konponketa ttikiak  
Oiz (Malerreka).  
Nafarroa eta Gipuzkoan lan egiten dugu.  
pinturasbidasoairun@gmail.com

## 70 ikaslerekin abiatuko dute ikasturtea

Haritz Iturria izanen da hiru urtekoen gelan hasiko den haur bakarra

### NEREA ALZURI

Ikastetxeetan, ikasturte hasiera, uda akabailaren seinale izaten da. Irakasleak irail hasierarekin batera, ikastetxetara itzuli dira, irailaren 8an hasiko diren haur eta gazte txoeekin eta horien familiekin ikasturtea antolatzeko.

Herriko eskolan guztira 70 ikasle izanen dira ikasturte honetan eta ikasle bat gehituko taldera, zehazki, hiru urtekoen gelara: Haritz Iturria Galfarsoro. Guraso elkarteak ere jantoki zerbitzua antolatu du eta ikasturte hasieratik martxan izanen da.

## Frontoia teilaberritzen ari dira eta luze gabe eguzki-panelak paratuko dituzte

### NEREA ALZURI

Uztailean, udalak deituta, herritarrek eskolan margotze lanak eta herri inguruan lanak egin zituzten auzolanean.

Bertzetik, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzaren bidez, udalak frontoian konponketak egiteko lanak esleitu ditu. Alde

bat, mendebaldea, haizearen eraginez hondatua dago, *itxosurak* edo itaxurrak daude eta teilaberritzen hasi dira. Frontoiaren bertze aldean, berriz, eguzki-panelak paratuz, herriko argiteria hornituko dute; udaletxea, liburutegia, eskola eta medikuaren etxekoa.



MIKEL LARRETxea

## Kultur ekitaldiak abuztuan

Aurten ere bestarik ez da izan herrian baina kultur ekitaldiak izan ziren besten seinale: Bankako Menditarren emanaldia, herri kirol saioa, pilota partidak, bertso saioa, Txamukosen kontzertua... Asteburu gozagarria izan zen abuztuaren 13tik 15erakoa.

## 817 euroko dirulaguntza Zahar Txoko elkarteari

Nafarroako Gobernuo Eskubide Sozialetako Departamentuak 148 adinekoen elkarterentzat dirulaguntzak emanen dituela iragarri du eta Zahar Txoko elkarteak ez da esku hutsik geldituko. Herriko elkarteak 817,80 euro hartuko ditu deialdi honetan.

## Mitxelena aita-semeen kontzertua larunbatean

Aterpeko udako kontzertuen barrenean, uztailean egiteko zen Gregorio, Beñat eta Andoni Mitxelena aita-semeekin kontzertu-bazkaria Aterpean. Orduan ez zuten egiterik izan eta gibelatzea erabaki zuten. Hain zuzen, larunbat honetan, irailaren 4an, izanen da.

## Gaztainak txertatzeko ikastaroaren segida larunbatean

### NEREA ALZURI

Larunbat honetan, irailaren 4an, gaztainak txertatzeko ikastaroa izanen da. Joan den martxoan bezala, egun osoko jarduna izanen da. Goizez, 08:30ean hasita, alde praktikoa kanpoan egingen dute eta 16:00etan, alde teorikoa eskolako gimnasioan.

Efren Martin adituak gidatuko ditu eguneko zereginak eta berarekin batera, Joseba Ibargurengoitia Euskal Herriko Hazien Sareko ordezkaria eta Mikel Diaz gobernuko teknikariaren azalpenak izanen

dituzte. Aldi honetan, txerto motak izanen dituzte hizpide, uda akabailako garai honetara egokituak.

Udalak adierazi duenez, udaberri hasieran egindako saioan parte harturikoekin harremanetan jarriko dira ikastaro honen berri emateko. Baina, bertze norbaitek interesa izanez gero, udaletxean izena eman beharko du. Herritarrek lehentasuna izanen dutela argitu du udalak, eta aukera izanez gero, herrikoek ez direnek ere izena emateko modua izanen dute.



IÑAKI DANBORIENA

## Bortzirietako pilota txapelketa herrian

Bortzirietako Binakako Pilota Txapelketako finalak abuztuaren 13an eta 17an jokatu zituzten herriko frontoian, eta finalistek artean bi herritar aritu ziren: kadeteetan Ekai Madariaga Apaolaza eta kimuetan Helene Alzuri Lujanbio. Alzurik, gainera, txapela jantzi zuen Julene Danborienarekin.

# DESKONTUAK

## BORTZIRIAK TTIPI TXARTELA



Erakutsi  
eta aprobetxatu  
aukerak!

**Caser**  
RESIDENCIAL ANAKA

**%5** DESKONTUA egonaldietan

Anaka, 8 | IRUN  
T. 943 66 77 80

**ttiipi-ttapa**

**%10** DESKONTUA eskeletan eta oroiarrietan

Koskontako bidea, 7-1 | LESAKA  
T. 948 63 54 58 | bagoaz@ttiipi.eus

**Feri Sarri**  
LAND

**%50** DESKONTUA sartetan

Irrisarri, 1 | IGANTZI  
T. 948 92 89 22

**Semper**  
AUTONTSKOLA

**%10** DESKONTUA matrikulan

BERA | T. 948 63 02 98  
LESAKA | T. 948 63 82 99

**Arduro**

**%5** DESKONTUA arropetan

Altzate, 30 | BERA  
T. 948 63 01 36

**bixkiak**  
KIROL ETA MODAKO erropo denda

**%5** DESKONTUA

Arretxea, 11 | LESAKA  
T. 948 63 81 10

**txinelka**

**%5** DESKONTUA erosketan guztietan

Arropa-denda  
Albistur, 3 | LESAKA

**KATEA BIKE**

**%10** DESKONTUA konponentetan

Kanttonberri, 1 | BERA  
T. 948 63 12 18

**Xulufraia**

**%5** DESKONTUA 30€tik goiti

Altzate, 18 | BERA  
T. 948 63 12 66

**EDARIAN**  
MANUELA TARDUENAS

**%5** DESKONTUA (esnean izan ezik)

Bidasoa, 76 | BERA  
T. 948 63 10 27

**GAELA**

**%10** DESKONTUA originate zerbiltzetan

Pio Baroja, 11 behea | BERA  
T. 666 42 61 96

**cenor**  
ALZURI ETXETRESNAK

**%5** DESKONTUA ebretresnetan

Bittiria, 33 | LESAKA  
T. 948 62 75 31

**KARLOS ALZUGARAY**  
OSTEOPATA Euz. Oit. D.O.

**%5** DESKONTUA borts salako bonoan

Itzea, 20 behea | BERA  
T. 607 85 32 08

**ASPACE**  
PARRALIZI COGNOL  
Nafarroa - Nafarroa

**%5** DESKONTUA 30€tik goiti

Otsango, 13 | LESAKA  
T. 948 63 80 41

**Urdu Bera**  
BERRIEN KIROLOK

**%20** DESKONTUA arteko abonarean matrikulan

Toki Ona Kiroldegia | BERA  
T. 948 63 02 15

**AGORA**  
KIROLAK

**%5** DESKONTUA kirol artikuluetan  
**%15** DESKONTUA ahiza arropetan

Altzate, 22 | BERA  
T. 948 63 09 99

**zela**  
KIROLAK

**%5** DESKONTUA erosketan guztietan

Altzate, 6 | BERA  
T. 948 63 05 98

**kaftegorria**

**%5** DESKONTUA hair arropetan

Behoko Plaza, 10 | LESAKA  
T. 948 62 75 14

**IGONE**

**%5** DESKONTUA 30€tik goiti (prentsan izan ezik)

Kanttonberri, 4 behea | BERA  
T. 948 63 06 26

**ZU** lore denda dekorazioa osagarriak

**%5** DESKONTUA lore moztuan 30€tik goitiko erosketetan

Altzate, 33 | BERA  
T. 948 62 57 86

**elika** Dietetika eta elikadura

**%5** DESKONTUA kontsultan

Itzea, 6 behea | BERA  
T. 948 63 12 83

**oreka** nutrizioa eta dietetika

**%5** DESKONTUA kontsultan

Arretxea, 11 | LESAKA  
T. 948 63 75 73

**intzuri OPTIKA**

**%5** DESKONTUA produktu guztietan

Bittiria, 28 | LESAKA  
T. 948 62 75 50

**Ostargi optika**

**%5** DESKONTUA produktu guztietan

Bidasoa, 8 | BERA  
T. 948 63 07 53

**IRACHE** lanatorioak

**%100eko** DESKONTUA Belta-gelaren ezabileran  
\*Eskatzaileak edo hildakoaren bigarren gradu arteko senitariek bakarrik fisikoki aurkeztu behar dute.

Kanttonberri, 14 | BERA  
Zarandia, 18 | LESAKA  
T. 948 63 74 04 | T. 948 19 70 70

**HKpodologia**  
NORA MAIZA

**10** EKO DESKONTUA ibilkeraren arteketan digitalean

Bernat Etxepare, 6 | HONDARRIBIA  
T. 688 878 177

**txinelka**

**%5** DESKONTUA erosketan guztietan

Zapata-denda  
Plaza Zaharra, 25 | LESAKA  
T. 948 63 75 94

## IX. Arretzeko Bordako Kronoigoera irailaren 11n

09:00etan hasiko da txirrindularitza proba eta 150 euroko saria izanen da errekorra hobetzen duenarentzat

### MAIDER PETRIRENA

Iaz pandegimarengatik antolatatu gabe utzi ondotik, aurten IX. Arretzeko Bordako Kronoigoera egiteko prest daude. Irailaren 11n izanen da hitzordu eder hau. Izen-ematea: [www.rockthersport.com](http://www.rockthersport.com) web orrian egin behar da. Bortz euro gustako da. Dorsala hartzea larunbatean berean 08:30ean izanen da eta probaren hasiera 09:00etan. Proba kronometraturia eta txandakako irteera emanez eginen da. Errekorra (9'06") hobetzeak 150 euroko saria izanen du.

Interesatuak libreaki bere gain hartzen dute parte hartzea eta antolakuntzak ez du bere gain hartuko izaten ahal diren ez-beharren ondorioz. 16 urte bitarteko gaztetxoek bere guraso edo tutore baten baime-na behar dute parte hartzeko.



Pilotari gaztetxoak Donamarian.

### Neskak pilotari

Plazaz plaza txapelketako final laurdenak jokatu zituzten Donamarian. Nahi Bertiz Babaze eta Iraide Iriarte Petrarena herriko pilotari gaztetxoek ere jokatzeko aukera izan zuten. Partidu ederra eta polita eskaini zuten eta irabazi egin zieten Ardoi Klubeko Uxueri eta Larraun Klubeko Alaitzi.



Herriko dantzariak, San Tiburtzio egunean eskainitako emanaldian. JONE URTXEGI

## Dantzaluzea dantzatu dute San Tiburtzio egunean eta musika izan da gauero

### MAIDER PETRIRENA

Aurten ere ez da bestarik izan, baina ez besten barrenean aipatzekoa da San Tiburtzio Egunean txistularien soinuarekin esnatu zirela herritarrak. Gero, meza nagusia ospatu zen eta hau akitutakoan herriko dantzarien emanaldia. Unai Bereau Mutuberria, Bixente Ibarra Ibarra, Amaia Goñi Gelbentzu, Itxaso Arrieta Agirre, Iñigo Arrieta Gelbentzu, Eneko Herrera Urroz eta Josune eta Iruñe Agirre Maritorenak plazan dantza-tzuten. Urtero-urtero dantzatzen den *Dantzaluzea*

dantza ere eskaini zuten, Edurne Urroz Agesta, Maxux Mutuberria Galtzagorri, Raket Urtxegi Gelbentzu eta Amadeo Arretxea Txoperena txistularien doinupean.

### Ilunabarretan musika

Horrez gain, Aitor Ibarra *Jalisko* herritarrak Ugaldea bere auzotik, herria alaitzeko musika jarri zuen ez bestetako ilunabar guztietan. Handik edo hemendik, beraz, besten seinalea izan zen herrian.

Lerro hauen bidez eskerrak aunitz denei zuten parte-hartzearengatik.



### -Orubeak salgai

(Donamaria eta Sunbilla)

### -Etxebizitzaren promozioak

(Donamaria)

### -Pabilloi industrialak errentan emateko

(Bera - Zalain poligonoan)

Lekueder karrika 16, Sunbilla  
667 547 445 | [xuban@ukulu.es](mailto:xuban@ukulu.es)





## Oinarrizko gaitasun digitalak ikastaroa irailean

Irailaren 2ra arteko epea dago izena emateko 948 45 00 17 telefonora deituz

### TTIPI-TTAPA

Interneten bilaketak egiteko, modu seguruan nabigatzeko, oinarrizko kudeaketak egiteko, sare sozialetan sartzeko, mezuak idazteko... oinarrizko gaitasun digitaletan trebatzeko ikastaroa izanen dute irailaren herrian. Hastapen mailako ikastaroa izanen da eta sei egunez emanen da: irailaren 6an, 8an, 10ean, 13an, 15ean eta 17an. Goizez, 09:00etatik 11:00etara, bilduko dira eta hamabi orduko iraupena izanen du. Izena emateko hondarreko eguna irailaren 2a, ortzeguna, izanen da eta udaletxera deituz 948 45 00 17 egin ahal izanen da.

### Kultur ekitaldiak ere bai

Ikastaroa ez ezik, udalak antolatutako kultur ekitaldiak ere izanen dira irailean. Hila-



Trikidantz taldea irailaren 12an.

ren 3an, lehenbiziko ortzirailean, *Pantxika Lamur* ikuskitzuna izanen da, umorea eta maitasuna uztartzen dituen. 19:30ean zehaztua dute hitzordua.

Hurrengo igandean, irailaren 12an, berriz, Trikidantz taldeak girotuko du herria, 18:30ean izanen duten kontzertuarekin. Bi hitzorduotarako tokiak zehazteke ditu udalak eta lotzen dituztenean jakinaraziko dutela iragarri dute.



UTZITAKOA

## Errekakoak martxan berriz ere

Denboraldi-aurrea hasteko Mendaurrera joan ziren abuztuaren 21ean Errekako kideak. Mendi itzulia egin ondotik, bazkarian bildu ziren. Mendi bueltaren ondotik, kiroldegiko entrenamenduei begira hasiak dira. Jakinarazi dutenez, irail bukaeran edo urri hasieran hasiko dira.

## Musika eskolan ezohiko deialdia ireki dute

Pianoa, gitarra, txistua, bateria, trikitixa edo eskusoinua jotzen ikasi nahi dutenek irailaren 15era, asteazkenera, arteko ezohiko-epea dute musika eskolan matrikula egiteko. Udalaren webgunean edo musika eskolan bertan eman dezakete izena.

## IKA euskaltegian izen-ematea zabalik da

2021/2022 ikasturtean euskarara ikasi nahi dutenek IKA euskaltegian izena emateko aukera dute irailaren 30era, hondarreko ortzegunera, arte. Izena emateko edo informazio gehiago lortzeko aski da euskaltegira bertara deitu eta galdetzea.



DFT

## Udako kanpusaz gozatu dute gaztetxoek

Doneztebe Futbol Taldeak antolatuta, udako futbol kanpusaz gozatu dute hainbat gaztetxok uda honetan. Bi txanda izan dituzte eta goizetan, 09:00etatik 13:30era, bildu dira hainbat egunez. Heldu den urtean berriz ere parte hartzeko gogoz daude futbolzaleak.

## Eskubaloian ari nahi dutenek izena emateko aukera zabalik dute Errekan

### TTIPI-TTAPA

Aurre-benjaminetatik kadete mailara (2006-2015 urteen artean jaio direnentzat) bitarteko izen-ematea ireki du Erreka Kirol Elkarteak eskubaloian ari nahi duten neska-mutilentzat. Irailaren 6a izanen da galdetegia betetze-

ko hondarreko eguna eta irail hondarrean ez bada urri hasieran hasiko dituzte entrenamenduak. Taldeei, egutegiari eta ordutegiari buruzko informazioa Nafarroako Eskubaloi Federazioak neurriak zehaztean jakinaraziko dituzte.

TTIPI-TTAPA  
SARE SOZIALETAN  
Jarrai gaitzazu!

facebook  
www.facebook.com/ttppi.ttapa

## Ogia egiteko tailerra irailaren 4an egingen dute estalpean

Edukiera mugatua izanen denez, aurretik izena ematea ezinbestekoa da

### F. ETXEKOLONEA

Heldu den larunbatean, irailaren 4an, ogia egiteko ikasteko tailerra izanen dute herrian. Bertaratzen direnek okintzan aditua den Edorta Salvadorren eskutik, orantzas egindako ogia egiteko aukera izanen dute.

Goizean, lau orduz, 10:00etatik 14:00etara, bilduko dira herriko estalpean. Edukiera mugatua izanen da eta, hortaz, aurretik izena ematea ezinbestekoa izanen da. Udaletxera, hau da, 948 45 01 61 telefonora, deituz eman daiteke izena.



UTZITAKOA

## Bisita gidatua, kontzertua eta afaria

Herritar talde batek antolatuta, abuztuaren 13an hitzordu polita izan zuten herrian. Arratsaldean bisita gidatua egin ondotik, Ainara Maia eta Joakin Iriarteren eskutik poesia emanaldia izan zuten. Ilunabarrean, Pottoka & Sherpa Miguelek girotu zuten plaza ingurua eta afarian 40 bat lagun bildu ziren.

## Txorieneren bisita izan dute errotan

ETBko Txoriene saiorako grabaketak egin zituzten errotan abuztu bukaeran. Irailaren 6an, heldu den astelehenean, Edorta Amurua errotazainaren azalpenak aditzeko aukera izanen dute ikusleek.



## Olio zaharraren bilketa irailaren 5era arte

Udalak urriaren 17an, igandean, herriko emakumeek egindako lanari aitortza egiteko ekitaldian, olio zaharrarekin egindako xaboa banatu nahi du. Horretarako, olio zaharra bildu nahi dute. Irailaren 5era arte eraman ahal izanen da estalpera (19:00etatik 20:00etara).



UTZITAKOA

## Juan Elizalde eta Mertxe Arbelaiz omendu dituzte

Udalak aurten 85 urte beteko dituzten Juan Elizalde eta Mertxe Arbelaiz omendu zituen ez-festetan. Txistulari eta joaldunen doinupean, etxe atarian eman zizkieten lore sorta eta zapia.

## Ameliren eskutik, ipuin kontaketa irailaren 11n

Iraileko bigarren larunbatean, hilaren 11n, Ameli eta Xirrikietuen jostunek kontalariaren eskutik, haurrentzako ipuin-kontaketa izanen da herrian. 18:30ean hasiko da kontaketa, plazan. Eurria eginez gero, estalpean edo eskolan izanen da.



# DONAMARIA

## Presoen aldeko frontenis txapelketa irailean

Irailaren 25ean jokatuko dira hirugarren eta laugarren postuak eta finala

### TTIPI-TTAPA

Irailako larunbat goizetan *Denok batera, presoak etxera!* lelopean, frontenis txapelketa jokatuko dute Donamarian. Izena emateko bikoteko hamar euro ordaindu behar ziren eta txapelketatik ateratako dirua Sarek antolatutako Nafarroa-

ko itzulia bultzatzeko erabiliko dute. Partidak larunbat goizetan jokatuko dituzte frontoian (euria ari badu berze nonbait). 3. eta 4. postuak eta finala irailaren 25ean jokatuko dituzte eta antolatzaileek jakinarazi dutenez finalistentzat sariak izanen dira.

## Plazaz plaza txapelketako finalaurdenak giro polita sortu zuen herrian

### TTIPI-TTAPA

Uztail bukaeran Plazaz plaza txapelketako finalaurdenak jokatu ziren herrian. Aldaregia eta Ruiz de Larramendik irabazi zuten Ruiz de Infante eta O. Ruiz de Larramendiren kontra (22-17). Herriko frontoia tiki gelditu zen.



# BERTIZARANA



UTZITAKOA

## Albiasu eta Aizpuru frontenisean garaile

Abuztuaren 22an, gaztetxoan herri-kirol saioaren ondotik, jokatu zituzten Nartarteko frontenis finalaurreko eta finalak. Ttikietan Oinatz eta Aieko izan ziren irabazle, Pablo eta Urkoren kontra 22-17 irabazita. Helduen artean Alazne Aizpuru eta David Albiasu nagusitu ziren, Julen eta Izaskun Iriarteren -Unai Pikabearen ordezkoa- kontra (30-18). Lerro hauek idazterakoan koskorren finalak jokatzeke zituzten.

# WIKAI



**HEMENGOAK GARA,  
ZUREKIN GAUDE.**

ABIADURA BIZIAN NABIGATU  
GURE INTERNET ZERBITZUAREKIN

ESKATU INFORMAZIO GEHIO:

948 030 500



Nafarroan komunikazio sarerik handiena eraikitzen ari gara, konexiorik onena zure etxeraino edo enpresaraino eramateko. Iruñean gaude, eta loguntza tekniko eskaintzen dugu urteko egun guztietan goizeko 8.00etatik goveko 10.00ak arte.



info@wikai.es

948 030 500

www.wikai.es

## Irteera batzuk antolatzea erabaki dute

Lehenbiziko bidaia Benidormera izanen da eta urriaren 1etik 11ra joatekoak dira

### P. IRASTORTZA

Laugarren aldiz bildu da aurreko elkarteko zuzendaritza batzordea erabaki inportanteak lantzeko. Zehazki, uztailaren 27an elkartu ziren kideak parte-hartzaileekin.

### Bidaiak martxan

Covid-19aren erruz, eta azken urte eta erdiko geldialdiaren ondoren, harat-honat ibiltzeko gogo handia nabaritzen da nonahi. Hortaz, ostalaritzan, garraioan... indarrean dauden protokoloen bermeak kontutan hartuta, elkarteko

zuzendaritza batzordeak irteera batzuk antolatzea erabaki zuen.

### Lehenbizikoa Benidormera

Nahiz eta hurrengo hilabete-tarako (eta tenorez publikatuko diren) ideia gehiago izan, urriaren 1etik 11ra Benidormen egonaldi bat antolatu du elkartek. Abuztuan izan ziren izena emateko egunak eta bidaiariek, joan eta gozatu ahal izateko, bi txertoak hartuak dituztela adierazten duen ziurtagiria aurkeztu beharko zutela jakinarazi zuten.

## Amador Txoperenak utzi gaitu

PABLO IRASTORTZA, ARKUPEAK ELKARTEAREN IZENEAN

Zu agurtzeko astirik gabe harrapatu gaitu berriz, elkarrearen inguruko aurtengo enegarren berri mingarriak. Ezin gara



ohitu horrelako tristeziak eta notiziak hedatzera; nola, gainera, hain hurbilekoa izanda?

Sekula ez zenuen aitzakiarik azaldu, zure emazte Kontxitarekin elkarlanean, Igantzin Arkupeak elkarteko ordezkari lana hartu zenuenetik. Zure aita zen Patxi Txoperenaren ordezkari hartuz, langilea

eta zintzoa izan zara beti. Hazi onak uzta emankorra dakar. Zure etxeko atarira hurbiltzen zen edonorentzat, elkarrekin lau solas gurutzatzeko erreferentzia zinen, eta egon ziur, zure txantxek eta agurrek igantziarren oroitzapenean jarraituko dutela. Zorionez, senide, emazte, seme-alaba eta bilobekin, familia ederraz inguratutik bizi zinen eta ez da nolana hiko eginahala izanen zuk utzitako hutsa betetzea. Elkartek bere dolumin sakonak igorri nahi dizkio zure sendi osoari, eta edozein modutako laguntzarako prestasuna agertu. Mila esker egindako guztiagatik. Bidaia on, Amador!

## ZUZENKETA

788. zenbakian mendizaleak Beriainen izan zirela adierazi genuen. TTIPI-TTAPAN izandako hanka-sartze bat tarteko, mendiko hitzorduaren ondoren bazkaria eta dantzaldia izan zituztela adierazi zen, baina ez zen hala izan. Ez zen ez bazkaririk eta dantzaldirik izan. Barkatu eragozpenak.

## Martina Zelaietarentzat izan da uztaileko janari sorta

Erantzun zuzenen zenbakia-ri so eginez, badirudi ez zela errazegia izan uztailean egindako galderaren erantzuna, orain arteko asmatzaile kopururik baxuena izan baitzen. Zehazki, bederatzik lagunek asmatu zuten. Zotz egin ondoren, Iruritako bidea hartu

zuen janari sortak. Martina Zelaieta izan zen kukuak jo ziona.

### Iraileko galdera

Ze kiroletan nabarmendu zen Martin Gartziaarena Labaien? Bidali erantzuna Whatsapp bidez 618 56 78 37 telefonora.



20 lagun bildu ziren mendi irteeran. UTZITAKOIA

## Mendi taldea Hernio mendian izan da abuztuan

### P. IRASTORTZA

Urte franko igaro dira Arkupeak elkarteko mendi taldeak Gipuzkoako tontor polit hau lehen aldiz igo zuenetik. Aurtengo urterako antolaturiko egutegian, Iturriozko ermitan, abuztuaren 17ko 09:15ean eginga zuten hitzordua eta ez zuten hutsik egin.

Bezperatik euriaren mehatxa bazegoen ere, 20 mendizalek egin zuten gailurrera joan-etorria osatzeko hautua, eguraldi fresko eta atseginarekin. Ez ziren damutu.


Igoeran, Zelatungo Antonioren borda ostatuan izan

zuten gosaltzeko parada. Ondoren, 1.075 metro dituen gailurreraino jo zuten (taldeko kide batzuek lehenengo aldiz gainera). Argazki eta antzeko aferen ohiturak konplitu eta gero irteerako ermitaren aparkalekura itzuli ziren, goiza xarmanki aprobetxatu eta gero.

Txalogarria da aipaturiko bordako jabea den Maria Jesusen eman zieten tratua benetan zintzoa eta ezta, zituena aukera guztiak ibiltariei eskaini baitzizkien: «Noiznahi itzuliko gara, mila esker benetan!»

# IKASTURTE HASIERA

2021 - 2022



## Iraileko aldapa leuntzeko aholku sorta

**U**rtarrileko aldapari buruz aunitz hitz egiten da urtea hasi berria denean, baina iraileko aldapa ez da askoz hobe izaten. Egia da udako oporretatik bueltan izan ohi garela gehienak eta aiseago moldatzen gara udazkenaren atarian. Oraindik ere egunak luzeak izaten direlako argi aldetik, seguruenik udan baino eguraldi hobe egiten duelako eta gauza berriak egiteko zein hasteko gogotsu egoten garelako. Iraila, barealdiaren ondorengo ekaitza dela erran daiteke, urtarrileko asmo berriak berriz ere mahai gainean jartzen dugun tenorea. Aitortu, zuk ere ahanziak zenituen urte hasieran bazenituela asmo eta helburu berriak eta irailak aurrez aurre jarri dizkizu berriz. Badira bizi osoa oporretan pasako luketen pertsonak, baina gehiago edo gutxiago, errutina denoi etortzen zaigu ongi. Egunerokoan ez galtzen laguntzen du eta pixkanaka denak itzuliko gara geure eguneroko zereginetara.

## ZURE MOMENTUA GAUR DA



IZEN EMATEAK  
IRAILAREN  
13TIK 23RA  
KIROLDEGIAN



ETORRI IRAILAREN 20TIK 23RA ETA NAHI DITUZUN  
AKTIBITATE GUZTIAK PROBATU!

- CROSSTRAINING
- STRETCHING
- GAP
- PILATES
- AEROBIC
- ZUMBA
- STRONG
- CICLO
- GAZTE FITNESS
- CROSSKIDS
- GIMNASIA 3º EDAD
- DANTZA MIX TTIKI

948 630 215 / 662300763

bera@urdisl.com

@berakotokiona.kiroldegia

Julio Caro Baroja 2 Behea





**Adi izena emateko datei!**

**Irailaren 10etik aitzinera informazioa kiroldegian eta web orrian eskuragarri**

[www.lesakakoudalkiroldegia.com](http://www.lesakakoudalkiroldegia.com)

Komentu kalea, 2 · LESAKA · T. 948 637 400 · kiroldegia@lesaka.eus



**LIBURU-DENDA  
PAPER-DENDA  
MARGO-DENDA  
JOSTAILU-DENDA**

**Ikasturte berria hasteko ikasmaterialetan aukera zabala!**

- Neurri guztietako paper termiko biribilkiak.
- Tonerrak eta tintak enkarguz.

Kanttonberri 4 · Bera · Tel.: 948 630 626  
papeleriaigone@gmail.com



**Klaseak urrian hasiko dira**

**HAU DA ZURE LEKUA...**

- Hizkuntza trebetasunak ingelesez landu
- Ingelesa ikasten ikasi
- Ingelesa zerotik hasi
- Ahantzitakoa berreskuratu
- Ingelesa jolastuz eta gozatuz ikasi

...NAHI BADUZU

**Izen-ematea zabalik**

Leitzako bidea, 90 Eguzki Eder  
T. 615 70 68 02  
eliarrietaeskola@gmail.com

## HASIERAK

Ikasgeletarako bidean, motxila bizkarrean hartuta izanen dira haur eta gazteak, egokitzapen garaia denentzat, bereziki ttikiententzat eta euren gurasoentzat. Batzuk abesten joanen dira hezitzaileen besotara, beste batzuk negar zotinka eta mukiak zintzilik, eta egunak pasa ahala bihurtuko dira malkoak irribarre. Zikinduta amaituko duten mantal dotoreak soinean jantzita batzuk, koaderno eta liburu berriekin bertzeak eta anai-arreba edo lehengusu zaharrenak herentzian hartutakoak izan dira bertze hainbat. Motxila betetzeko batzuk nahikoa izaten dute koaderno, arkatza eta boligrafoarekin, bertzeek azpimarratzekoak, kolore desberdinetako errotulagailuak, margoak... behar izaten dituzte. Bide horretan lagundu eta ikasgelara prest joateko, beharrezko eskola-material guztia eskualdeko komertzioetan izanen dute eskura.

## KUDEAKETA

Ikasturte berri baten aurrean garrantzitsua da antolatzea eta denbora kudeatzea. Hasieran, lanik handiena liburuak forratzea izaten da. Lan hau gurasoek hartu ohi dute haurrak txikiak direnean, adinean aurrera egin ahala norberak egiten dituen arte. Kalkulatu liburuak ez hondatzeko plastikoa jartzeak asteburu oso bat kenduko dizula eta lasai, pasako duzun denbora guztiaren ondoren ez dira ongi geratuko, beraz ez frustratu. Hori izango da kudeatzen ikasiko duzun ikasturteko lehen oztopoa. Behin hori eginda, agendak la-



gunduko dizu zure egunerokoan. Antolatu, planifikatu eta saiatu agendan apuntatzen hori ahalik eta zuzenen betetzen. Lehentasunak zein izanen diren argi edukitzea garrantzitsua da. Eskolatik bidalitako etxerako lanak, eskolaz kanpoko ekintzak edo bestelako aisialdiaz gozatzeko denbora nola kudeatuko duzun jakitea.

## KIROLA

Norbere burua zaintzeko modu desberdinak izaten ditugu. Pertsona hainbeste gustu eta zaletasun daudelako. Horregatik norbere buruaren zaintzak izan behar du lehentasuna. Aukera ona izaten da, irailan berriz ere kirol jardueri modu jarraitu batean ekiteko. Jarduera fisikoaren onurak ez dira gorputzarentzat bakarrik izaten, buruari ere aunitz laguntzen baitio. Eskualdeko kiroldegi eta kirol zentroetan lagunduko dizute zuretzat egokiena den jarduera fisikoa aukeratzeko, hasieran gorputza gogortuta egotea normala da, oportunitat zator eta badakigu oportunitate sasoia puntua galtzea erraza dela.



Ana Tovar  
YOGA

## YOGA, AEROYOGA ETA MEDITAZIOA

- Doneztebe
- Zubieta
- Elizondo
- Bera



679 210 910

Informa zaitze gure ordutegiez



Lehenengo bi asteetan izerdi tanta potoloak botako dituzu, baina ondoren gorputza ohitzen joanen da gustura prestatuko duzu kiroldegi-ira joateko motxila.

### BARNE LASAITASUNA

Lanean edo errutinaren gurpil zoroan sartzea oso gauza erraza da. Gaua iritsi eta ohatzean oraindik ere egiteko ditugun gauzekin ibiltzen gara aunitzetan buruan bueltaka. Horregatik da garrantzitsua pentsamenduak lasaitzea eta erlaxatzen ikastea. Intentsitate desberdinetako kirola edo jarduera fisikoak lagundu diezazuke barne lasaitasuna lortzen. Baina, badaude hori lortzeko beste modu batzuk, yoga edo meditazioa adibidez. Egunean minutu batzuk aski izaten dira barne lasaitasuna lortzeko, hau ere ikasi eta entrenatu egin liteke. Hemen eta orain bizitzearen garrantziaz konturatuko zara eta egunerokoaren zama arinagoa izanen da. Lo ongi egitea ere garrantzitsua izaten da, horregatik adituek zortzi orduko loa egiten saiatzea aholkatzen dute.

### UDAZKENEKO ASTENIA

Irailaren 21aren bueltan sartuko gara udazkenean eta horrek ekaritzen du berarekin astenia. Neke, ahultasun eta apatia egoera da udazkeneko astenia. Organismoak urtaro aldaketetara egokitzeko dituen zailtasunen ondorioz sortzen dena. Udazkeneko asteniaren kasuan, ohiko eta ordu aldaketak, argi-ordu gutxiago eta tenperaturren jaitsiera sartzen dira. Sintomak larriak ez diren arren, gure bizi-kalitateari eragin diezaiokete, gure energia, motibazioa eta errendimendua murrizten baititu ikasketetan edo lanean, eta aldarre aldaketak ere eragin ditzake. Dieta osasuntsua, jarduera fisikoa, lo ongi egitea eta ahal dela eguzkia hartu edo aire librean egoteak lagunduko dizu urtaro aldaketak ekartzen duen egoera berezi honi aurre egiten.

### HIZKUNTZAK

Eskolan laguntza behar dutelako ematen dute askok izena hizkuntza eskola eta akademietan. Bai, egia da horretarako ongi etortzen dela laguntza hori edo lanen bat lortzeko eskatzen diguten titulua lortzen prestatzeko. Baina jarri zure azken oporrei begira. Atzerrian izan zara eta zure ustezko ingeles perfektuaren pronuntiation-a ez du inork ulertu. Opor guztiak pasa zenituen zeinu bidez behar zenuen hori eskatu nahian. Hori seinale bat da: ingelesa herdoilduta duzu. Eskolan atzerriko hizkuntzetan ateratako nota on haietatik urrun dago zure maila. Beraz utzi aitzakiak eta eman izena gertuen geratzen zai-

**KAGU LIBURUDENDA**  
Tel. / Fax 948 638 232  
Koskontako bidea, 7  
(osasun-zentroaren parean)  
31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBUR EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGOKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

**sare akademia**

DBH  
- MATEMATIKA, FISIKA ETA KIMIKA

BATXILERGOA  
- MATEMATIKA

LEHEN HEZKUNTZA  
- ERREFORTZU KLASEAK IKASGAI DESBERDINETAN

COVID-19 dela eta segurtasun neurriak bermatuta.  
2021-2022ko ikasturterako apuntatzeko epea zabalik.

INFORMAZIO GEHIAGO:  
T. 615561458 (Nerea)  
Emaila: akademiasare@gmail.com  
Web orria: sites.google.com/view/sareakademia  
Leitza errepidea 28  
31740 Doneztebe

Elikarrikin ikasiko dugul!

**GILTXAURDI UDAL KIROL INSTALAZIOA**

Igerilekuak  
Jacuzzia  
Gimnasioa  
Gune termala

**Irailaren 16an hasiko da denboraldi berria!**

Kirol-jardueren informazio guztia eta izen-emateak web orrian iraitetik aitzinera.

Spinning, aerobik, Jumpin Fitness, Hit-Core, tonifikazioa, Pilates, yoga, luzaketak, meditazioa, haur zein helduendako igeriketa ikastaroak...

Giltxaurdi 38, ELIZONDO | Tel. 948 45 23 01  
giltxaurdi@baztan.eus | www.giltxaurdi.eus

**AniNote**  
Amazabal Kalea, 39 LEITZA  
T. 948 510 719

Denboraldiko ikastaroei buruzko informazioa kiroldegian eskuragarri!

LES MILLS jarduera berriak (Body Pump eta Body Combat)

**IRAILEAN AUKERA EZIN HOBEA:**

- Irailaren bazkide egiteko sarrera DOHAINIK (urte bateko iraunkortasunarekin)
- BAZKIDE izanda ikastaroei sartzeko LEHENTASUNA eta prezioetan ABANTAILAK izanen dituzu.



**KULTURKARI**  
Diseinu grafikoa | Publizitatea

## EGUTEGIAK 2022

MOTA DESBERDINETAKO  
EGUTEGI PERTSONALIZATUAK  
EGITEN DITUGU



**ESKATU ZURE AURREKONTUA:**

Tel.: (+34) 948 63 54 58  
kulturkari@ttipi.eus



zun akademian, eskualdean aukera aunitz duzu. Eurak esango dizute nondik hasi eta hurrengo oporrallirako ez duzu estres linguistikorik izango. Ingelesa edo bertze edozein hizkuntza ikasteko aukera duzu kurtso hasiera honetan.

batean hasteak ere izan liteke motibazio iturri, jende berria ezagutuz eta plan desberdinak egiteko aprobetxatu. Berrikuntzek beti ematen diote bizipoza egunerokoari eta agian hori da kurtso hasiera honetan behar duzuna.

### BERRIKUNTZAK

'Ikasteko inoiz ez da berandu' bezalako esaerek zentzua har dezakete ikasturte honen hasieran. Askotan inertziek betikoa egitera eramaten dute pertsona bat, baina geure buruari galdetuz gero 'zer egin nahi dut?' edo 'zer ikasiko nuke gustura?' edo 'zertara ez naiz ausartu, baino probatuko nuke?' Beti daude erantzunak eta beti dago gure nahietara egokitutako eskaintzaren bat eskualdean. Seguru badela oraindik denbora faltagatik, aukerarik ez duzulako izan edo bertze aitzakiaren batenegatik egiteko eta ikasteko geratzen zaizun hori. Gauza berriek beti pizten dute ilusioa eta agian hori da aurten behar duzuna. Talde berri

### NEURRIA HARTU

Iraila izaten da gauza askoren hasiera. Helburu, zeregin eta asmo desberdinak aipatu ditugu orain arte. Pertsona beste bizimodu daude, bizimodu beste pertsona. Eskolan hasiko direnak, kirola egiten hasiko direnak, meditatzen ikasiko dutenak, hizkuntzak freskatzen hasiko direnak, gauza berriak egiten eta sortzen hasiko direnak edo dena batera egingo dutenak. Gakoa beti neurria hartzea izaten da, hasi baino lehen ez itotzeko. Ez jarri presiorik zeure buruari, irailan hasi beharrean urrian edo azaroan hasten bazara ere ez dio inporta. Egiten duzuna hori ilusioz, umorez eta gustura egiten duzun bitartean.



**acQrn**  
Quality Language Learning



**Ingeles, frantses, aleman eta euskara ikastaroak**

Helduentzat, gaztetxoentzat eta haurrentzat  
Enpresentzat ikastaroak  
Azterketa ofizialak · Itzulpenak

- Udako ikastaroak atzerrian
- DBH edo Batxilergoa atzerrian
- Unibertsitateak atzerrian
- Boluntariotzak atzerrian

**Matrikulazio epea zabalik eta plaza mugatuak**

Koskontako bidea, 11 behea LESAKA  
©948 637 135 [www.acornlanguages.com](http://www.acornlanguages.com)



**DOJO SEIRYU**  
KICK BOXING, K1 eta  
BRAZILIAN JIU JITSU

**Emakumezko, gizonezko  
eta haurrentzat!**

**21/22 denboraldirako  
matrikulazioa epea irekia**

**Merkatarien karrika, 7 Doneztebe**

**Informazio gehiago 651 744 490 edo 608 313 700**





# Hainbat ikastaro izanen dira irailetik aitzinera

Frantsesa edo ingelesa ikasteko ez ezik, komunikazio digitalean, askotariko lanetan edo ostalaritzan trebatzeko aukera izanen dute

## TTIPI-TTAPA

Nafar Lansareren eskutik, hainbat ikastaro izanen dira Elizondon, Donezteben, Lesakan eta Lekarozen irailetik aitzinera.

### Frantsesa ikasteko aukera Elizondon

Irailaren 7tik urriaren 4ra 10:00etatik 12:00etara 40 orduko frantses ikastaroa izanen da Arizkunenea kultur etxean. Hutsetik hasiko dira eta, oinarrizko komunikazio gaitasunak landuko dituzte.

### Askotariko lanetarako ikastaroa Alkaiagan

Irailiko bigarren astean, hilaren 13an, askotariko lanetarako ikastaroa hasiko dute Alkaiagan. AGEFOR enpresaren eskutik, parte hartzaileek kargarako eta garraiorako beharrezkoak diren gaitasunak eta edukiak, biltegitzeari dagozkionak, arriskuen prebentzioa... landuko dituzte. Urriaren 4ra arte 09:15etik 14:30era elkartuko dira, Alkaiaga industrialdean.

### Ingelesa Donezteben

Irailaren 14tik abenduaren 21era, astearte eta ortzegunetan, 09:30etik 11:00etara ingeles saioak izanen dira Donezteben. Ikasleak B2 maila lortzeko prestatuko dira.

A2 mailaren bueltan dabilzanek ere izanen dute aukerarik. Egun beretan, astearte eta ortzegunetan, elkartuko dira 11:00etatik 12:30era.

### Komunikazio digitalean trebatzeko eta zerbitzarien

lanaren nondik norakoak lantzeko ikastaroak Lekarozen Komunikazio digitalean trebatu nahi dutenendako 30 orduko ikastaroa izanen da irailaren 20tik urriaren 1era 09:15etik 12:30era Lekarozko aterpean. 30 orduz Internet bidezko komunikazioa, telelana, tresna digitalak... landuko dituzte. Horrez gain, irailaren 21etik azaroaren 26ra

zerbitzariarentzako ikastaroa izanen da 09:15etik 14:30era.

### Izen-ematea

Ikastaro hauetakoren batean izena eman nahi dutenek edo horietakoren bati buruzko informazio gehiago eskuratu nahi dutenek Nafar Lansareren webgunera jo dezakete. Urritik aitzinera aukera gehiago ere izanen dira.

**INBERTSIO-FUNTSAK**

**Zure izenaz deitzen zaitugu**

Rural Kutxan, badakigu nola deitzen zaren eta zer behar duzun.

**Marcela**

MARCELA IRUÑEKO LIBURU-DENDA BATEN JABEA DA

Horregatik, zure izaerara eta gauzak egiteko zure modura hobekien egokitzen den inbertsio-funtsa eskain diezazukegu.

**Zure izenera.**

Inbertsio-funtsetan, ez inbertitutako kapitala, ez errentagarritasuna ez daude bermatuta. Funtsetan egindako inbertsioen balioa merkatuen gorabeheren mende dago.

Informazio hau komertziala da, eta ez da inolaz ere eskainita. Harpidetza-gomendioa edo inbertsio-erakundearen bidezko erabakia hartu aurretik kontsultatu beharrezko dokumentazioa. Funtsetan inbertsion egiteko erabakia zure erabakia da. RURAL KUTXA, CAJA RURAL DE NAVARRA, BANCO COOPERATIVO ESPAÑOL.

**CAJA RURAL DE NAVARRA**

## Eskola eremuko estalpea eraikitzen irailean hasiko dira

Alkateak adierazi duenez, urte bukaerarako prest izatea espero dute

### TTIPI-TTAPA

Nahi baino beranduago, baina azkenean irailean hasiko dituzte eskola eremuko estalpea eraikitzeko lanak. Hala baieztatu dio Mikel Zabaleta alkateak TTIPI-TTAPARI. «Nafarroako Gobernuko prozedura luzatu» izana izan da atze-

rapenaren arrazoia, eta irailean hasita «urte bukaerarako prest izatea espero» dutela gaineratu du. Apeztexea Anaiak izan da deialdira aurkeztu den enpresa bakarra eta hala, okerrik ez bada, bera izanen da estalpea eginen duena.

## Stock azoka, dantzarien saioa eta txarangaren emanaldia asteburuan

### JUAN MARI BARRIOLA

Larunbatean, irailaren 4an, Kaxkabeltza elkarteak antolatuta, stock azoka izanen da 10:00etatik 20:00etara plazan. Ez da eguneko hitzordu bakarra izanen, Aurrerako dantzariak ikuskizuna emanen baitute 19:30ean. Eguraldiak la-

guntzen badu plazan bilduko dira eta txarra baldin bada Herri Aretoan. Igandean, Incansables txarangaren doinuez gozatzeko aukera izanen da, 12:00etan plazan. Eguraldi txarra baldin bada Herri Aretoan ariko dira. Irailaren 19an, bestalde, Talo Eguna izanen da.



ATEKABELTZ GAZTETXEA

## Gaztetxearen urteurreneko ospakizunak

Ateak hamasei, sardina bakalau lelopean Atekabeltz gaztetxeko lagunek ederki ospatu zuten gaztetxearen hamaseigarren urteurrena. Afari autogestionatua, brindisa, frontenis txapelketa, poteoa, urteurreneko antzerkia, kontzertua... Giro ederrean ibili ziren.

## 79 lagunek eman dute izena pilota eskolan

### TTIPI-TTAPA

Udako geldialdiaren ondoren, Aurrera Pilota Eskolak irailean abiatuko du ikasturtea. 79 pilotarik eman dute izena eta hamar taldetan banatuta eginen dituzte entrenamenduak, talde bakoitzak astean ordubeteko bi saio. Astelehenetan eta asteaz-

kenetan elkartuko dira batzuk, eta astearte eta ostegunetan besteak. Txapelketei begira eretxeruz buruko eta binakako txapelketak antolatzeko asmoa dute, Larraun eta Umore Ona pilota eskolekin. Banakakoa, esaterako, hilaren 10ean hasiko da.

## Plazako XXVIII. Pilota Txapelketako partidak ederrak

### TTIPI-TTAPA

Abuztuaren 6an borobildu zuten XXVIII. Plazako Pilota Txapelketa. Gaztetxoen artean lau partida jokatu zituzten eta Mikel Iriarte antolatzaileen arabera «partida ederrak» izan ziren A. Alkorta-A. Olaizolak, E. Bidart-J. Vicentek, A. Zabaleta-O. Alkortak, O. Zabaleta-A. Iturriñok, A. Ugartemendia-A. Zubillagak, H. Sagastibeltza-G. Zabaleta, X. Telletxea-E. Mateorenak eta E. Bidart-J. Sagastibeltzak jokaturakoak.

Ondoren hirugarren eta laugarren postuetarako lehia jo-

katu zuten eta Iriarteren irudiko, «emaitzak erakusten ez duen partida lehiatua» jokatu zuten Iñaki Alduntzin eta Unai Olanok, Ander Alduntzin eta Antton Abruzaren kontra. 22-8 nagusitu ziren Alduntzin eta Olano. Finala ere «oso gogorra» izan zela dio Iriartek eta horren seinale, «aurreneko tantoak hamar minutu iraun zituen». Azkenean, Hegoi Txoperenak eta Mikel Zabaletak 22 eta 14 irabazi zieten Imanol Urkiola eta Xabier Jaunarenari.

Partiden ondoren sari banaketa egin zuten.



Gaztetxoen bi partidetako protagonistak. MIKEL IRIARTE

## Kultur teknikaria aukeratzeko probak irailaren 30ean egingen dituzte

### TTIPI-TTAPA

Kultur teknikaria hautatzeko prozesuarekin aurrera jarraitzen du udalak. Hamar hautagai aurkeztu dira deialdira eta «guztiek eskatutako baldintzak bete dituztela» argitu du alkateak. Oposizio prozesuarekin aurrera egingez, irailaren 30ean egingen dute azterketa, lehenbiziko proba teorikoa eta gainditzen dutenen artean alde praktikoa, biak egun berean.

Hori horrela, «udazken honetan kultur teknikaria izanen dugula» dio du Zabaletak, eta

«berarekin batera Herri Aretoko kultur agenda programatuko dugu». Kultur eskaintzaz eta ekitaldiak sustatzeaz arduratuko da teknikaria eta horrekin batera, «herriko hainbat eragilerekin elkarlana indartzea» dute helburu.

### Antzoki Sarera begira

Hala ere, ez da udalak esku artean duen proposamen bakarra. Nafarroako Antzoki Sarean ere sartu nahi du udalak eta «Leitza sare horren parte izateko eskaera egingen dugu».

## Asteburu bakarrean bi txapel eskuratu ditu Agirrek

### TTIPI-TTAPA

Ez da nolanahiko uda izan Iera Agirre pilotarientzat, plazan gozatzeko aukera izateaz gain, hainbat garaipen eskuratu baititu. Horren erakusle, asteburu bakarrean bi txapel etxeratu zituen: Getariako IV. Elkano Pilota Saria eta Gasteizko I. Masterra. Txapelekin eta «udan erakutsitako mailarekin pozik» dagoela aitortu du, baina «arantzaxoa» gelditu omen zaio «Plazaz Plazako finalerdia galdua. Finala Leitza izanda bertan egotea polita izanen litzateke, baina beti ezin da».

Bestalde, udan Ados Pilotak izan duen erantzunarekin ere «oso pozik» mintzatu da, «batik bat Plazaz Plaza txapelketak izan duen jarraipenarekin. Jende asko ekarri dugu plazetara eta hori zen asmo nagusia».

Hortik harago, denboraldi berriari begira «gogotsu» sumatu dugu eta «Ados pilotak emandako baliabide berriak aprobetxatuz kantxan hobetzea» du helburu. Kantxatik kanpo, berriz, argi utzi du «Ados pilota bultzatzen jarraituko dugula, pixkanaka-pixkanaka jarritako helburuak betetzeko».

## Auzolanean mendia garbitu dute Areson

Abuztuaren 21ean auzolan deialdia egin zuen Aresoko Udalak. Hirumugarrietan (Altzegi) adarrak biltzen aritu ziren eta bukatutakoan gosaria izan zuten udalaren eskutik. Hurrengo asteburuan ere hasitako lanekin segitzeko asmoa zuten.

## Hobekuntzak Aresoko udal eraikinetan

Udaletxean, eskolan eta industriagunean argiak aldatu eta led izatera pasako dira eta eskolako leihoetan segurtasun neurriak betetzeko barruko aldetik baranda batzuk jarriko dituzte. Ikasturte hasierarako prest izanen direla adierazi dute.

## Bertan behera gelditu da Aresoko Mendi Martxa

Momentuko egoera kontuan hartuta ekitaldia atzeratzea erabaki dute antolatzaileek

### TTIPI-TTAPA

Gauzak ongi bidean, iraileko aurreneko igandean egiteko zen mendi martxa, baina zuhurtziaz jokatu eta azkenean bertan behera uztea erabaki dute antolatzaileek. Uztail bukaeran egin zuten herritarrek Kirol Mankomunitateko arduradunarekin bilera eta momentuko egoera epidemiologikoa kontuan hartuta ekitaldia atzeratzea erabaki zuten. Gauzak horrela, 2021ean hamahirugarren edizioa ospatzeko modurik ez dela izango uste du Jose Otermin alkateak.

Nafarroan antolatu ohi diren beste mendi martxa guztiak ere bertan behera gelditu direla azaldu dio TTIPI-TTAPA kirol teknikariak: «jende pilaketa handiak sortzen dira halako egunetan, antolatzeko orduan ere bai... Areson gainera paella izaten da parte-hartzaile guztientzat bukaeran eta hori gaur egungo neurriekin kudeatzea ia ezinezkoa da. Jendeak bukaerara arte eutsi nahi izan dio ekitaldia egin ahal izateko aukerari, baina argi ikusi dute ez zela posible».



JAIONE OLAZABAL

## Garai bateko plaza giroa berpiztuz

Abuztuaren 14an eta 15ean antolatutako ekitaldiekin plaza giroa berreskuratu zen. Izarren ipuinak aditu, zirkuko malabari bihurtu, musikaz gozatu, dantzariak ikusi, Mendialdeko azokan zerbait erosi... urteroko festen mailako ospakizunik izan ez bazen ere, ederra izan zen eta herritarrek gozatu zuten.

## «Entrenatzen eta hobetzen jarraitzeko motibazioa behar da»

HODEI LUJANBIO MENDI LASTERKARIA

### TTIPI-TTAPA

«Oso pozik». Uda aurreko denboraldia borobilduta halaxe dago Hodei Lujanbio mendi lasterkaria. Eta badu hala egoteko arrazoirik, Navartrail Kopa irabazita, «urteko helburu nagusia ongi bete» duelako eta «emaitza bikaina» lortuta, gainera.

Kopako bost lasterketetan lortuko emaitza onek eman diote Nafarroako Kopako garaipena herriko lasterkariari, eta «oso balorazio ona» egin du. Antzinen jokaturako Betagarri Trailen laugarren postua eskuratu zuen. «Lehen lasterketa arraroa izan zen. Nafarroa eta Gipuzkoako muga itxita zegoen eta lasterketara federatua nagoelako joan ahal izan nintzen, baina beti lagun izaten dudan bikotea gabe...». Edozein kasutan, «gustura» gelditu zen laugarren postuarekin eta hor-

tik aurrerakoak hobeak izan ziren: Leringo lasterketan bigarren egin zuen eta Andosilla, Zarrakaztelu eta Faltzesko lasterketetan aurrenekoa sailkatu zen.

### Urteko helburua

Kontatu duenez, «urte hasieran, Covid-19agatik oraindik lasterketa askorik ez zegoenean, Nafarroako Federazioak kopa hau antolatu zuela ikusi nuen, eta urteko helburutzat hartu nuen, bost lasterketekin mar txotik abuztura lehiazteko aukera emanen zidalako eta entrenatzen eta hobetzen jarraitu ahal izateko motibazio bat behar izaten delako».

Navartrail Kopa irabazita denboraldi bukaeran eginen den Atletismoaren Galan hartuko du garaikurra Lujanbiok, eta hori datorren urte hasieran izanen da, Iruñean.



Lujanbio, abuztuaren 7an Nafarroako Selekzioarekin La Palman egindako lasterketan.

### Selekzioarekin

Baina beste ate bat ere ireki dio kopairabazi izanak: «2022an Nafarroako Selekzioarekin Espainiako Autonomia Erkidegoen Trailrunning Txapelketara joateko txartela eskuratu dut». Ez hori bakarrik, «kopan lortzen ari nintzen emaitzak ikusita, Espainiako txapelketa horren aurtengo ediziora joateko deitu zidaten eta bi aldiz selekzioarekin aritzeko aukera izanen dut». Aurtengoa abuztuaren 7an egin zuen La Palma uharterko (Kanariak) Reventon El Paso lasterketan: «Esperientzia ezin hobea izan zen eta gainera oso postu onak lortu genituen, selekzioarekin zazpigarren eta pertsonalki 21. postuan».

Bistan da ez dagoela geldirik egoteko, eta «abuztuaren aste pare bateko atsedena» hartu badu ere, irailean eta urrian beste hitzordu batzuk ditu begiz joak: «Axari Trail, Gorbeia Suzien... Urtea bukatzeko, urriaren 17an, Malagan, Espainiako Klubaren arteko Trainrunning Txapelketara joanen naiz. Taldeko batzuk animatu gara eta lehenengo aldiz klubarekin Espainiako txapelketa batean izanen naiz».

Horren ondoren bai, «mendiko lasterketetan atsedena» hartuko duela aitortu du Lujanbiok. Hala ere, ez da denboraluzerako geldialdia izanen, laster «datorren urtea planifikatzen hasteko» asmoa baitu.



FELIX LOIARTE ETA IGARATZA APEZETXEA

## Udako kultur ekitaldiak giro ederrean

Aurtengoa ere ez da ohiko uda izan, baina herritarrek hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera izan dute; besteak beste, ur txirristaz, Tio Teronen Semeen ikuskizunaz eta Maialen Lujanbio eta Jon Maiaren bertso saioaz.

## Anbulantzia berria suhiltzaileen parkean

Larrialdi kasuak artatzeko ambulancia berria dute suhiltzaileen parkean. Aurrekoari erabiltzeko epea bukatu zitzaionez, Nafarroako Gobernuak Nabaskozetik ekarri du. 2026ko abuztura arte herrian izanen da.





Ramon Huizi abuztuaren 16ko elizkizunean bertsoetan. XABIER ETXARRI

## 40 urteren ondoren berriz kanpai hotzak San Roke ermitan

Donostiako komentu batetik ekarri eta herritarrek ermitan jarri dute kanpaia. Orain dela 40 urte lapurtu zutenetik gabe egon da

### TTIPI-TTAPA

Donostiako Intxaurren bizi diren Joxe Manuel Alzuri eta Joxemari Zabala herritarrek beste keinu bat egin diote San Roke ermitari. Bere garaian, ermitako bankuak ekartzeko bidea egin zuten eta orain duela 40 urte lapurtu zutenetik kanpairik gabe zegoen ermitara kanpaia ekarri dute.

Halaxe kantatu zuen Ramon Huizi bertsolariak abuztuaren 16an ermitan egindako elizkizunean, eta horrekin batera, «gure lehengoek hemen ermita altxatu eta zuzendu» zutenetik «herri osoak» ermitan egindako lana nabarmendu zuen bertsoan: «zorionez bada ermita zeinek mantendu».

### Donostiatik Aranora

Alzurik eta Zabalak Donostiatik ekarri dute kanpaia,



San Roke ermitako kanpaia. UTZITAKOA

hustekoa zen Intxaurren komentu batetik, hain zuzen. Joxan Ruiz alkateak azaldu duenez, «opari hartu» dute, eta udalaren baimenarekin herritarrek jarri dute.

## Udalak eta TTIPI-TTAPA Fundazioak lankidetzara hitzarmena sinatu dute

### TTIPI-TTAPA

Udalak eta TTIPI-TTAPA Fundazioak sinatu duten lankidetzara hitzarmenari esker, udalak 638,55 euroko dirulaguntza emanen dio 2021ean fundazioari hala nahi duten Arano-ko etxe guztietara TTIPI-TTAPA aldizkaria bidaltzeko. Gisa honetara, «euskararen erabilera indartu eta sustatu» bidenabar, «herriko eta eskualdeko albisteak, tokiko gizarte bizitza eta kultura adierazpenak» zabaltzen lagundu nahi du, eta udalaren ustez «herriarrentzat interesgarriak diren edukiak gizarteratu eta hedatu».

### Gaur egun 44 aldizkari

Aurretik ere, udalak urtero dirulaguntza eman dio TTIPI-TTAPA Fundazioari interesa izan duten aranoarrek etxean



638,55 euro eman ditu udalak.

TTIPI-TTAPA aldizkaria hartzeko. Gaur egun, Arano-ko 44 etxetara eramaten da hamabostero TTIPI-TTAPA eta zeregin horretan laguntzeko da 638,55 euroko laguntza. Hemendik aurrera, alabaina, legeak behartzen dituen eskakizunekin betetzeko, aspalditik datorren elkarlanari lege-forma ematea hobetsi da eta lankidetzara hitzarmena sinatu dute udalak eta fundazioak lehen aldiz.



JOXAN RUIZEK UTZITAKOA

## Txolarre albinoa herrian

Ikusmin handia sortu du herrian agertu den txolarre albinoak. Izan ere, txolarreak ohikoak badira ere, albinoak gutxitan ikusten baitira. Abuztu erdialdera Jabier aguazilak ikusi zuen eta herritarrek Aranzadi Zientzia Elkarteak pasatu zieten abisua. Haiek berretsi zuten txolarre albino dela.

### Panelak

Aluminiozkoak, PVCzkoak...

#### INFORMAZIO GEHIAGO:

LESAKA · Tel: 948 63 54 58

kulturkari@ttipi.eus · [www.kulturkari.com](http://www.kulturkari.com)



**ALUMINIOA**  
Sandwich panelak  
Arinak eta iraunkorrak  
Koloretan



**PVC**  
Forex panelak  
Arinak eta iraunkorrak  
Koloretan



**METAKRILATO**  
Gardenak eta opakuak  
Lodiera: 4 eta 10 mm  
Koloretan

## (H)ilbetza egitasmoak irailean izanen du segida

Irailaren 18an mahai-ingurua izanen dute, Elixabete Garmendia eta Andu Lertxundiren eskutik

### TTIPI-TTAPA

Euskal Nobela Beltzaren As-tearen antolatzaileak udan ere lanean aritu dira, irailerako eta azarorako hitzorduak prestatzeko. Hala, irailaren 18rako mahai-ingurua antolatu dute. Pandemia eta literatura uztartuko dituzte, helburua «probetxuzko zerbait ateratzea» dela erran dute. Elixabete Garmendia eta Andu Lertxundi izanen dira mahai-inguruko partaideak eta gidari lane-tan Danele Sarriugarte ariko da. Azaroan, berriz, Leire Ituarterekin zinema beltza eta



generoari buruz solastatuko dira. (H)ilbeltzako lagunek xehetasun gehiago emanen dituzte datak hurbildu ahala, baina jendeari hitzorduak agendan apuntatzeko eskatu nahi diete.

### Artisautza eta elikagaien azokak irailean

Inguruko artisau eta nekazari-erri eskutik, mimoz egin eta ekoiztiko eskulan eta produktuak erosteko aukera izanen da irailean Elizondon. Hilaren 4an, 11n, 18an eta 25ean, larunbat goizetan, herriko plazan izanen dituzte azokak.

### Ardi ilea uzteko azken eguna irailaren 15a

Baztandarrek ardi ilea askapen uzten ahal dute eta berriki jakinarazi dutenez horretarako azken egunak dira. Irailaren 15era arteko epea dute eta informazio gehiagorako [hondakinak@baztan.eus](mailto:hondakinak@baztan.eus) helbidera edo 667 80 85 39ra idatz dezakete.



VALLEDEBAZTAN.COM

### Ornoz-Mugairi dantzan ez bestetan

Eskualdeko herri aunitzetan bezala, Oronoz-Mugairin abuztuan ospatzekoak zituzten bestak bertan behera utzi zituzten. Edozein modutan, keinu ttikiren bat izan zuten eta dantzariak girotutako saioari eta erraldioen harat-honatei esker dantzan paratu zuten herria.

### '1922-1936 Amaiur' erakusketa Arizkunenean

Memoria historikoa ardatz duen 1922-1936 Amaiur erakusketako ateak zabalik daude historiak eta bisitari guztiendako. Nahi duen orok irailean Elizondoko Arizkunenea kultur etxean bisitatu ahal izanen duela adierazi dute.

### Sobrinoren ikasleen lanak ikusgai hurrengo astean

Irailaren 6tik 12ra, hau da, astelehenetik igandera, Tomas Sobrino margolariaren ikasleen eskutik, pintura erakusketa izanen da Elizondoko Arizkunenea kultur etxean. Ikasleen abilezia ikusi nahi dutenek lehenbiziko solairuan izanen dute aukera.

**BRIKO**  
**LIMPIEZA, SL**

MOTA GUZTIETAKO GARBIKETAK:  
etxeak  
landetxeak  
lokalak  
komertzioak  
enpresak  
...

**konfidantzazko zerbitzua**

T. 608 016 052  
San Andres, 66 · NARBARTE  
(Sarrera Legasatik)

**asegi asesorías**  
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

**www.zergalan.es | zergalan@asegi.es**  
**www.asegi.com**

Baztanberri plaza, 6  
31700 ELIZONDO  
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1  
31780 BERA  
T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22  
31740 DONEZTEBE  
T. 948 450 395 · F. 948 451 304



Abenduaren 15ean, ez bestetan, egin zuten txapelketa. VALLEDEBAZTAN.COM

## Juan Miurak irabazi du Amaiurko XLV. Artzain Zakurren Txapelketa

### TTIPI-TTAPA

Aurten ez dute Amaiurko bestarik ospatu, baina hainbat ekitaldi prestatu dituzte seinala egiteko; 'Nafarroa 1521-2021' txistularien kontzertua izan zuten abuztuaren 13an, artisauen azoka eta Baztan Kantuz hilaren 15ean. Egitaraua arratsaldeko artzain zakurren txapelketarekin borobildu zuten.

Segurtasun distantziak mantenduz eta neurri guztiak hartuz, jendetza bildu zuen txapelketa eta hamaika artzain eta zakurrek parte hartu zuten bertan.

Juan Miura Heletako artzaina, Elizondoko Urruska bordan sortua, izan zen irabazlea bertze behin Lukzakurrekin, 345 puntu lortuta. Hazparneko Gilles Etxegoien eta Gauda izan ziren bigarrenak, hiru probetan 308 puntu lortu zituztenak. Iholdiko Michele Axeritogaraik, lehiaketako emakume bakarrak, hirugarren postua lortu zuen Izar zakurrekin.

Sari banaketan Joxe Mari Istilart *Bordaxuri* omendu zuten, txapelketan parte-hartzailea izan ohi zen artzain amaiurtarra.



UTZITAKOA

## Kantuz Amaiurtik Elizondora

Abuztuan Amaiurren egindako hitzorduaren ondoren, irailaren 19an Elizondon izanen du geldialdia Baztan Kantuz egitasmoak. Musikari eta kantuzaleak plazan bilduko dira 12:00etan eta ordubetez herrian barna ibiliko dira karririk giotzen.

## Txirrindulariak entrenamenduetara berriz ere

Entrenamendurik egin ez duten arren, udan bateko eta bertze lasterketetan ibili dira Baztandarra taldeko txirrindulariak. Abuztu bukaeran Lizarran ibili ondoren, orain, irailan, ilusio eta gogo handiz prestaketa lanak berrartuko dituzte.

## Iruritako dantzarien saioa irailaren 25ean

Iruritako dantzarien elkarteak antolatuta, dantza emanaldia izanen dute irailaren 25ean, larunbatean, herrian. Aitzinetik eserlekuak erreserbatu beharko dira. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, informazioa [www.iruritakodantzariak.info](http://www.iruritakodantzariak.info) webgurearen bidez zabalduko dute.



FERNANDO ANBUSTEGI

## Amaiurko pilota txapelketa

Amaiurko bestarik ospatu ez izanagatik, pilota txapelketa jokatu zen. Umeen mailan, Mattin Rekaldek eta Julen Agestak 18-12 irabazi zieten Urko Azkarragari eta Egoi Otxandorenari. Kimuen mailan, Etxahun Goienetxek eta Gaizka Zubietak 18-15 hartu zituzten mendean Oier Elorgar eta Oihan Irigoien.



UTZITAKOA

## Ibilgailu elektrikoek tokia egin diete

Baztango Udalak ibilgailu elektrikoak kargatzeko tokia egokitu du Elizondoko Foruen Plazan. Udalaren eskaerari erantzunez, Nafarroako Gobernuak diruz lagundu du eta horrelako guneak egokituz, eraginkortasun energetikoa hobetu nahi dute.



Artearen esperimentazio tailerra eta plastika lantegia izanen dira aukeren artean.

## Udazkeneko ikastaroetarako izen-ematea zabalik

Irailaren 17ra arte eman dezakete izena Arizkunenean edo 948 58 12 79 telefonoan

### TTIPI-TTAPA

Baztango Udaleko Kultura Batzordeak antolatuta, urritik aitzinera hainbat ikastaro paratuko dituzte martxan Baztanen. Hala, parte-hartzaileek antzerki jolasa, gaita eta atabala, artearen esperimentazio tailerra eta plastika lantegia izanen dituzte aukeran.

### Antzerki jolasa

14-15 urtetik goitikoendako antzerki jolasa tailerra urriaren 5ean abiatuko dute. Astearteetan 19:00etatik 21:00etara izanen dira saioak eta gutxienez sei lagunek eta gehienez hogeik eman beharko dute izena. Saioak Arizkunenean izanen dira eta Baztanen errol-

datuek 42 euro era erroldatu gabeek 56 ordaindu beharko dituzte. Josune Gorostegui gidari dela bilduko dira.

### Gaita eta atabala

Hasiberri eta arituendako gaita eta atabala saioak ere urriaren abiatuko dituzte. Atabala jotzen ikasi nahi dutenek gutxienez sei urte behar izanen dituzte eta hamar urtetik goitikoek gaita ikasteko aukera izanen dute egun eta ordu berean Arizkunenean. Atabala ikasteko Shanti Diaz Carmona izanen dute irakasle eta gaitariak Tomas Diaz Peñalva gidari dutela bilduko dira. Urriaren 2an hasita larunbatetan 09:00 eta tik 10:30era eginen dute hitzordua eta Arizkunenea izanen dute bilgune. Erroldatuek 90 euro eta erroldatu gabeek 120 ordaindu behar dituzte.

### Artearen esperimentazio tailerra

Gaur egungo artea gehiago ulertzeko eta XX.mendeko mugimendu eta artistak ezagutzeko zortzi saio eginen dituzte urriaren 8tik aitzinera ortzegunetan. Haur eta gaztetxoek 16:30etik 18:00etara eta helduek 18:00etatik

19:30era izanen dituzte saioak. Erroldatuek 36 euro eta erroldatu gabeek 48 ordaindu beharko dituzte.

### Plastika lantegia

Azkenik, Sonia Iltzarbe eta Eneko Perez irakasleekin bartz eta hamaika urte bitarteko haurren familiendako plastika lantegia izanen dute azaroaren 6an, 13an, 20an eta 27an. Larunbatetan 17:30etik 19:00etara Arizkunenea kultur etxean bilduko dira. Taldea osatzeko, gutxienez zortzi eta gehienez hamabi lagun beharko dira. Izena emateko erroldatuek 30 euro (bi lagun) edo 40 euro (hiru lagun) ordaindu beharko dituzte eta erroldatu gabeek 40 (bi lagun) edo 60 (hiru lagun).

### Izen-ematea

Parte hartu nahi dutenek irailaren 13tik 17ra, astelehenetik igandera, bitarteko epea izanen dute izena emateko. 07:30etik 15:00etara Arizkunenea kultur etxean edo 948 58 12 79 telefonora deituz egin dezakete. Informazio gehiago eskuratzeko [kultura@baztan.eus](mailto:kultura@baztan.eus) helbidera ere idatzi ahal izanen da. Matrikularen arauak udalaren webgunean daude eskura.

## Artearen Ibilbideko zenbait erakusketa ikusteko aukera zabalik da oraindik

### TTIPI-TTAPA

Artearen Ibilbidea azken txanpan da dagoeneko. Tomas Sobrinoren eta Fernando Gorostidiren pintura erakusketak irailaren 5era, igandera, arte bisitatu ahal izanen dira. Bata zein bertzea Elizondoko Arizkunenea kultur etxean daude.

Sobrinoren lanak astegunetik 18:00etatik 21:00etara eta larunbat eta besta egunetan goizez 11:30etik 13:30era bisitatu ahal izanen dira. Gorostidirenak, berriz, astegunetik 18:00etatik 20:30era eta asteburuetan goizez (11:30etik

13:30era) zein arratsaldean (18:00etatik 20:30era).

Xabier Soubeletek Arizkun duen erakusketa irailaren 15era arte luzatuko da. Ortzegunetik igandera 12:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara dago zabalik.

Azkenik, Jose Luis Alzugarrairenean lanez gozatu nahi dutenek Elizondon (Jaime Urrutia, 3, behe) dute aukera. Asteazkenetik ortziralerara 18:30etik 20:30era eta asteburuetan 12:00etatik 13:30era eta 18:30etik 20:30era joan ahal izanen dute.



PAUL ARCINIEGA-PAMPLONA JAZZ

## New Orleanseko aterkiak Elizondon

Elizondoko herriak antolatuta, bartz eta hamahiru urte bitarteko haurrendako New Orleanseko aterkien eta abalorioen tailerra egin zuten abuztu hondarrean Elizondon. Iriarte pilotalekuan bildu ziren aterkiak apaintzeko. Haurrek zein helduek ederki pasatu zuten.





Parte hartu nahi dutenei gonbidapena luzatu diete. PELLO SAN MILLAN

## Rugby taldeak jokalariai behar ditu aitzinera egiteko

Heldu den denboraldia jokatzeko jokalariai aski ez dutela jakinarazi eta parte hartzeko gonbidapena luzatu dute

### TTIPI-TTAPA

Baztan Rugby Taldeak «alerta gorrian» dagoela eta «laguntza» behar duela jakinarazi du. Aditzera eman duenez, aurtengo taldea ateratzeko beharrezkoa den jokalariai kopurura ez dira ailegaten eta hortaz, parte hartu nahiko luketenei edo norbait ezagu-

tzen dutenei animatzeko deia egin die taldeak. Prest daudenek bi bide dituzte izena emateko: Instagram bidez @brtmenditarrak kontura idatziz edo BRTekin kontaktua duen edozein jokalariai edo entrenatzailearekin harremanetan jarritz: «animatu eta parte hartu!».



Nafarroako Gobernuako ordezkariak Baztangoekin bildu ziren. TTIPI-TTAPA

## Mendiolako sarrera irteera-mantentzea eskatu dute berriz ere almandoztarrek

### TTIPI-TTAPA

Tunelen bikoizketaren proiektua baztertzea eskatu zuen Almandozko herriak uztailen «Belateko eta Almandozko tunelen bikoizketaren aurre-proiektuak kanpoan uzten duelako Mendiolatik N-121-A errepidera dagoen sarrera, baita bertako auzotarrak ere». Abuztuan Nafarroako Gobernuako Herri-Lanen zuzendari Nagusia, Pedro Lopez; Ciriza Kontseilaria, Joseba Otondo Baztango alkatea eta Florentino Goñi zinegotzia bildu ziren Pello Sarratea Almandozko alkatearekin eta bertako herri-

tarrekin. Alkateak gobernuko arduradun politikoen bisita «eskertu» zuen, baina aldiberean «Mendiolako bizilagunen eskaerak» kontuan hartzeko eskatu eta «N-121-A errepidean Mendiolatik dagoen sarrera mantentzea espero» duela adierazi zuen. Irailean jasoko dute Herri Lanetako Departamentuaren erantzuna. Gaineratu zuenez, N-121-A errepidean azken urteetan «hobekuntza lanak egiten ari dira». Tunelen bikoizketaren proiektu hau, ordea, «gibelera pausoa» izanen litzatekeela azpimarratu nahi izan du Sarrateak.

**OTEIZA**  
ARKITEKTOAK

Apote Karrika 8 (Maskonea)  
31730 - Irurita (Baztan)

Askatasunaren H. 7 - 7ºE  
20004 - Donostia

DESIGNER  
CERTIFIED  
PASSIVE HOUSE  
DESIGNER

665 71 56 96 - 943 42 52 43  
www.oteizaarquitectos.com

oteizaarquitectos

**CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE**  
abokatu

Dibortzioak, herentziak,  
alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818  
Santiago, 59 2C ELIZONDO

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ  
T. 948 452 143 · 948 452 449  
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.  
TALDEA DE CÁMERA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN  
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

**KATEA BIKE**

Bizikleten salmenta  
eta konponketa.

Kanttonberri, 1 | BERA  
T. 948 631 218  
joxemi@kateabike.com  
www.kateabike.com

SCOTT PINARELLO MASSI MERIDA  
BERGAMONT BH coluer LOOK



Prozesu parte hartzailea «iruzurra» dela dio Erdiz Bizirik plataformak.

## Magnaren proiektuak «berrikuntzarik ez» duela salatu dute

Gobernari «jarduera horiek ordezkatzeko politikak bideratzeko» eskatu diote

### TTIPI-TTAPA

Abuztuaren 3an Magnesitas de Navarra enpresak Erdizen egin nahi duen proiektua aurkeztu zuen Baztango Batzar Nagusian. Erdiz Bizirik plataformak adierazi duenez, «ez du deus berrikuntzarik» eta «orain dela 14 urte bezalaxe, Erdizko parajea suntsitzea ekarriko luke».

### «Herritarren hitza errespetatzeko inongo asmorik ez»

Plataformak adierazi duenez, «bileran herritarren ordezkariak egindako galderak saihestu zituzten eta nabarmen gelditu zen ez dutela inongo asmorik herritarren hitza errespetatzeko». Gainera, «berresten duten prozesu parte-hartzailea iruzurra bertzetik ez dela» salatu nahi izan dute.

Magnak Zubirin dauden 240 lanpostuak defenditzen dutela dio, baina «badakigu multinazional hauen interesa kapitala pilatzea bertzetik ez dela. Sostengarriak ez diren lanpostuak mantentzearen truke, mendez mende eta

etorkizunean gure bizimodua ahalbidetzeko beharrezkoak diren lanpostuak desagerraziko lituzke».

Honez gain, bizi dugun larrialdi klimatikoan Magnesitasen erantzukizuna azpimarratu nahi izan du, «Nafarroan gehien kutsatzen duten enpresen artean egonda». Nafarroako etorkizunean «horrelako enpresen jarduera mantentzeak zentzurik ez duela» adierazi du eta Nafarroako Gobernuari eskatu dio «jarduera horien ordezkatzeko politikak bideratzea lanpostuak mantentzen dituzten bitartean. Ezin da onartu aldaketa klimatikoaren kontra dagoela erratea eta horrelako proiektu suntsitzaileak babestea».

### Ondoko deialdietan parte hartzeko gonbidapena

Erdizko proiektua gelditzen ez badute, «gure esku dauden bide guztiak erabiliko ditugu gure lurra defenditzeko». Herritarrei erne egoteko eskatu die, «heldu diren hilabetetan egingen diren deialdietan parte hartzeko».



20.000 euro inbertituko dituzte. TTIPI-TTAPA

## Elbeteko karrika nagusiko zoladura berritzeko lanak egingen dituzte

### TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Askoko Zubia eta Elbeteko plaza lotzen dituen zatia hobetzeko 20.000 euro inbertituko ditu. Askoko zubitik plazaraino egingen dituzte konponketak, bideak dituen arraildurak konpontzeko asfalto botako dute 236,60 metrotan.

Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako Departamentuak, Toki Administrazio-ko eta Despopulazioko Zuzendaritza Nagusiaren bidez, lankidetzaz hitzarmena sinatu du Baztango Udalarekin, Elbeteko karrika nagusiko zoladura konpontzeko lanak egingeko.



1,20 metroko espaloia egin zuten 147 metrotan. ONDIKOL

## Giltxaurdi karrikako espaloia zabaltzeko lanak egingen dituzte Elizondon

### TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuaren ekonomia sustatzeko inbertsioetarako kapitala transferitzeko ezohiko funtsak finantzatuta, Baztango Udalaren Osoko Bilkurak 173.441,68 euroko inbertsio programa onartu zuen. Onartutako aurrekontu aldaketekin hainbat

inbertsio egingen dira Elizondon, Iruritan eta Azpilikueta. Horren barne, lanetako bat Elizondoko Giltxaurdi zubiarren alde bateko espaloien zabaleraren zabaltzea izan zen. Javier Alzugaray S.L. enpresak 1,20 metroko zabalerako espaloia egin zuten 147 metroko luzeran abuztuaren



90 modulo paratu dituzte Elizondoko eskolan. UTZITAKO ARGAZKIA

## Autokontsumorako eguzki-plakak jarri ditu udalak

Elizondoko eskolako teilatuan 90 modulo paratu dituzte eta 40.801 euroko inbertsioa egin du

### TTIPI-TTAPA

Aurtengo udan haur eskolaren, Elizondoko eskolaren, liburutegiaren eta udaletxearen kontsumo energetikorako eguzki plakak paratu ditu Baztango Udalak Elizondoko eskolako teilatuan, denera 90 modulo. Paratutako eguzki-plakekurtero 37.667 kWh ekoizten ahal dute. Inbertsioa 40.801,81 eurokoa izan da eta bortz urtez amortizatzea aurrirakusten da.

Paratu den sistema elkarbanaturiko autokontsumo ereduak da, horrela, Elizondoko eskolako teilatuko plakek sortutako elektrizitatea udalerriko sare-orokorrean sartzen

da aipatu udalaren eraikinek kontsumi dezaten. Kontsumitzen ez den energia sare-orokorrean isuriko da, merkatuko prezioan. Paratutako sistema sorkuntza fotovoltaikorako plakek, inbertsore fotovoltaikoak eta urrundik monitorizatzeko gailuek osatzen dute. Proiektu honekin burujabetza energetikoan pausoa eman nahi du udalak, negutegi efektuko gas guttiagotzatzen duten elektrizitate ekoizpen sistemak bultzatuz, berriztagarriak direnak, merkeagoak eta ekoizpena eta kontsumoa orekatu dezaketenak elkarbanatutako autokontsumo-ereduaren bidez.

## Baso aprobetxamenduetarako enkanteak eginen dituzte irailaren 8an

### TTIPI-TTAPA

Karrika, Kattalingo eta Eneko-Otamurdiko lepo inguruan eta Basegi eta Iruritarrengo inguruan dauden baso aprobetxamenduak enkante bidez saltzeko prozedura martxan

paratu du udalak. Enkanteak irailaren 8an, 09:00etan hasita eginen dituzte Balleko Etxean eta hasierako prezioak 41.490,55 eta 81.122,57 eurokoak dira, hurrenez hurren (gehi BEZ).



Bertziko Nartur Parkean egin zuten egitasmoaren aurkezpena. UTZITAKO ARGAZKIA

## 'Oihanean sentitu' proiektua aurkeztu du Baztan-Bidasoa Turismo Elkarteak


### TTIPI-TTAPA

Natura arnasteko proposamena eginez, *Oihanean sentitu*. *Bideak bertze ipuin* proiektua jarri du martxan Baztan-Bidasoa Turismo Elkarteak. Shinrin-yoku, (Oihaneko bainuak) praktika japoniarrean oinarritutako proiektua da, eta basoaren eta naturaren atmosferan murgiltzera gonbidatzen du jendea. Helburua ongizatea eta osasuna hobetzea da.

Bertziko Natur Parkean abuztu hasieran egindako aurkezpenean Baztan-Bidasoa Turismo Elkarteko Mikel Albu, proiektuko ipuinak idatzi dituen Amaia Elizagoien ipuin-kontalaria, Nafarroako Gobernuko Turismoaren eta Komerztzioaren Antolaketa eta Sustapenerako Zerbitzuko zuzendaria, Angel Perotxena eta Mikel Calvo ilustratzaileak, Alex Gurrutxaga itzultzailea eta eskualdeko udal ordezkariak izan ziren.

Zientziak frogatu du basoko ibilaldiek gure osasunean onurak dituztela. Bertzeak bertze basoan emandako paseo bategen, estresa, antsietatea, depresioa eta haserrea murrizten ditu, immunitate sistema estimulatu du eta energia maila handitzen du.

Hori abiapuntu bezala hartuta Baztan-Bidasoako Turismo Elkarteak 13 ibilaldiko liburuxka aurkeztu du, bakoitza bere ipuinarekin. Eskualdera



Liburuxkaren azala

datozen bisitariak naturaz gozatzeaz gain eskualdean gertatutako kontakizunak aurkituko ditu liburuxkan.

Ibilbidearen track-ak ipuin bakoitzean dagoen QR kodeetik deskarga daitezke, baita Baztan-Bidasoa Turismoko Wikiloc kontutik ere. *Oihanean sentitu*. *Bideak bertze ipuin* liburuxka 2 euroko prezio simbolikoan dago salgai eta salmentaren dirua gastuak finantzatzera bideratuko da. Eskualdeko OITetan eta Baztan-Bidasoa Turismoa Elkarteko kide diren alojamentu eta zerbitzuetan dago salgai.

## 13 IBILALDI BERE IPUINAREKIN PROPOSATZEN DITU LIBURUXKAK

# «Herriko ttikienek ematen diote bizitza Arraiozi»

**JOXELU RETEGI ITURBIDE** ARRAIOZKO ALKATEA

Hirugarren aldiz, herriko alkatea da Joxelu Retegi agintaldi honetan. Kargudunekin batera, herriko beharrei erantzuteko eta arraioztarren kezka argitzeko ari da lanean, bertzeak bertze, ur-horniduraren eta eskolako arazoak konpontzen

**R. OSKARIZ** | ARRAIOZ

Duela lau urte hartu zion alkatetzaren lekukoa Joxelu Retegik Xotero Etxandiri, eta herria hobetzeko helburuarekin aritu dira lanean geroztik. Orain, bere azken bi urteak eginen ditu karguan, «hau nire azkeneko agintaldia izanen dela pentsatzen dut, heldu den urte akabailan izanen dira berriz ere hautaketak eta hor bukatuko dut ibilbidea».

**Zergatik erabaki zenuen alkate izatea?**

Dozena bat urte dira kargudunen taldean lanean hasi ginenetik. Nire aitzinetik Xotero zortzi urtez izan zen alkate eta gu taldean berarekin egon ginen. Nire txanda izan zen gero, eta bi urteko agintaldiak badira ere, ez dugu aukera gehiagorik izan jendez aldatzeko eta geroztik ni izan naiz alkate.

**Nor dituzu kargudun?**

Herrian laguntzaile aunitz ditugu, baina lau lagun gara kargudunak, Xotero Etxandi, Pantto Laurnagarai, Aritz Alunda eta ni. Zamarik handiena alkateak du baina lanak lauron artean banatzen ditugu eta ongi konpontzen gara. Hila-betean behin juntatzen gara normalean, gehienbat zerbait inportantea heldu denean, nahiz eta laurok beti gauden harremanetan.

**Zeintzuk dira zure ardurak?**

Arraiozen alkatearen lana bi zatitan banatzen da. Lehen-bizikoa uraren kudeaketa da,



Hirugarren agintaldia du aurten Joxelu Retegi Iturbidek Arraiozko alkatetzan.

herrikoek egiten dugu eta lan dezente ematen du. Ur komisioko kargudunak eta lagun pare bat gehiago daude. Bigarren zeregina herriaren ordezkaria izatea da, herritarren kezka eta eskariak udalera eramaten ditut.

**Ur eskasiaren kontua argitzen aritu zarete...**

Bai, aspaldiko afera da urarena. Gaizki ibili gara, eskasia baino gehiago, sarean arazoak genituelako. Orain dela 14 urte ur-hornidura berritu zuten, baina nahiko kalitate txarrekoa sartu zuten. Hodiak lehertzen eta aberiak ateratzen hasi ziren eta hori konpontzen ibili gara. Duela urte pare bat Iruritatik bertze hodi berri bat

sartu genuen, errefortzu handia izan dena guretako, eta ur eskasia konpondu dugu horrekin. Hala ere, aberia aunitzek oraindik hor segitzen dute...

**Zer behar gehiago ikusten dituzu herrian?**

Uraren sare osoa konpontzea behar handia da, baina ez da bakarra. Eskola dugu herriko bertze kezka. Zorionez, haur aunitz ditugu herri ttikia izanik, baina eskola deseroso gelditu da. Handitu eta berritu nahi dugu, baita haurrendako psikomotrizitate gela bat egin ere. Eta horrekin ari gara bueltaka, luze izanen da baina eginen dugu.

**Baduzue bertze asmorik?**

Herri ttikietan beti izaten da zerbait egiteko. Baserrietako bideak konpondu nahi ditugu, herrian bertan ere baditugu brea bote nahi dugun bideak... Gainera, 50 urte baino gehiago geldirik egon den lixutegia martxan paratu nahi dugu berriz ere Urrutia auzoan. Pixkanaka ari gara lanean, luze egiten ari zaigu, baina aurten go udazkenerako martxan paratuko dugula uste dugu. Aspaldiko gauza da, gaur egun erabiltzen ez dena, baina lehenagoko bizitzaren oroigarri dugu eta polita da.

**Laster bestak izanen dituzue herrian. Zerbait eginen duzue?**

Bestetako antolakuntza herriko gazteek eramaten dute, baina beti herriaren babesarekin. Aurten ez dugu bestarik izanen bigarren urtez segidan, eta pena da baina herri mailan ez da bazkaririk, afaririk, kontzerturik ez deus antolatuko eta herriarrei ere neurriak hartzeko eskatu nahi diegu. Gazteek hau errespetatuko dutela uste dut, joan den urtean ere ongi portatu baitziren. Laxoa partidaren bat egin nahi dute herritarren artean eta gero afariren bat, baina kopuru ttikian. Ea heldu den urtean normaltasunez ospatzen ahal ditugun.

**Arraioz ttikia izanda, nola ikusten duzu herriaren etorkizuna?**

Herri ttiki guztiei bezala, bizitza ematen diotenak herriko ttikiak dira, haurrak eta eskola. Aipatu bezala, alde horretatik egoera onean gaude. Gazte dezente gelditu dira bertan azken urteotan eta ondorioz haur aunitz ditugu eta etorriko dira. Leku batzuetan herriak husten ari dira baina hemen kontent gaude eta hala segitzea espero dugu.

**Zerbait gehitu nahi al duzu?**

Herritarren borondatea eskertu nahiko nuke, laguntza eskatzen delarik laguntzeko prest egoten direlako. Arraioztar gehiago parte hartzera animatuko nituzke, baina orokorrean jendea etortzen da eta gustura gaude.



Lau Haizetara taldeak jo zuen Andre Mari Egunean. ARGAZKIAK: MARIFA ETA KORO

## Besten seinalea egin dute aurten herritarrek

Hurrengo bestetan segida izan dezakeen bingoa, bertso saioa, ipuin kontalaria eta kontzertua ere izan ziren

### MARIFA ETA KORO

Andre Maritan bestarik ez zela izanen argi genuen, baina badaezpada ere, COVIDa hantxe izan genuen hori ziurtatzeko: gazte gehienek etxean konfinatuak egon behar izan zuten, gutti batzuk positibo zirelako, eta bertzeak horien kontaktuak zirelako. Gurean makurra ez zen ez-besten ondotik etorri, aintzinetik baizik. Gero ikusi zen eritasuna ez zela hedatu, positibo gehiago ez zirelako atera.

Hala ere, ikuskizun batzuk antolatu ziren. Horietako bat, nehoiz egin ez den ekitaldi bat

egin zen plazan Andre Mari bezperan, eta arrakasta politarekin gainera: bingoa.

Haurrek ere beraiendako seinalea izan zuten, eta Andre Mari Eguneko eguerdian, ipuin kontalariarekin ederki pasatu zuten. Arratsaldean, berriz, Sus-trai Colina eta Uxue Alberdi bertsolariak aritu ziren.

Maleruski, herriko Ihintza eta Ione partaide dituen Kili-ma taldeak kontzertua eman beharra zuen 15ean, baina taldekide bat konfinatuta zenez, ezin izan zuten eman. Lau haizetara taldea aritu zen beraien ordean.



Bingoa, bertso saioa eta ipuin kontalaria izan dira aurten.

**IBARDIN**  
31780 Bera

**BEHOBIA**  
20305 Irun

**LUZAIDE**  
31660 Luzaide

**DANTXARINEA**  
31712 Urdax

**EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE**  
\*Abenduaren 25<sup>a</sup> eta urtarrilaren 31<sup>a</sup> izan ezik

www.venta-peio.com / (Fr) 0820 562 267 / (Es) 0034 902 210 800

## Xaretako hiztegia

**Paisola:** Guardasola, euritakoa. **Paltoa:** Gizonezkoen soineta-ko bat, arropen gainetik paratzen den jantzia. **Putsia:** Mahaiak eta bazterrak garbitzeko erabiltzen den oihal bustia. **Paparogorri:** Txantxangorri txoria.

## Udako ekitaldiak arrakastatsuak izan dira

Abuztuaren 21eko tortilla lehiaketan, Iban Blanco, Silvia Olaizola eta Lapitxuri benta suertatu ziren txapeldun

### ARANTXA ETA IRAIA

Urtero bezala herriko etxeak hainbat ekitaldi antolatu ditu uztaileko eta abuzturako. Horietan guztietan jende andana ibili dela aipagarria da. Lehenik eta behin, Niko Etxarthen kontzertuan eta Sergio Harrospideren bakarriketan irri ederrak botatzeko eta musikaz gozatzeko parada izan zuten hainbat lagunek.

Burdinaren Eguna ere arrakastatsua izan zen. Fraileak eta idi gurdiak berriz ere itzuli ziren herrira eta joan den urtean posible izan ez zen antzerkia eta artisau azokak herria bete zuten berriz. Estitxu Pinatxoren kontzertura ere jende franko hurbildu zen.

### 30 tortilla lehiaketara

Akitzeko, abuztuaren 21ean tortilla txapelketa ere egin

zuten. 30 bat tortilla aurkeztu zituzten hiru kategoriatan: estilo tradizionala, librea eta profesionala.

Estilo tradizionalan, Iban Blancok lortu zuen lehen saria eta bigarren gelditu zen Javi Diaz.

Profesionalan, Lapitxuri bentak eraman zuen lehen saria eta Montxo jatetxeak, berriz, bigarrena.

Estilo librean, azkenik, Silvia Olaizola gailendu zen, David Bidaurrenaren tortilla bigarren postuan utziz.

Epaile lanetan Santiago Villares herritarra, Catrine Marchand *La Semaine du Pays Basque* aldizkariko kazetaria eta Francisco Botella Opoca jatetxeko sukaldaria izan ziren. Lehiaketa ikustera hurbildu zen orok izan zuen tortillak dastatzeko aukera.



Tortilla lehiaketako saridunak eta epaimahaiko kideak.



Lehiaketaren aitzinetik dantzariak saioa egin zuten.



UTZITAKOIA

### Haur aunitz ibili da udalekuetan

Bigarren urtez, kirol udalekuak izan dira 7 urtetik goitiko haurrendako. 20 bat haur ibili ziren mendian, bizikletarekin, hainbat proba egiten... Gau batez mendian lo egin zuten. Ttipienak ere herrian barna ibili ziren. 3-7 urte bitarteko udaleku hauetan ere bertze 20 haur inguru bildu ziren.

**BERRI S.L.**  
**TXIMISTINDAR**  
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zalcain Ind., 42 | BERA | T. 948 63 14 52 | 639 60 80 34 | 639 56 59 65

**Montxo**  
JATETXEA • ERRETEGIA  
@asadormontxo

Etxekoak berriz bueltan

- KARTA
- BRASA
- PINTXO BEREZIAK
- PLATER KONBINATUAK
- OGITARTEKOAK
- RAZIOAK

Etxera eramateko aukera

Axular, 12 • Antzanborda • URDAZUBI • Tel.: +34 848 85 00 21



Aroberriko jabeak, Juliette eta Estebe Fagoaga. JL BESSONART

## Ostalaritza pil-pilean dabil uda honetan

Anaiak eta Aroberri ostatu zaharberriak hartu dituzte eta hilabete honetan Gantxiki ere edekiko dute

### JEAN LOUIS BESSONART

Uda honek zombait aldaketa eta berrikuntza dakarzkigu ostaler munduan gure herrian. Hala nola, sasoi aitzin Lasai jatetxea Nerou bi anaiak eskuratu dute eta logikari dago-kion bezala 'Anaiak' izendatu dute. Herriko besten aitzinetik edekirik, buru-belarri lanarilotuak dira eta mementoan pozik dira martxarekin.

Bertzetik, aspaldi honetan denek goaitatzen genuena gauzatu da: Mattintegia, hobeki errateko Aroza, 'Aro-

berri Ostata' bilakatu da. Betiko lege zaharrak berritu behar direlakoan, Estebe Fagoagak berpiztu du senpertar anitzen atseginetan. Oztopo frango gainturik, baita korapilo aunitz urraturik, azkenean jabetza lortu du. Bere ibilbidea eta esperientzia ezagututa, dudarik ez da kementsu lotuko dela lanari. Badakigu Gantxiki hilabete honetan edekiko dela. Emazte gazte batek ordezkatu du Sébastien Tapia, dirudienez, ondokobatean hizpide izanen dugu.

## Elkarteen eguna buruilaren 4an egingen dute Larrekon

### TTIPI-TTAPA

Senpereko elkarten eguna egingen dute buruilaren 4an Larreko gelan. Larunbatean 09:00etan hasita, elkarteek beraien ekintzak publikoan aurkeztuko dituzte eta izena emateko aukera eskainiko dute. Eguerdian aperitifa emanen du herriko kontseiluak. Aurtengoan osasun-pasea nahi-

taezkoa izanen dela jakinarazi du herriko kontseiluak, bai elkarteko kideentzat, baita bisitarientzat ere.

### Ihiztarien mezua

Elkartetik jakinarazi dutenez, ihiztarien karta salketa iraganen da bi larunbatez, buruilaren 4an eta 11n, 15:00etatik 18:00etara, Denen Etxean.

## Andoni Mendy eta Xabi Bereterbide Frantziako txapeldun izan dira

### JL BESSONART

Duela hilabete bat, gure esku-huskako pilotariek, Andoni Mendy eta Xabi Bereterbidek, amore eman behar izan zuten Euskal Herriko txapelketako finalean Makeako bikotearen kontra.

Oraikoa Frantziako txapelaren ondokiz zebiltzan eta ez dute huts egin, Arbonako Adrien eta Nicolas Dufau anaiak garaitu baituzte, 30 eta 17. Aitortu behar da, halere Adrien, axiroin minberatu batekin aritu dela. Dena den, ez du honek koparen diridira

histuko, ongi merezitua dute-lakoan. Xabi ongi ezaguna da pilota plazetan. Orai, aldiz, publikoak Andoniren talentua deskubritu du. Ez dugu ahan-tzi behar, artekoak mailan gure ekipa, Adrien Etxeberri eta Olivier Goienetxe, finalerdietara ailegatu dela. Bertze keinu bat zor diogu Baptiste Lopezi. Honek, gazte mailan, finalean galdu baitu Urruñaren kontu. Bertzeak bertze, kirolari hauek baita trebatzaileek ere gure txaloak har ditzatela. Herrian pilotak etorkizun ederra erakusten du.

## Le Petit Groupe taldearen emanaldia larunbatean Bastid-Etxeberrian

### JL BESSONART

Pierre Bastres herriko semeak betidanik bere gisako ideiak izan ditu ekimen berezi batzuen antolatzeke bere etxeko baratzean, Bastid-Etxeberrian, alegia. Oraikoa ekarriko du du Le Petit Groupe taldea, non aurkituko ditugun hiru emazte kantari, baita hiru musikari ere. Buruilaren 4an, larunbatean, 19:00etatik aitzinera izanen da emanaldia.

Gomita zabaldua da musikazaleei baita arratsalde goxo

bat pasatu nahi duten guzietari ere. Lagunen artean, izpiritu lasai batean, jatekoa eramaten ahal da, gaua luzatuz gero lekuan bertan lo egiten ahalko da. Parte-hartzea dohainik baldin bada ere, bakoitzaren emaitza ongi etorria izanen da.

Lekua erreserbatzeko deitu, Ceciliari: 06 19 06 05 45 edo Pierreri: 06 83 82 98 34.

Etxaldea kokatua da Auberge Basque delakoaren saihe-tsean, ez huts egin.

## Su-Hatsa erakusketa poetiko-artistikoa poesia tailer batekin finitu dute

### TTIPI-TTAPA

Su-Hatsa erakusketa poetiko-artistikoa Larraldean egon da ikusgai agorrilean, Hatsa elkarteak antolatua. Hilabeteke azken igandea izan zen erakusketaren azken eguna, eta poesia tailer batekin finitu zuten.

Auxtin Zamora artista senpertarrak Hatsako kideen

2021eko olerki hautatuei forma eman die, suaren itxuran inspiratutako eskulturekin. Horrela, Su-Hatsa erakusketa sortu dute, olerki eta eskulturrez bete, Larraldean ikusgai egon dena agorrilaren 10etik 29ra. Erakusketaren azken egunean olerki tailerra egin zuten igande arratsaldean, akabera borobila emateko.



Ezker-eskuin, Elizagarai erretorea, Laborde auzapeza eta Cachenaute apezak.

## Larrungo Santa Izpiritu parrokiakoak Lur Berrin bildu dira

Azkaine, Senpere eta Sarako elizetako eginkizunetan laguntzen dutenak agorilaren 20an elkartu ziren

### GANEX

Larrungo Santa Izpiritu parrokiaren Azkaine, Senpere eta Sara, hiru herri horiek barne dira. Cachenaute apezak Azkainean eta Elizagarai erretoreak Senperen, bi apez horiek egiten dituzte hiru herrietako misio guztiak, baina ez dira bakarrik. Herri bakoitzean borondatezko jende aintz badituzte eta beharrik, bertzenaz ez zituzten egiten ahalko bakarrik elizako eginkizun guztiak.

Jende horieri eskerrak emateko, abuztuaren 20an, ortziraletan, Sarako Lur

Berri gelan mahai eder bat (jateko eta edateko) eskaini die deneri parrokiak.

### 120 lagun

120 bat lagun bildu ziren. Elizagarai erretoreak deneri eskerrak eman zizkien, «beharrik hor zaretan gu laguntzeko eta biba zuek», erranez.

Battite Laborde, Sarako auzapezak ere denak eskertu zituen. Herriak eskaini zien aperetifa deneri eta dena izugarritzko umore onean bukatu zen. Senpereko korraletik bazen aunitz eta ederki airostu zuten afaria.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Pilotari gaztetxoak txapeldunorde

Gaztetxoaren mailako Frantziako esku huskako pilota txapelketaren finala jokatu zuten abuztuaren 18an Iholdin. Azkaineko eta Sarako bikoteen arteko lehia azkaindarrak nagusitu ziren: Iban Larzabalek eta Oihan Gonzalezek 30-22 irabazi zieten Manex Etxeberri Pachecori eta Leni Vella Barneixi.



GANEX

## Larrungo koloreak elkartean erakusketa

Abuztuaren 21ean eta 22an Larrungo kolore elkarteak margolarien eta egur zizelkariaren erakusketa egin zuen plazako errebotean. 15 artista baziren beren lan ederren erakusten eta saltzen. Liliane Lyeate lehendakariak denak eskertu ditu, baita Herriko Etxea ere, errebotea uzteagatik.

## Saint Joseph eskolako haurrak ikastetxe berritan hasiko dira buruilean

### GANEX

Uda osoan lanean aritu ondoren, Saint Joseph eskolako haurrak heldu den buruilean eskola berrituarekin hasiko dira. Hasieran aparkalekuko lanak egin zituzten, bai eskolarentzat eta baita gainontzeko herritarrentzat ere.

Peio Iribarren eta Mendione, bi enpresa saratarrak, ari dira lanak egiten. Lehen terrazamenduaz ari da arduratzen, bigarrena hargin lanez. Argazkia uztaile hondarrean ateratakoa bada ere, geroztik aitzina namendu handia egin dute.



Saint Joseph eskola inguruan hainbat lan egin dituzte udan. GANEX



## LAXOA TXAPELKETA



Irurita Miguelene txapeldun eta Arraioz Sagardia txapeldunorde, agintari eta sari-emaleekin. JUAN MARI ONDIKOL

## Iruritik irabazi du Baztan-Errekako 41. Laxoa Txapelketa

9-7 irabazi zion Arraioz Sagardiari abuztuaren 6an Arraiozko plazan jokaturako final ederrean

### TTIPI-TTAPA ARRAIOZ

Arraioz Sagardia taldeari 9-7 irabazi zion Irurita Miguelenek final luze eta politaren ondotik. Jende aunitz hurbildu zen Arraiozko plazara abuztuaren 6an Baztan-Errekako 41. Laxoa Txapelketako finala ikustera. Ia hiru orduko partidaren ondotik irabazi zuen Irurita Mi-

guelenek aurtengo txapela. Iaz, kopa sistemarekin jokatu zen txapelketako finala erreplikatu zen leku berean, baina aldi honetan Iruritik errebantxa hartu zuen.

Arraiozen etxean jokatu arren iruritarrek ez ziren kikildu eta konfiantzarekin atera ziren finala jokatzera. Final orekatua

izan zen eta azkenean bederatziko jokoetara iritsita Xabi Barberenak, Gorka Urtasunek, Jagoba Ramosek eta Egoitz Primek jantzi zuten txapel preziatua. Arraioztarrek, Mikel Mindegia, Xabier Mihura, Miguel Maritorea eta Jon Gamiok osatutako taldearekin, bigarren postuko garaikurra jaso zuten.

Hirugarren posturako partida jokatu zuten Doneztebe Apeztegia eta Oiz taldeek. Doneztebeko laukoak, Jon Apeztegia, Ramontxo Etxebeste, Joseba Juanena eta Ibai Santestebanek, lortu zuen hirugarren postua. 9-7 irabazi zion Oizko taldeari, Aimar Saldias, Ioritz Zelaieta, Laurendi Zelaieta eta Iker Bereauri.

### TXAPELDUNAK

1980	IRURITA
1981	DONEZTEBE
1982	DONEZTEBE
1983	OIZ
1984	OIZ
1985	DONEZTEBE
1986	DONEZTEBE
1987	DONEZTEBE
1988	OIZ
1989	DONEZTEBE
1990	OIZ
1991	IRURITA
1992	DONEZTEBE
1993	IRURITA
1994	DONEZTEBE
1995	DONEZTEBE
1996	DONEZTEBE
1997	DONEZTEBE
1998	DONEZTEBE
1999	ARRAIOZ
2000	DONEZTEBE
2001	ARRAIOZ
2002	IRURITA
2003	DONEZTEBE
2004	IRURITA
2005	DONEZTEBE
2006	DONEZTEBE
2007	IRURITA
2008	DONEZTEBE
2009	ARRAIOZ
2010	IRURITA
2011	IRURITA
2012	IRURITA
2013	DONEZTEBE
2014	DONEZTEBE
2015	IRURITA
2016	IRURITA
2017	IRURITA
2018	DONEZTEBE
2019	IRURITA
2020 <sup>(1)</sup>	ARRAIOZ
2021	IRURITA

(1) Kopa sisteman jokaturia

## Doneztebe Ck irabazi du gaztetxoaren txapela

Abuztuaren 13an jokatu zen Doneztebeko Behar-Zana pilotalekuan gaztetxoaren laxoa txapelketako finala. Doneztebe Ck (Koteto Ezkurra, Lander Arozena, Lukas Ezkurra eta Ekai Elortza) 9-2 irabazi zion Doneztebe Ari (Jon Larunbe, Javier Zabala, Iker Anzizar eta Ibai Elortza). Hirugarren posturako lehian, Irurita Bk 7-4 irabazi zion Irurita Ari.



Doneztebe eta Iruritako jokalariek gaztetxoak, sari banaketaren ondotik. UTZITAKO ARGAZKIA



Baztango Udalaren saria irabazi zuen Baztan Futbol Taldeak Touringen kontra.

## Denboraldi berria abiatu dute futbol talde nagusiek

Beti Gaztek igande honetan hasiko du Durangon (Bizkaia) hirugarren mailako ibilbidea

### TTIPI-TTAPA

2021-2022 denboraldia hasia edo hastear da eskualdeko futbol taldeentzat. Joan den larunbatean Nafarroako maila autonomikoa lehen jardunaldia jokatzekoa zuten Baztan eta Doneztebe futbol taldeek. Baztandarrak hirugarren mailatik jautsi eta donez-

tebarrak preferentetik igo ondotik kategoria berean aritu arren, multzo ezberdinetan daudenez, oraingoz ez dute derbirik jokatu lehen fasean. Aipatzekoa da denboraldi-aurrean Baztango Udalaren Saria irabazi zuela Baztanek, Giltxaurdin Erreteriariko Touringi 2-1 irabazita.

### Beti Gazte hirugarren mailan

Joan den denboraldian, 81 urteko historian lehen aldiz igoera historikoa lortu ondotik, hirugarren mailako ibilbidea irailera lehen asteburuan abiatuko du Lesakako Beti Gazte futbol taldeak Durangon (Bizkaia). Lesakarrak Nafarroako ordezkari bakarrak izanen dira kategoria honetan. Beraiekin batera Bizkaiko hamar talde (Urduliz, Leioa, Portugalete, Barakaldo, Deusto, Santutxu, Basconia, Uritarra, Durango eta Aurrera), Gipuzkoako bortz (Lagun Onak, Anaitasuna, Beasain, Tolosa eta Pasaia) eta Arabako lau (Alaves B, Amurrio, San Ignacio eta Vitoria) izanen dira, hoguei denera.

Maila mantentzea izanen da lesakarren helburu nagusia eta aurten ez da batere xamura izanen helburu horilortzea, inoiz baino zailagoa behar bada. Izan ere, 2022-2023 denboraldirako hoguei taldetik hamaseira murriztu beharko dute kategoria nahitaez eta, ondorioz, sei edo zazpi talde jautsiko dira. Mastegin lehen aldiz hirugarren mailako partida bat ikusteko aukera izanen dute irailaren 12an. Azkoitiko Anaitasuna izanen da bisitari.

## Indurain Fundazioak beka eman dizkie goi mailako kirolariei

### TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuaren esku dagoen Miguel Indurain Fundazioak Nafarroako 158 kirolariari eman dizkie aurten beka, 2020an lorturiko emaitzak direla eta. Aurrekontu osoa 307.800 eurokoa izan da, iaz baino %14 gehiago.

Eskualdeko kirolariei dagoenikenez, programa olinpikoaren baitan eta emaitzen arabera, Aresoko Adur Etxezarreta Rezola eskiatzaileak 3.893 euro jasoko ditu eta Saioa Jaurena Atxa errugbilari baztandarrak 487 euro.

Euskal pilota programan, Oian Canabal Etxarte eta Joseba Aldabe Etxeberria igantziarrek 400na euro jasoko dituzte.

Herri Kirol programan, Beti Gazte sokatira taldeko kideak izan dira beka gehien jaso dutenak. Zehazki, 300na euro jaso dituzte hamazazpi tiralarik. Hauetaz gain, Berako Nerea Sorondo aizkolariak 350 euro jaso ditu.



UTZITAKOA

## Emakumeen arpana txapelketa Arantzan

Arantzan jokatu zen abuztuaren 14an Nafarroako emakumezkoen arpana txapelketa. Ainhua Iraizoz eta Maria Iraizozek irabazi zuten (4'45"). Alaitz Olano eta Olatz Altuna bigarren izan ziren (5'47") eta Irune Biurrin eta Lucia Etxeberria goizuetarra hirugarren (6'40").



UTZITAKO ARGAZKIA

## Oihan Meoki Enduroko Koparen buruan

Oihan Meoki Iparragirre motor gidari lekozterra enduroko Copa TT 4 Estaciones txapelketako sailkapen burua dago, bi proba jokatu ondotik. Navalmodal de la Mata (Caceres) eta Tuña-Tineo (Asturias) herrietan apirilean eta ekainean egindako probetan hirugarren izan zen Meoki.



Orga jokoan txapeldun izan zen Unai Bertiz, Koldo Herrera eta Julen Ibarrekin.

## Txapel uzta ederra lortu dute abuztuan herri kirolariek

Unai Bertiz sunbildarrak Nafarroako orga joko txapelketa eta Unai Iantzi aniztarrak lokotx-biltze txapelketa irabazi dituzte

### TTIPI-TTAPA

Nafarroako orga joko txapelketa, lokotx biltze txapelketa eta kadete mailako arpana txapelketa jokatu zituzten abuztuaren 8an Doneztebeko Bear Zana plazan. Eskualdeko kirolariek maila polita eman zuten eta txapelak ere eskuratu zituzten Unai Iantzi aniz-

tarrak lokotx-biltzen (6:07) eta Unai Bertiz sunbildarrak orga jokoan (2 itzuli, 1/4 eta 0,85m). Lokotx biltzen hirugarren izan zen Berroetako Asier Gamio, laugarren Sunbillako Eneko Herrera eta borzgarren Sunbillako Julen Ibarra. Orga jokoan, laugarren izan zen Josetxo Urrutia leitzarra.

Emakumezkoen lokotx-biltze txapelketan Eltsoko Ainhoa Iraizoz suertatu zen txapeldun (7:38) eta podioko bertze bi kosketan izan ziren Berako Ainhoa Etxegarai (7:46) eta Iturengo Maika Ariztegi (7:59). Lucia Etxeberria goizuetarra bosgarren izan zen (8:27).

Arpanan, hirugarren izan ziren Igantziko Biltokiko Larraitz Eugi eta Manex Sarasola, Antsoingo bi bikoteren ondotik. Igantziko taldeko Uxue Biurrarena eta Luken Urtxegi eta Ane Telletxea eta Iñigo Txoperena laugarren eta borzgarren izan ziren.

### Bigarren mailako aizkolari finalistak erabakiak

Nafarroako bigarren mailako aizkora txapelketa jokatu zen abuztuaren 14an Arantzan. Ibai Soroa izan zen azkarrena eta berarekin sailkapeneko bertze lau pasako dira finalera: Txomin Amundarain, Xuban Kañamares, Beintza-Labaiengo Jon Telletxea eta Zubietako Mikel Indakoetxea. Seigarren izan zen Patxi Mindegia zubietarra, zortzigarren Beintza-Labaiengo Jesus Etxeberria eta bederatzigarren Oier Larretxea beratarra.

## Bortzirietako eskuz binakako pilota txapelketako finalak jokatuak

### TTIPI-TTAPA

Bortzirietako eskuz binakako pilota txapelketako finalak abuztuaren 13an jokatu zituzten Arantzan.

**Kadeteak:** Iker Sagardia eta Endika Santesteban (Txaruta), 22; Eki Mateorena (Aurrera) eta Ekai Madariaga (Bortzirriak), 14.

**Haurrak:** Ainitze Martinez eta Amaiur Martinez (Bortzirriak), 18; Mirari Iturralde eta Zelai Sarratea (Ultzama), 15.

**Haurrak:** Loitzate Goñi (Bortzirriak) eta Unax Bereau (Arkupe), 18; Iribarren eta Duarte (Txaruta), 8.

**Kimuak:** Iraun Zestau eta Xuban Lakar (Bortzirriak), 18; Enaitz Bereau eta Kemen Telletxea (Arkupe), 12.

**Umeak:** Aratz Laka eta Urko Telletxea (Arkupe), 18; Enaitz Zestau eta Erik Igoa (Bortzirriak), 13.

**Tikiak:** Aiert Irazu eta Beñat Goñi (Bortzirriak), 18; Mikel Ugalde eta Eñaut Zubieta (Bortzirriak), 11.

## Rekondo-Saralegi aizkoran eta Urrutia harri jasotzen Nafarroako txapeldun

### TTIPI-TTAPA

Nafarroako binakako aizkora txapelketa eta Nafarroako harri-jasotze txapelketa jokatu zituzten abuztuaren 21ean Lekunberrin eta bietan Leitzara joan ziren txapelak.

Nafarroako binakako aizkora txapelketan Jon Rekondo eta Eneko Saralegi nagusitu ziren. Sei kanaerdiko eta sei 60 ontzako mozteko 26 minutu behar izan zituzten. Iker Vicente eta Iban Resano bigarren izan ziren eta minutu eta erdi gehiago behar izan zuten. Julen Kañamares eta Zigako

Joxean Etxeberria hirugarren izan ziren. Lan erdiak bitarte bigarren izan ziren, baina gero beheiti etorri ziren eta 28 minutu baino gehiago behar izan zituzten lanak burutzeko.

### Josetxo Urrutia txapeldun harri jasotzen

Nafarroako harri-jasotze txapelketan berriz ere txapeldun izan zen Josetxo Urrutia leitzarra, Albaro Zugarrondoren aurretik. Bina minutuko txandak egin zituzten 135 kiloko zilindroarekin, 112,5 kiloko kubikoarekin eta 100 kiloko



Rekondo eta Saralegi txapeldunak, lehiakideekin batera.

bolarekin. Harri borobileran 100 kiloko aldearekin (altxaldi bat) besterik ez zen ailegatu Urrutia, baina azken horretan 14

jasoaldi eman zituen leitzarrak eta 11 Zugarrondok. Hortaz, azkenean 400 kiloko aldearekin nagusi izan zen Urrutia.

## IRAILAK 2 - 16

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



UTZITAKOIA

### SUNBILLA IX. Arretzeko Bordako Kronoigoera

Izen-ematea: [www.rockthersport.com](http://www.rockthersport.com) webgunean. Prezioa: bortz euro. Irailaren 11n, 09:00etan. Dorsala hartzea 08:30ean.

### KONTZERTUAK

#### LEITZA

##### Incansables txarangaren emanaldia

Plazan (euria bada Herri Aretoan), irailaren 5ean, 12:00etan.

#### LESAKA

##### Kantu bira Lesakako abesbatzarekin

Antoiutik abiatuta, irailaren 11n, 19:00etan.

#### Dupla

Harriondoako atarian, irailaren 12an, 19:00etan.

#### ELIZONDO

##### Baztan Kantuz

Plazatik abiatuta, irailaren 19an, 12:00etan.

### IKUSKIZUNAK

#### LEITZA

##### Aurrerako dantzariak

Plazan (euria bada Herri

Aretoan), irailaren 4an, 19:00etan.

#### LESAKA

##### 'Nekatutak' bakarriketa

Bittiriko plazan, irailaren 3an, 20:00etan.

##### Erraldoi eta buruhandien konpartsa

Harriondoatik abiatuta, irailaren 4an, 10:30ean.

#### ZUBIETA

##### Haurrentzako ipuin-kontaketa Ameliren eskutik

Plazan (euria ari badu estalpean edo eskolan), irailaren 11n, 18:30ean.

### KIROLA

#### BERA

##### VII. Gau Krosa

Merkatu plazatik, irailaren 4an, 22:00etan.

#### SENERE

##### Kirol elkarten eguna

Larrekon, irailaren 4an.

#### ETXALAR

##### Afizionatuen pilota partida

Frontoian, irailaren 11n, 18:00etan.

#### SUNBILLA

##### IX. Arretzeko Bordako kronoigoera

Irailaren 11n. Izen-ematea: [www.rockthersport.com](http://www.rockthersport.com) atarian.

### TAILERRA

#### ZUBIETA

##### Ogia egiteko tailerra

Estalpean, irailaren 4an, 10:00etan. Izen-ematea: 948 45 01 61 telefonoan.

### SOLASALDIAK

#### BAZTAN

##### Mahai ingurua Elixabete

##### Garmendia eta Andu

##### Lertxundiren eskutik

Irailaren 18an.

### IKASTAROAK

#### ARANTZA

##### Gaztainak txertatzeko ikastaroa

Gimnasioan, irailaren 4an, 08:30ean praktikoa eta 16:00etan teorikoa.

#### ELIZONDO

##### Frantsesa

Irailaren 7tik urriaren 4ra, 10:00etatik 12:00etara.

#### LESAKA

##### Askotariko lanetarako ikastaroa

Irailaren 13tik urriaren 4ra, 09:15etik 14:30era.

#### DONEZTEBE

##### Ingelesa

Irailaren 14tik abenduaren 21era 09:30etik 11:00etara B2 maila eta 11:00etatik 12:30era A2 maila.

#### LEKAROZ

##### Komunikazio digitala

Aterpean, irailaren 20tik urriaren 1era, 09:15etik 12:30era.

##### Zerbitzarientzako ikastaroa

Aterpean, irailaren 21etik azaroaren 26ra, 09:15etik 14:30era.

### AZOKA

#### ELIZONDON

##### Artisautza eta elikagaien azoka

Plazan, irailaren 4an, 11n, 18an eta 25ean, 10:00etatik 14:00etara.

### ERAKUSKETA

#### ELIZONDON

##### '1922-1936 Amaiur' erakusketa

Arizkunenea kultur etxean, irailean.

## «Herriko jendeak arras ongi hartu du euskara ikasteko dudan interesa»

LEIRE URIEL MOLINA ZUGARRAMURDIN BIZI DEN SORRIARRA



Zugarramurdirin bizi da gaur egun Leire Uriel Molina (Soria, 1990), baina Soria, Cintruenigo eta Lizarra ere izan ditu bizileku. Natura gustuko duen neska da, «despistatu samarra eta bizitza umorez hartzen saiatzen dena». Duela hiru urte hasi zen euskara ikasten, eskualdera bizitzera etorri zenean, eta aunitz ikasi du eta nabarmen hobetu du geroztik. Gainera, proiektu berri bat martxan paratu du, NÜK Natura.

### Euskalduna kasualitatez

Soriakoa da Leire Urielen aita eta Lizarrakoa ama, eta, beraz, ez du euskararekin lotura handirik izan txikitán. Soriako bestetan «kasualitatez» ezagutu zuen gaur bere bikotekidea dena, zugarramurdiarra, eta denborarekin hona bizitzera etortzea erabaki zuen.

«Asteburuak pasatzerá etortzen hasi zen lehenbiziko, eta bertan jendea euskaraz aditzen zuenean, «ez nuen deus ulertzen», onartu du. Horregatik, «Zugarramurdira bizitzera etorri nintzenean, euskaltegian izena ematea erabaki nuen».

2018an hasi zen klaseak hartzen AEKn, Elizondoko Suinki euskaltegian. «Ez nuen inor ezagutzen –dio–, baina irakasle eta ikaskideak arras jatorrak ziren eta giroa arras ona zen». Horregatik «gogotsu eta arras motibatuta» hasi zituen klaseak. Hasieran eus-

**«EUSKARAZ SOLAS EGITEKO AHALEGINA AUNITZ BALORATZEN DU JENDEAK»**

karaz aritzeak lotsa ematen ziola aitortu du, «baina hala ere saiatzen nintzen».

Konfinamenduaren ondotik euskaltegia uztea erabaki zuen denbora faltarengatik, «baina ikasi dudana ez galtzen saiatzen naiz. Orain ez dut hainbertze praktikatzeko baina noizbehinka euskaltegiko kideekin, herriko jendearekin eta lanean euskaraz aritzen naiz».

### Hizkuntza berri bat

Aunitzetan erran ohi dute euskara hizkuntza zaila dela ikasteko, ezagutzen diren hizkuntza familia guztietatik kanpo gelditzen baita. Leire Urielen kasuan ez zen horrela izan, «gogotsu hasi nintzelako. Egia da ikasi ahala kontua zailtzen hasi zela, baina hastea da kontua!!». Denborarekin bere gaitasunak hobetu ditu, orain «gehiago ulertzen dut eta elkarrizketak hobeki jarraitzen ditut».

Gainera, inguruko jendeak «euskaraz solas egiteko ahalegina baloratzen duela» nabaritu du, «nahiz eta akatsak egin». Herriko jendearen jarra ona izan da eta «arras ongi hartu dute euskara ikasteko dudan interesa». Hala ere, Zugarramurdirin «denetarik dago, batzuk ohituta daude dagoeneko eta gaztelaniaz solas egiten jarraitzen dute, baina bertze batzuek euskaraz solas egiten didate».

Kanpotik etorri eta euskara ikasteko aukera dutenak saiatzerá animatu ditu Urielek; «hizkuntza interesatzen bazazue, zaila dela erran arren, ez izan beldurrik. Ni ez naiz damutzen, esperientzia arras ona izan da».

**«AMATXIK IRAKATSI ZIZKIDAN LANDARE ETA LOREEN PROPIETATEAK»**

### NÜK Natura

«Gure ingurunea eta gorputza zaintzeko pentsatutako proiektua» da NÜK. Osagai natural eta biodegradagarriekin, xanpuak eta kosmetiko naturalak sortzen ditu Leire Urielek; «produktu guztiak formatu solidoan egiten ditut, ontziak saihesteko».

Txiki-txikitatik izan du naturarekiko interesa, «amatxirekin landare eta loreak biltzen nituen, eta bakoitzaren propietateak irakasten zizkidan. Hasieran jolas bat zen, baina denborarekin serioago hartu eta trebatzen hasi nintzen». Familiarendako eta lagunendako produktuak sortzen hasi zen, eta «xanpu solidoak hainbertze gustatzen zitzaizkenez, pausoa ematera animatu ninduten».

Artisau-lana da, eta prozesu guztiaz arduratzen da Uriel, «formula sortzea, elaborazioa, paketatzea... eta eskaera bakoitza nik bildu eta lehortutako iratze batekin apaintzen dut». Salmenta eta bidalketak ere kudeatzen ditu, «baina bazuetan familiakoek laguntzen naute».

Sare sozialak ditu erakusleho, Facebook eta Instagram bidez jasotzen baititu eskaerak «eta laster webgune bat sortzeko asmoa dut». Azoketan ere ibili ohi da; «alde politenetako bat da jendearekin harremanetan jartzea, zalantzekin laguntzea, opari bereziak prestatzen laguntzea...».

Jendearen erantzuna «espero nuena baino hobea» izan da, «nahiz eta hasieran kosmetikoak solidoak izatea arraroa iruditu, azkenean ia denek errepikatu dute eta nire produktuak gomendatu dituzte, eta alde horretatik arras kontent nago».

Etorrizunera begira, «Zugarramurdirin bizitzen jarraitzea gustatuko litzaidake. Herriko jendeak ongi hartu nau eta arras gustura nago hemen».

## MERKATU TTIKIA

### ETXEBIZITZAK

SALGAI



**LESAKA.** Koxkonta salgai. 4 solairu: jatetxea, sagardotegia eta garajea, goian etxebizitza (6 gela, 2 komun, sukaldea eta egongela). Prezio berria: 395.000 euro. ☎618 55 23 10.



**ARANTZA.** Zumarrendi baserria salgai. Bidea du etxe atariraino, baita ura eta argia ere. ☎606 96 02 37

### ERRENTAN EMATEKO

**ELIZONDO.** Txokoto auzoan egoera onean dagoen apartamentua errentan emateko, urritik ekainera. Apartamentuak 2 logela, sukalde-egongela eta komun bat. ☎697 96 60 50.

**BERA.** Sara karrikako 21. zenbakian pisua errentan emateko. Mobleztatu gabea. ☎672 05 86 54.

### ERRENTAN HARTZEKO

Eskari handiagatik alokairuko etxebizitzak behar dira. Jabearentzat kosturik gabe. Kontratu eta kudeaketa barne. ☎620 02 86 25 / 948 63 05 52.

**IRUN.** Lagun batek pisu bat aurkitu nahi du beste zonaldeko ikasle batekin konpartitzeko. Irailtik ekainera. ☎948 45 07 08.

### KONPARTITUAK

**DONOSTIA.** Etxalarko bi neska gazte pisukide bila ari dira 2021-2022 kurtsorako. Pisua Amara auzoan. ☎634 98 12 86 / 638 80 78 51.

**BERA.** Logela bat errentan hartuko luke irailtik abendura. ☎669 48 17 31 (Josemari).

**DONOSTIA.** Baztango mutil gazte bat Donostian konpartitzeko pisu baten bila dabil. ☎645 26 49 60.

### GARAJEAL/LOKALAK

EROSI

**LESAKA.** Garaje bat erosi nahi dute Plaza Zaharraren inguruan. ☎638 14 70 81.

## IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira  
TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da  
Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

### LANA

ESKARIAK

Pertsona helduekin eta etxeetan zaintza-lanetan aritzeko emakumea prest. Autoarekin. Berehala hasteko. ☎666 37 53 72.

ESKAINTZAK

**SUNBILLA.** Aritzigain kanpinean zerbitzaria eta sukalde laguntzailea behar dituzte. ☎948 450540.

Frantses pixka bat dakiena behar dute Larhango benta batean lanean segituan hasteko. ☎607 56 60 22.

**URDAZUBI.** Montxo ostatuan sukaldean eta zerbitzatzen aritzeko langileak behar dituzte. ☎848 85 00 21.

**LEITZA.** Goizez 07:30etik 09:00etara 2 eta 5 urteko haurrak zaintzeko norbaiten bila. ☎658 75 93 34.

**BERA.** Zalain jatetxean zerbitzaria behar dute. ☎948 63 11 06.

**IRUN.** Jatetxe batean zerbitzaria behar dute. Esperientzia izatea kontuan hartuko dute. ☎650 17 30 31.

### ANIMALIAK

SALGAI

**LEITZA.** Txerrikume pintoak salgai, bizirik edo labean erretzeko prestatuta. ☎690 98 61 18.

OPARITZEKO



**Katakumeak** oparitzeko. ☎626 33 53 98.

**Katakume** alai eta mimosa bat etxe bila. ☎650 79 76 69.

## BASERRIA

### BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,12
- 1.koa 4,00
- 2.koa 3,85

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,23
- 1.koa 4,09
- 2.koa 3,95

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 130,00
- Idixkoak 150,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00
- Idixkoak 140,00

### ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 4,20/4,30
- Zaldi-behorrak 1,87/2,04

### ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,50/9,50
- 8-10 kilokoak: 7,50/8,10

### ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 37 €

Zerri gizona 1,243€

Zerramak 0,510€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua abuztuaren 13tik 20ra bitarteko prezioak)



**Txakurkume mestizoak** opari. Gurasoak neurri ttikikoak. Bi ar eta bi eme, aukeran. ☎657 60 59 05.

### DENETARIK

SALGAI



Armairu *rustikoa* salgai. Prezioa: 500 euro. Konpromisorik gabe ikusteko aukera. ☎664 25 47 57.



**LESAKA.** Bi habia-ohatze (*cama nido*) salgai. Banaka erosten ahal dira. Egoera onean. Edozein zalantza izanez gero deitu lasai. ☎639 91 89 72.

### GALDU-AURKITUAK

**LESAKA.** Trenbidean edo Otsangoko errekan, Erramuegitik Berrotarango tartean, kirolerako eguzkitako betaurrekoak galdu zituzten uztairen 27an. ☎628 57 22 73.

**DONAMARIA.** Artez auzoko Migelenea etxe inguruan kartera galdua, dokumentazio guztiarekin. ☎948 45 04 67.



**SANTESTEBAN TAILERRAK**



**KM 0**

**DACIA DUSTER TCE 130 CV 4X2**  
16.700 €

[www.talleressantesteban.com](http://www.talleressantesteban.com)

DONEZTEBE - T. 948 450 282 - info@talleressantesteban.com



## TTIPI-TTAPA lan-poltsa osatzeko kazetariak behar ditu

### Eskatuko da:

- Kazetaritza edo euskal ikasketak izatea.
- EGA edo baliokidea den euskara maila izatea.

### Kontuan hartuko da:

- Kazetaritza lanetan esperientzia izatea.
- InDesign programa erabiltzen jakitea.
- Gidatzeko baimena eta autoa izatea.

Bidali curriculuma [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus) helbidera irailaren 14a baino lehen.




Seat Ibiza 1.0 tsi 95. 30.000 km



Peugeot expert 2000 hdi. 34.000 km



Toyota Land cruiser vxl

**Ordoki ind. - Arizkun - BAZTAN**  
T.Fax 948 453 493 - 617 969 847  
[baztangoiza@yahoo.es](mailto:baztangoiza@yahoo.es)  
[www.baztangoizataillerrak.com](http://www.baztangoizataillerrak.com)

### Sampi Aragón



SEAT LEON FR 1.5 ECOTSI 150CV  
33.000 KILOMETRO



FORD FOCUS 1.5 ECOBOOST 120CV TREND  
KILOMETRO 0



FORD KUGA 1.5 ECOBOOST 150CV ST-LINE  
KILOMETRO 0

**DONEZTEBE | 948 450 354**

## KONTATU KONTUAK



**Errekaren Eguna Lesakan.** Beti Gazte elkarteak antolatuta, Errekaren Eguna egin zuten abuztuaren 21 ean Lesakan. Ez zen jende sobera bildu baina bildu zirenek ederki garbitu zuten Onin erreka.

### Kontatu, kontatu!

Edozein argazki erakutsi nahi duzula ere, bidali mezua [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus) helbidera edo whatsapppez 744 484361 zenbakira.

BERRIA



## WEB eta MULTIMEDIA

### MULTIMEDIA

Bideoak, animazioak, gif-ak...  
informazioa modu erakargarrian.

- WhatsAppez partekatzeko kanpainak (bideoak eta mikrowebak)



### WEB ORRIAK

Enpresa, elkarte eta erakundeentzako web orriak gailu guztietara egokituak.

- Landetxeak
- Komertzioak
- Gremioak...

Ordenagailu, tablet eta mوبiletara egokitua

Testu eta argazki galeriak

Kontaktu formularioa

Lokalizazio-mapa

Hizkuntzak aukeran



Info +:  
Tel: 948 63 54 58  
[kulturkari@ttipi.eus](mailto:kulturkari@ttipi.eus)  
[www.kulturkari.com](http://www.kulturkari.com)

**ESKATU  
AURRE  
KONTUA**

OROIGARRIA

**Ainhoa  
LOIOLA AMUTXASTEGI**

2021ko abuztuaren 20an



Ainhoa, duela urte batzuk agertu zinen gure artean, eta nahiz eta inkisidore eta akerraren lagun-mina izan, ederki konpondu zinen sorginen artean ere. Orain, Zugarramurdiko atorra urdinarekin irudikatuko zaitugu, Narkoneko bordako inguru horietan.

ANTZERKI TALDEKO LAGUNAK

URTEURRENA

**Jose Mari  
BARRENETXE LERTXUNDI**

*Fideo*

2020ko irailaren 5ean hil zen  
**I. urteurrena**



Beti izanen zaitugu bihotzean.

ZURE FAMILIA

OROIGARRIA



**Luis MITXELENA ABANZ  
Benita LARRALDE TAPIA  
Juan Fermin MITXELENA LARRALDE**

Seguru urte aunitz pasatuko direla  
Eta hauek lehenbizikoak bertzerik ez direla izanen  
Baina urteak kontatu ahal izateak berak  
Zuekin ahanzen ez garela adierazten du.

LESAKAKO FAMILIA

URTEURRENA




**Pedro GRAZENA ALDAIA**

Umorez eta alaitsu egoten ginen elkarrekin.  
Oroitzapen ahaztezin horiek  
beti geldituko dira gurekin.  
Urte bat pasa arren, gogoan zaitugu, osaba.

**ZURE ILOBAK**



Bere aldeko meza irailaren 4an Eratsunen izanen da, arratsaldeko elizkizunean.



**948 05 90 90**  
ENPATIA, HURBILTASUNA  
ETA BEGIRUNEA  
[www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

**BEILATOKIAK:** Elizondo,  
Arantza, Bera, Igantzi  
Doneztebe

**IZARRA**  
HEMEN, ZURE ONDOAN  
ADÍE, A TU LADO



**BAZTAN BIDASOA**  
Ehorzketa Zerbitzuak

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA  
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

**24 ORDU | 948 48 95 50**  
365 EGUN | [info@funerariabaztanbidasoa.com](mailto:info@funerariabaztanbidasoa.com)

Betiko taldea zu laguntzeka

**BAZTAN: ELIZONDO**n Santiago kalea, 79  
**BORTZIRIAK: BERAN** San Jose Beilatokian  
**MALERREKA: DONEZTEBE**n Aparan ind. 1-3  
**web: [funerariabaztanbidasoa.com](http://funerariabaztanbidasoa.com)**

**ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:**  
**948 63 54 58, 744 48 43 61** edo [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)

- ▶ **Eskelak, Esker Onak** eta **Urteurrenak**  
Ttipi-Ttapa aldirikarian + ERRAN.EUSen: 90 €  
Ttipi Txartela dutenek %10eko deskontua.
- ▶ **Oroigarriak** egiten ditugu, pertsonalizatuak, nahi den argazki eta testuekin prestatuak. Ikusi ereduak gure bulegoan, (Koskontako bidea, 7-1 · 31770 LESAKA).



**IRACHE**  
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA  
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

 **948 63 74 04 / 948 19 70 70**  
[www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)



## HILBERRIAK

- **Mertxe Gaintza Aldazabal**, Berakoa, uztailearen 21ean, 98 urte zituela.
- **Matilde Zenoz Espelosin**, Elizondokoa, uztailearen 21ean, 92 urte zituela.
- **Angel Mari Arrondo Muñoz**, Elizondokoa, uztailearen 21ean, 65 urte zituela.
- **Loli Aranburu Arruti**, Berakoa, uztailearen 23an, 76 urte zituela.
- **Manoli Aizpuru Etxenike**, Doneztebekoa, uztailearen 23an, 91 urte zituela.
- **Tiburcio Sanzberro Iriarte**, Iturengoa, uztailearen 23an, 77 urte zituela.
- **Ana Mari Soria Ariztegi**, Etxalarkoa, uztailearen 24an, 88 urte zituela.
- **Juan Modesto Jorajuria Zubiri**, Anizkoa, uztailearen 25ean, 67 urte zituela.
- **Jesus Salgado Salgado**, Elizondokoa, uztailearen 27an, 84 urte zituela.
- **Julian Sagaseta Sagaseta**, Donamariakoa, uztailearen 28an, 88 urte zituela..
- **Juana Ekioiz Arratxe**, Almandozkoa, uztailearen 30ean, 95 urte zituela.
- **Jose Luis Azanza Legarra**, Arizkungoa, abuztuaren 2an, 90 urte zituela.
- **Gregorio Ozkoidi Iparragirre**, Berakoa, abuztuaren 3an, 74 urte zituela. .
- **Jose Fernandez Aleman**, Elizondokoa, abuztuaren 4an, 85 urte zituela.
- **Agustin Lizasoain Ezpeleta**, Legasakoa, abuztuaren 4an, 85 urte zituela.
- **Enrike Etxenike Garaikoetxea**, Doneztebekoa, abuztuaren 5ean, 63 urte zituela.
- **Felix Elvira Usabarrena**, Elizondokoa, abuztuaren 9an, 72 urte zituela.
- **Juana Ibarra Indakoetxea**, Zubietakoa, abuztuaren 12an.
- **Catalina Uharte Estanga**, Leitzakoa, abuztuaren 12an, 93 urte zituela.
- **Martina Malda Sansiñena**, Berakoa, abuztuaren 13an, 75 urte zituela.
- **Mª Jesus San Juan Zubieta**, Berakoa, abuztuaren 13an, 77 urte zituela.
- **Jose Ramon Etxarri Mujika**, Aresokoa, abuztuaren 15ean, 72 urte zituela.
- **Manuel Nuñez Guevara**, Elizondokoa, abuztuaren 15ean, 90 urte zituela.
- **Francisco Javier Iparragirre Almandoz**, Arantzakoa, abuztuaren 17an, 83 urte zituela.
- **Amador Txoperena Etxeberria**, Igantzikoa, abuztuaren 18an, 83 urte zituela.
- **Marixan Bengotxea Maisterrena**, Urdazubikoa, abuztuaren 18an, 95 urte zituela.
- **Ramon Mendiburu Arburua**, Lekarozkoa, abuztuaren 21ean, 85 urte zituela.
- **Miguel Arregi Inda**, Oronoz-Mugairikoa, abuztuaren 22an, 95 urte zituela.
- **Martin Aleman Saharrea**, Elizondokoa, abuztuaren 23an, 85 urte zituela.
- **Teresa Etxekolonea Makuso**, Doneztebekoa, abuztuaren 24an, 80 urte zituela.

## URTEBETETZEAK



**Sara Gomez Ribeiro** 2 urte bete ditu abuztuaren 16an. Zorionak eta muxu haundi bat Nahia eta familiaren partetik.



Leitzako **June Urkiola Mariezkurrenak** abuztuaren 24an 9 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat Lide, Izargi eta Haizederren partetik.




**Haritz Ariztegi Gorosterrazuk** irailaren 16an 7 urte beteko ditu. Aunitz urtez *bixito* familiaren eta bereziki amaren partetik. Segi orain bezain bihurri.



Arantzako **Suhar Sorli Lizardik** irailaren 5ean bi urte beteko ditu. Mila kilo zorion familia guztiaren partetik!!!




Aunitz urtez gure etxeko bi kalanbreei! **Leirek** irailaren 1ean eta **Naiak** irailaren 15ean urteak beteko dituzte. Egun ederra pasa etxeko guztien partetik.




Aunitz urtez **Hegoi** eta **Ainereri** irailaren 5ean eta 10ean 4 eta 11 urte beteko dituztelako. Muxu potolo bana familiaren partetik!




Elizondoko **Unax Legarrea Arnalek** 3 urte bete ditu abuztuaren 22an. Anitz urtez *pollite*!! Maita zaitugu, Eider, aita eta ama. Animeleko besarkada!!



Narbarteko **Unai** eta **Saioa Zubigarai Bertizek** 5 eta 2 urte bete dituzte abuztuaren 5ean eta 21ean. Zorionak familia guztiaren partetik. Muxuak!



Abuztuaren 6an **Arene Matxiñena Barberena** gure etxeko *printxexak* urtea bete zuen. Aunitz urtez familia guztiaren partetik!!! Urte bat, muxu bat!!!




Iturengo **Unax Petrirenak** abuztuaren 16an 2 urte bete ditu. Zorionak Berako atabxi eta Sunbillako familiaren partetik, bereziki Enaitz eta Izareren partetik. Muxu potolo bat!

# PLAZAN BAZAN



## SAREA

Arrain honek mugimendu jakin batzuk egin behar ditu laukiz lauki, sarean harrapatuta ez gelditzeko: hiru aurrera, bi behera, hiru aurrera, bi behera... horrela etengabe joan beharra dauka, irteerara iritsi arte. Baina nondik hasiko da? Zein zirikitutatik joan beharko du? Lau dituzu aukeran.



Marrazkiak: Garbiñe Ubeda (Aiturri)

**INTERNETEN ERE BAI !**  
<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak  
[www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak](http://www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak)



# MEZU GORDEAK

Erabili marrazkitxoan alfabetoa eta pertsonaia bakoitzak zer dioen jakinen duzu. Esaldi horietako bat esaera zahar bat da, zein da?



- 1 \_\_\_\_\_
- 2 \_\_\_\_\_
- 3 \_\_\_\_\_
- 4 \_\_\_\_\_

ALFABETOA													
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L		
M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X		
Y	Z	.	:	,	!	?	"	+	=	%			

# Ikasi euskara, bidelagun onenarekin

Aprende euskera,  
con la mejor  
compañía



**aek**  
euskara praktikoa

Ilxar Eratsun Urtzelareta eta Kike Palma  
Huete AEK-ko irakaslea eta ikaslea

## Baztango AEK Suinki euskaltegia

**EUSKARA IKASTAROAK · CURSOS DE EUSKERA**

**Maila guztiak – Ordutegi guztiak · Todos los niveles y horarios**

**Talde presentzialak – Autoikaskuntza**

**Grupos presenciales – Autoaprendizaje**

**EGA prestatzeko ikastaroa**

Baztan Berri 7 · 607 605 802 · [baztan@aek.eus](mailto:baztan@aek.eus)

### **DIRULAGUNTZAK / BECAS**

**Nafarroako Gobernua/ Udaleko dirulaguntzak jasotzeko aukera**  
Posibilidad de optar a ayudas del ayuntamiento y Gobierno de Navarra.